

AURKIBIDEA

1	LURRALDE EREDUAREN OINARRIAK: LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN ESTRATEGIA	6
1.1	LURRALDE BATEN AHALMENA: ERAGOZPENAK ABANTAILA BIHURTZEN DIRA.....	6
1.1.1	<i>Helburu orokorrak</i>	6
1.1.2	<i>Helburu zehatzak</i>	6
1.1.3	<i>Testuingurua</i>	7
1.1.4	<i>Estrategia</i>	8
1.2	ETORKIZUNEN AGERTOKIAK: XXI. MENDERAKO OINARRIAK FINKATZEA.....	9
1.3	LURRALDE EGITURA: LURRALDE OREKATURANTZ.....	12
1.3.1	<i>Lurralde Egitura</i>	12
1.3.2	<i>Eredu Biguna</i>	15
1.3.3	<i>Eredu Gogorra</i>	16
2	INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA (LURZORU URBANIZAEZINA)	17
2.1	HELBURUAK.....	17
2.2	INGURUNE FISIKOA ARAUTZEKO IRIZPIDEAK.....	17
2.3	KATEGORIAK.....	18
2.3.1	<i>Babestu edo leheneratu beharreko espazioak</i>	18
2.3.2	<i>Lurraldearen gainerakoa</i>	25
2.3.3	<i>Baldintzatzaille gainjarriak</i>	27
2.4	AZPIEGITURAK.....	27
2.5	PROPOSAMENAK.....	28
3	HIRI SISTEMA	31
3.1	BURUTZAK.....	31
3.2	AZPIBURUTZAK.....	31
3.3	HIRIGUNE NAGUSIAK.....	32
3.4	GAINERAKO HIRIGUNEAK.....	32
4	LURZORU POLITIKAK	34
4.1	OSAGARRITASUNA, BARRUKOA – KANPOKOA.....	34
4.2	OSAGARRITASUNA, BARRUKOA – BARRUKOA.....	34
4.3	EKONOMIA JARDUERA, FINKATZEA.....	35
4.4	EKONOMIA JARDUERA, ZABALTZEA.....	35
4.5	EKONOMIA JARDUERA, ERAGIKETA BERRIAK.....	35
4.6	BIZITEGIRAKO LURZORUA, ERAGIKETA OSAGARRIAK.....	35
4.7	LURRALDE EKIPAMENDUA.....	36
5	ATSEDEN EREMUEN SISTEMA ETA LURRALDERAKO SARGUNEAK	37

5.1	ATSEDEN EREMUEEN ANTOLAMENDUA.....	37
5.2	LURRALDERAKO SARGUNEEN ANTOLAMENDUA	38
6	ETXEBIZITZA BEHARRAK ETA BIZITEGI LURZORU BERRIAREN ESKAINZA KUANTIFIKATZEA	40
6.1	HELBURU DEMOGRAFIKOAK	41
6.2	ESKAINZA DOITZEA	43
6.3	BIZITEGI ESKAINZA HOBETZEA	43
6.4	BIGARREN BIZITEGIAREN ANTOLAMENDUA.....	44
7	EKONOMIA JARDUERAK: ANIZTASUNA SUSTATZEA	47
7.1	HELBURUA: EKONOMIA ANIZTEA	47
7.2	LEHEN SEKTOREA	48
7.3	INDUSTRIA SEKTOREA.....	49
	7.3.1 <i>Laguardia eta Oyón-Oion</i>	51
	7.3.2 <i>Elciego, Lantziego eta Labastida</i>	52
	7.3.3 <i>Gainerako udalerrriak</i>	52
7.4	HIRUGARREN SEKTOREA	52
7.5	BALIABIDE TURISTIKOEN ANTOLAMENDUA	53
7.6	UPELTEGIAK: ELEMENTU BEREIZGARRIA	54
8	BIDE AZPIEGITURA: IRISGARRITASUNA HOBETZEA	57
8.1	ERLAZIO SISTEMA: BIDE MOTAK.....	57
	8.1.1 <i>Bide estrategikoak</i>	57
	8.1.2 <i>Bide egituratzaileak</i>	58
	8.1.3 <i>Landa-bideak</i>	59
8.2	BIDEEN GAINEKO JARDUNAK	59
	8.2.1 <i>Bideak hobetzea</i>	60
	8.2.2 <i>Azpiegitura berria</i>	62
8.3	HERRIGUNEKO SAIHESBIDEAK.....	64
9	ENERGIA ETA ERAUZPEN JARDUERAK.....	66
9.1	ENERGIA KONBENTZIONALAK	66
9.2	ENERGIA BERRIZTAGARRIAK	66
9.3	ERAUZPEN JARDUERAK	67
10	OBRA HIDRAULIKOA, HONDAKINAK ETA LURZORU KUTSATUAK.....	68
10.1	OBRA HIDRAULIKOAK.....	68
	10.1.1 <i>Obra publikoak</i>	68
	10.1.2 <i>Pribatuak: labore ureztatuak, aisia, etab.</i>	69
10.2	HONDAKINAK	70
	10.2.1 <i>Hiri-hondakin solidoak</i>	70
	10.2.2 <i>Industria-hondakinak</i>	70
	10.2.3 <i>Hondakin geldoak</i>	70
10.3	KUTSATUTAKO LURZORUAK	71

11	HIRI JARDUNERAKO ORIENTAZIOAK.....	72
11.1	HIRIGUNE HISTORIKOAK ETA INTERESEKOAK BABESTEIA ETA LEHENERATZEA.....	72
11.2	IBAIERTZEN TRATAMENDUA.....	72
11.3	INDUSTRIA EREMUEAN ANTOLAMENDU PAISAJISTIKOA.....	72
11.4	EKIPAMENDUEN ANTOLAMENDUA.....	72
11.5	HIRI EREMU BERDE BERRIAK.....	73
12	KULTUR ONDAREAREN ANTOLAMENDUA.....	74
12.1	ZAINTZA.....	74
12.2	BALIOA AREAGOTZEA.....	74
12.3	KULTUR INTERESEKO IBILBIDEAK SORTZEA.....	75
13	EKIPAMENDUAK: HIRI KALITATEAREN ALDEKO APUSTUA.....	76
13.1	EKIPAMENDUEN EGITEKOA.....	76
13.2	OSASUN ETA ASISTENTZIA EKIPAMENDUA.....	77
13.3	HEZKUNTZA EKIPAMENDUA.....	78
13.4	KIROL EKIPAMENDUA.....	78
13.5	KULTUR EKIPAMENDUA.....	80
13.6	TURISMO AZPIEGITURA.....	81
13.7	MERKATARITZA AZPIEGITURA.....	82
13.8	UDALAZ GAINDIKO BESTELAKO EKIPAMENDUAK.....	84
14	UDAL PLANGINTZAREKIKO ERAGINA.....	85
14.1	MAÑUETA.....	86
14.2	ELCIEGO.....	87
14.3	BILAR.....	88
14.4	KRIPAN.....	90
14.5	LABASTIDA.....	91
14.6	LAGUARDIA.....	93
14.7	LANTZIEGO.....	96
14.8	LAPUEBLA DE LABARCA.....	98
14.9	LEZA.....	99
14.10	MOREDA DE ÁLAVA.....	101
14.11	NAVARIDAS.....	102
14.12	OYÓN-OION.....	103
14.13	SAMANIEGO.....	105
14.14	ESKUERNAGA.....	107
14.15	YÉCORRA.....	108

Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planaren Sustapena eta Zuzendaritza
Promoción y Dirección del Plan Territorial Parcial de Laguardia (Rioja Alavesa)

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Eusko Jaurlaritza.

Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente. Gobierno Vasco

Sabin Intxaurre Mendibil

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua
Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente

Abel Muniategi Elorza

Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate Sailburuordea
Viceconsejero de Ordenación del Territorio y Biodiversidad

Martin Arregi San Miguel

Lurralde Antolamendu Zuzendaria
Director de Ordenación del Territorio

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko TaldeTeknikoa

Equipo Técnico del Dpto. de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente

Jesus M^a Erquicia Olaciregui

Lurralde Antolamendu eta Planeamendurako Zerbitzuaren Arduraduna.
Arkitekturan Doktoorea
Doctor Arquitecto. Responsable Servicio Ordenación del Territorio y Planeamiento

Luzio Fdz. de Retana Garmendia

Arabako Lurralde Antolamendurako Arduradun. Arkitektoa
Arquitecto. Responsable Ordenación Territorial de Alava

José Obdulio de la Fuente Martín

Lurralde Azterlanetako Burua. Arkitektoa
Arquitecto. Jefe de Estudios del Territorio

Teodoro Olea Iturregi

Lurralde Antolamendu Zuzendaritzako Arduradun Juridiko-Ekonomikoa
Responsable Jurídico-Económico Dirección de Ordenación del Territorio

Mercedes Izquierdo Fernández

Lurralde Antolamenduko Letradua
Letrado Ordenación Territorial

Hirigintza eta Ingurumen Saila. Arabako Foru Aldundia.

Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente. Diputación Foral de Alava.

Hirigintza Saileko TaldeTeknikoa

Equipo Técnico del Departamento de Urbanismo

Javier Gatón Pérez de Albéniz

Hirigintza Zerbitzuko Burua. Arkitektoa
Arquitecto. Jefe Servicio de Urbanismo

Santiago Fernández-Villa Sánchez

Arkitektoa
Arquitecto

Javier Olmeda Almendros

Arkitektoa
Arquitecto

Norberto Aldaiturriaga Zorrozuza

Letradua
Letrado

Agiri hau idazteko laguntza teknikoa
Asistencia Técnica para la redacción de este documento

Zuzendaritza, Koordinazio eta Plangintza
Dirección, Coordinación y Planeamiento

Rafael Gomez Vives (MECSA)

Arkitektoa
Arquitecto

Diego Alonso Rotaache (MECSA)

Geografoa
Geógrafo

José Luis Burgos Cid (MECSA)

Arkitektoa
Arquitecto

Lurralde Azpiegiturak

Infraestructuras Territoriales

Angel Gil Ortiz (MECSA)

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria
Ingeniero CCP

Lege Aholkularitza

Asesoría Jurídica

Juan Landa Mendibe (EKAIN)

Abokatua
Abogado

Ingurune Soziala

Medio Social

Nélida Ruiz de Azua (EMAIKER)

Soziologoa
Sociologa

Ingurumen Fisikoa

Medio Físico

Ana Serrano Díez Canedo (GRAMA)

Geologoa
Geóloga

Kultur Ondarea

Patrimonio Cultural

Susana Arechaga (INVESTIGACIÓN Y DIFUSIÓN CHAPITEL)

Arte Historian Litzentziaduna
Lcda. en Historia del Arte

Laguntzaile Taldea

Equipo de Apoyo

Antonia Reyes eta José Luis Tejeira (MECSA)

Delineatzaileak
Delineantes

Estíbaliz Urrutia (MECSA)

Idazkaria
Secretaria

Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planaren Sustapena eta Zuzendaritza
Promoción y Dirección del Plan Territorial Parcial de Laguardia (Rioja Alavesa)

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Eusko Jaurlaritza.

Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente. Gobierno Vasco

Sabin Intxaurreaga Mendibil

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua

Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente

Abel Muniategi Elorza

Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate Sailburuordea

Viceconsejero de Ordenación del Territorio y Biodiversidad

Martin Arregi San Miguel

Lurralde Antolamendu Zuzendaria

Director de Ordenación del Territorio

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko TaldeTeknikoa

Equipo Técnico del Dpto. de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente

Jesus M^a Erquicia Olaciregui

Lurralde Antolamendu eta Planeamendurako Zerbitzuaren Arduraduna.

Arkitekturaren Doktoorea

Doctor Arquitecto. Responsable Servicio Ordenación del Territorio y Planeamiento

Luzio Fdz. de Retana Garmendia

Arabako Lurralde Antolamendurako Arduradun. Arkitektoa

Arquitecto. Responsable Ordenación Territorial de Alava

Teodoro Olea Iturregi

Lurralde Antolamendu Zuzendaritzako Arduradun Juridiko-Ekonomikoa

Responsable Jurídico-Económico Dirección de Ordenación del Territorio

Mercedes Izquierdo Fernández

Lurralde Antolamenduko Letradua

Letrado Ordenación Territorial

Hirigintza eta Ingurumen Saila. Arabako Foru Aldundia.

Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente. Diputación Foral de Alava.

Hirigintza Saileko TaldeTeknikoa

Equipo Técnico del Departamento de Urbanismo

Javier Gatón Pérez de Albéniz

Hirigintza Zerbitzuko Burua. Arkitektoa

Arquitecto. Jefe Servicio de Urbanismo

Santiago Fernández-Villa Sánchez

Arkitektoa

Arquitecto

Javier Olmeda Almendros

Arkitektoa

Arquitecto

Norberto Aldaiturriaga Zorrozuza

Letradua

Letrado

Agiri hau idazteko laguntza teknikoa
Asistencia Técnica para la redacción de este documento

Zuzendaritza, Koordinazio eta Plangintza

Dirección, Coordinación y Planeamiento

Rafael Gomez Vives (MECSA)

Arkitektoa

Arquitecto

Diego Alonso Rotaache (MECSA)

Geografoa

Geógrafo

José Luis Burgos Cid (MECSA)

Arkitektoa

Arquitecto

Lurralde Azpiegiturak

Infraestructuras Territoriales

Angel Gil Ortiz (MECSA)

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria

Ingeniero CCP

Lege Aholkularitza

Asesoría Jurídica

Juan Landa Mendibe (EKAIN)

Abokatua

Abogado

Ingurune Soziala

Medio Social

Nélida Ruiz de Azua (EMAIKER)

Soziologoa

Socióloga

Ingurumen Fisikoa

Medio Físico

Ana Serrano Díez Canedo (GRAMA)

Geologoa

Geóloga

Kultur Ondarea

Patrimonio Cultural

Susana Arechaga (INVESTIGACIÓN Y DIFUSIÓN CHAPITEL)

Arte Historian Litzentziaduna

Lcda. en Historia del Arte

Laguntzaile Taldea

Equipo de Apoyo

Antonia Reyes eta José Luis Tejeira (MECSA)

Delinatzaileak

Delineantes

Estibaliz Urrutia (MECSA)

Idazkaria

Secretaria

1 LURRALDE EREDUAREN OINARRIAK: LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN ESTRATEGIA

1.1 LURRALDE BATEN AHALMENA: ERAGOZPENAK ABANTAILA BIHURTZEN DIRA

Estrategiak, berez, lortu nahi diren helburuak edo xedeak gauzatzearren jardunak planteatzeko era izan behar du. Baina, zein dira helburu horiek?

1.1.1 Helburu orokorrak

Hona hemen Lurraldearen Zatik Plan honek lortu nahi dituen helburu orokorrak:

- Helburu nagusia da Arabako Errioxaren erabateko antolamendua lortzea, udal-eskala gaindituz, esparru zabal horretan zentzua hartzen duen guztia eskualdera hedatuz eta, aldi berean, udal-jarduna bultzatuz, mugape bakoitzaren antolamenduan duen berorren aginpide-ahalmenetik abiatuta.
- Bigarren helburua da oparoaldi ekonomikoaren eta onuraren egungo egoera finkatzea, apartekoa dela esan baitaiteke. Baina, ez da ahaztu behar egoera “orokor” horren barruan zuzendu beharreko arazoak badirela gaur egun, azpiegituretan eta zerbitzuetan eragina dutenetatik hasita, egungo egoeran “premia” handiena duen biztanleriarengan eragina dutenetara iritsi arte.
- Eskualde Egituraren etorkizuna bera planteatzea. Etorkizun horrek oinarri ekonomiko sendoak, gizarte-egitura orekatua eta ingurumena pixkanaka leheneratzearen eta harekiko errespetuaren alde egingo duen jokabidea izan behar ditu euskarri.
- Hori dena bezain garrantzitsua da lurralde-eredu jakin baten barruan oreka bat bilatzea, bertan jasotako xedapenen motaren arabera administrazio publiko eta pribatu guztiak lotetsiko dituen proposamen zehatzen bidez, lotespen hori hiri-plangintzak garatutako zehaztapenen ondoriozkoak direnean ere.

1.1.2 Helburu zehatzak

Helburu zehatzek Planean aztertzen diren alderdi guztietan dute eragina. Hauek dira:

- Nekazaritza-sektorea finkatzen laguntzea, Eskualdearen oinarri ekonomikoa delako.
- Nekazaritza-sektorea finkatzeko helburuarekin bat etorritik, nekazaritzaz kanpoko okupazioen “lurzoru-baliabidea” halakotzat babestea.
- Ekonomia aniztea, hura arlo berrietara zabalduz eta ekonomiaren globalizazioaren testuinguru berriak dakartzan aldaketei eta eskakizuni aurre egiteko prestatuz.
- Baliabide naturala babestu eta balioa ematea, Eskualde Egituraren balio eta bereizgarrietakoa izanik.

- Bide-sarea hobetzea, bai bertako biztanleen ohiko erabilerarako, bai eta pertsonak eta jarduerak erakartzeko garaian eraginkorragoa izango den sarea lortzeko ere.
- Zerbitzuak arrazionalizatzea, ahalik eta deszentralizazio handiena eta zerbitzuaren funtzionamendua bateratuz.
- Ekipamendu-eskaintza hobetzea, egungo arazoak eta urritasunak konponduz eta etorkizuneko beharrei aurrea hartuz.
- Bizitegi-eskaintza egokia sortzea, dauden “gizarte-errealitate” desberdinei egokituz eta bigarren bizitegiaren eskaintzaren ahalmena ahaztu gabe.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzuaren eskaintza egokia sortzea, ekonomia anizteko helburua lortzen laguntzeko.
- Kultur ondarea babestu eta balioa ematea, Eskualde Egituraren beste bereizgarrietakoa baita.

1.1.3 Testuingurua

Eskualde Egiturako jardun-estrategiaren helburua, dauden arazoak konpontzea baino gehiago, planteamendu estrategikoak ematea da, hau da, proiektu egituratzaileak, lurraldean eragin izateko ahalmena izango dutenak.

Arabako Errioxa, bere kasa, jardun horien euskarri izan al daiteke? LZP honen erantzuna ezezkoa da. Arabako Errioxa Eskualde Egitura gainditzen duen lurraldean txertatuta egotearen ikusmoldean oinarritu behar dira ekintza egituratzaileak. Eta elkarren onuraren ikuspegi horretatik jardun behar da.

Gaur egun, Eskualde Egituraren kapitala inguruko beste eremu batzuetara esportatzen ari da. Esportazio horrek bi maila ditu, hots: batetik oinarritzakoa, merkataritzaren, zerbitzuen eta aisialdiaren oinarritzakoa eskaerari erantzutearekin lotutakoa (batik bat hurbileneko hiriguneetan betetakoa, batez ere Logroñon); eta, bestetik, inbertsioena, batez ere higiezinaren arloari lotutakoena.

Lehenari dagokionez (zerbitzuen, merkataritzaren eta aisialdiaren eskaintza-gabezia), interesgarria da 10.000tik gorako biztanleria iraunkorra duen eta uda partean biztanleria hori bikoiztu egiten duen herriaren erakarpen-efektua aztertzea. Herri horrek per capita errenta garrantzitsua du eta ez du beteta merkataritza-eskaintza egokiaren eskaera (elikagaien adarra neurri txikiagoan, eraikuntzaren adarra, arropa eta oinetakoak, etxetresna elektrikoak eta informatika, automozioa eta nekazaritza-tresnak), edo aisialdiarena (ez dago zinemarik, antzezpen-aretorik edo atsedentzentrorik), edota zerbitzuen (enpresa, bidaiak-konpainia, etab.entzat).

Zalantzarik gabe, jarduera horietako askotarako beharrezko biztanleria-atalaseak Eskualde Egiturarena gaindi dezake. Eskualdearen sakabanatzea, garrantzitsuagoak diren beste hirigune batzuen aurrean, beste eragozpen bat izan daiteke. Baina kanpoko eskaintza aztertu ondoren, ondorioa da hura ere ez dela zabala zentzu

horretan. Gainera, kontuan izan behar da udalerrri batzuetatik (Samaniego, Eskuernaga, Navaridas) Logroñorako distantzia egiteko denbora asko behar dela.

Horrek adierazten digu bertako kapitalaren Eskualdetik kanporako esportazioaren arrazoietako bat eskaintza-gabeziaren egungo egoerarako hautabiderik ez egotea dela.

Inbertsioen kasuan (hau da, ondasunak edo zerbitzuak kontsumitzera zuzenduta ez dagoen kapitala), higiezinaren sektorea (etxebizitza) oso erakargarria da itxura batean, etengabe balio handiagoa hartzen ari delako. Inbertsio horrek desegokiak diren bi gertakari hauek eragiten ditu: kapitala Eskualdetik ateratzen da eta bertan aberastasuna sortzeari uzten dio; horrek, gainera, etxebizitzaren prezioa goratzen laguntzen du, eskaintzaren aurrean eskaera areagotzen delako (kontuan hartu behar da ahalmen handiko eskaera dela). Inbertitzeko ahalmen hori Eskualde Egituraren barrura lekualdatzea helburu egokia litzateke, baina ondasuna atxikitzen duen eta prezioak goratzea eragiten duen osagai "espekulatzalea" ezabatu beharko litzateke.

Zer eskain dezake hurbileko lurralde horrek?

- Oso azpiegitura garrantzitsuak, hala nola, A-68 eta N-232 errepideak, Arku Atlantikoa Mediterraneoko Ardatzarekin konektatzeko ardatza den Ebro ibaiaren adar egituratzaileak direnak. Gainera, oso gertu, Miranda-Castejón trenbidea dago, batez ere merkantziak garraiatzeko ahalmena duena.
- Laguardiatik 25 kilometroko erradioan, 176.000 pertsonako biztanleria egonkorra, ahalmen ekonomiko handikoa. Gogoan izan behar da Errioxak Estatuko per capita errentarik handienetakoa duela, eta kulturalki lotura handia duela eskualde honekin.
- Lankidetzeta-hitzarmenen bidez gaur egun dagoeneko erabiltzen diren eta, Eskualdean bertan egon gabe, zenbait beharrari erantzutea dakarten zerbitzu batzuk.

Zer eskain diezaioke Arabako Errioxak hurbileko lurralde horri?

- Eremu aktiboa eta ekintzailea, lurraldea finkatu eta eraldatzeko prozesuak bultzatzeko prest dauden instituzio publikoak, erakundeak eta elkarteak biltzen dituena, Lurraldearen Zatik Plan bera horren erakusgarri izanik.
- Hauteman daitekeen eta, hainbat faktore kultural, historiko, geografiko, etab. elkartzeagatik, oso bizi-kalitate handiaren ideari irimo lotuta dagoen idiosinkrasia.

1.1.4 Estrategia

Helburuak eta testuingurua aztertu ondoren, estrategia zehaztu beharra dago. Hura, kontzeptuz, osagarritasun-prozesuak bultzatzea izango litzateke. Osagarritasunak esan nahiko luke Eskualde Egituraren eta hurbileko lurraldearen artean elkarrengandik onura lortzeko ahalmena.

Osagarritasun horren ikusmoldea zenbait mailatan egituratu nahi da, hots:

- Herrialde-mailako jarduna. Duen eragin-eskalagatik, jardunaren asmoa hurbileko lurraldetik harantzago hedatzea litzateke. Jardun horren helburua litzateke interes handiko eskualdetzat Arabako Errioxa finkatzeko bermea bilatzea, turismoa erakartzeko duen ahalmena bultzatuz eta beste ekimen batzuetatik (Guggenheim museoa, Bilbo eta Donostiako biltzar-jauregiak, Salburuako etorkizuneko naturaren museoa, Gasteizen) onura atereaz eta horiek osatuz.
- Toki-maila orokortua. Eragiketak alboko eskalako eskaera potentzialari lotutakotzat hartzea litzateke (hurbileko udalerrietatik eta, batez ere, Errioxan Ebrotik gertu dauden udalerrietatik).
- Hurbil-hurbileko toki-maila. Alboko enklabeekin (Haro, Cenicero, Fuenmayor, Logroño) harremanak ezartzeko aukera aurreikustea litzateke, haiekin sinbiosi-prozesuak sortuko diren moduan, bai eskala erlatiboa areagotzeagatik (atalase berriak), bai lurzoruak eta azpiegiturak libratzeagatik, bai zerbitzu espezializatuak eskaintzeagatik.

1.2 ETORKIZUNeko AGERTOKIAK: XXI. MENDERAKO OINARRIAK FINKATZEA

Gaur egun oso egoera interesgarrian gaude eta horretan bete-betean parte hartuko dugu. Izan ere, iraganaren oinordeko gisa Arabako Errioxak duen tradizioetik egungo eta etorkizuneko egoerarako prozesu dinamikoa dago. Baina ez dago benetako etorkizunik iragana eta oraina ulertu gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako eskualde gehienetan bezalaxe (salbuespenak salbuespen), kontuan hartuz migrazio-saldoen eta hazkunde begetatiboa baldintzatzen duten aldagaien bilakaera, Eskualde Egiturak joera demografiko komunak ditu ezaugarri, epe labur eta ertainerako biztanleriaren egonkortasunaren ondoriozkoak.

Nahi eta egoera hori, berez, Eskualde Egiturako biztanleentzat kaltegarria ez den, dinamismo sozioekonomikoarekin lotutako arazoa dakar, hots: gaur egungo biztanleria ez da nahikoa erabateko garapen sozioekonomiko handiagoa bermatzeko, zonan zerbitzuen nolabaiteko zentraltasuna ziurtatuko duena. Horregatik, maila horretan helburu nagusietakoa dinamika demografikoa ziurtatzea da.

Hazkunde demografikoa oinarri endogenoetan bideragarria ez denez, dinamizazio demografikoak Eskualdera biztanleria berria erakartzeko bidea emango duen prozesuaren eskutik etorri behar du. Horretarako zonara biztanleria ekartzea bultzatu behar da. Beraz, Eskualdearen suspertze demografikoa migrazio-saldo positiboaren bidez besterik lortu ezin dela hartu behar dugu abiapuntutzat, migrazio positibo hori epe ertainera eta luzera atzeraelikatzen baita, indar demografikoa emanez.

Printzipioz, maila horretan finkatutako helburuak kuantitatiboki apalak dira –eta, ondorioz, bideragarriak–, eta, hala ere, erlatiboki funtsezkoak Eskualde Egiturarako.

Hala, 2.000 biztanle baino zertxobait gehiago –2.336 hain zuzen– lortu behar dira 2019. urterako.

Helburu horri aurre egiteko beharrezkoa da, lehenik eta behin, behar adinako etxebizitza-eskaintza ziurtatzea. Aurreko bilakaera demografikoa kontuan izanda (familien batez besteko tamainaren igoera txikia ekarriko du epe ertain eta luzera), horrek etxebizitza-parkea nabarmen zabaltzea eskatuko luke. Oro har, lehen bizitegiarekin lotutako proposamenak berekin dakar plangintza kalifikatu beharreko lurzoru-eskaintza 1.727 eta 2.862 etxebizitza artekoa izatea 2011rako, eta 2.299 eta 3.806 etxebizitza artekoa 2019rako (Lurraldearen Zatik Planaren muga-urtea).

“Gutxieneko” helburu horiei, “egiturarekin” zerikusia duten beste helburu osagarri batzuk gehitu behar diegu, aurrerago zehazten diren proposamen estrategikoei euskarria emateko beharrezkoak.

Ez litzateke zuzena pentsatzea etxebizitzak eraikitze hutsa ez litzatekeela izango alderdi estrategiko bat zonaren ekonomia suspertzeko. Egiaz, Eskualde Egitura hertsiki lotuta dago garapen ekonomikoaren esparru zabalarekin, Logroñoko arroa bildu eta Araban, Nafarroan eta Errioxan eragina duen esparruarekin. Horren ondorioz, zonaren bizitegi-funtzionaltasuna errealitate bat izan daiteke Eskualde Egiturarena baino esparru zabalagorako; are gehiago, kontuan izanda zona honetan erakarpenelementu bereizgarriak biltzen direla, batez ere, ekipamenduen eskaintzari eta aberastasun paisajistikoa eta kultural nabaria ematen duten erakargarritasunei dagokienez. Hiri-pilaketa, gainera, nabarmen txikiagoa da mugako probintzietako gertuen dauden udalerriena baino.

Bizitegiak eraikitze hutsean oinarritutako suspertze demografikoaren prozesuari ekiteko aukera baztertu gabe, agerian da lortu beharreko helburuak are eta errealistagoak izango direla, zonan enplegu-aukerak garatzearekin batera baldin badatoz. Prozesu horrek Eskualde Egituran epe luzera biztanleria finkatzeko ziurtasun handiagoa ekarriko luke.

Horri dagokionez, zenbait jardun funtsezkoak suertatzen dira, hots:

1. Lehenik eta behin, **industriari** dagokionez Eskualde Egituraren **lehiakortasuna bermatu** beharra dago.

Ildo horretatik, Kontzertu Ekonomikoaren ondoriozko berriazko alderdiez baliatzeaz gain, beharrezkoa da industria-sistamarako oinarritzko azpiegitura-elementuak ziurtatzea, eta ez soilik behar adinako industria-lurzorua ekartzea (hori, gaur egun, ez dirudi arazo handia denik Eskualde Egituran, behinik behin industria-gaietan nagusi diren udalerrietan).

Funtsezko beste alderdi bat da Eskualde Egiturako lan-indarra behar bezala trebatu eta prestatzea, enpresa berriak finkatzeari begira erakarpenelementu izango den moduan, eta ez alderantziz. Jakina, esparru horretan lan handia egin beharra dago. Jardun horiek guztiak zonaren industria-garapenerako berriazko plan batean bildu behar dira. Bertan, zonara ekarri nahi den enpresa-motaren

arabera finkatu behar dira helburu estrategikoak. Komenigarria litzateke enpresa horiek tamaina ertainekoak izatea eta, arian-arian, gero eta teknologikoagoak bilakatzea (gaur egun nagusi den egoerarekiko).

2. Bigarrenik, Eskualde Egituraren gizarte- eta ekonomia-garapenaren prozesuan berebiziko garrantzia du haren **elementu bereizgarriak finkatzeak**.

Horri dagokionez, **ekipamendu-sistema** funtsezko osagaia da, bai zerbitzu publikoetan, bai eta zerbitzu orokorrangoetan, merkataritzakoetan eta aisiakoetan ere. Bi osagai horiek elkarri lotuta daude. Hala, zerbitzu publikoen sistema egoki batek biztanleria erakartzen du eta ondoriozko finkatze demografikoa oinarrietako bat da merkataritza, kultura eta aisiako zerbitzuen sektorea hobetu eta bultzatzeko.

Beraz, ezinbestekoa da Eskualde Egituraren berezitasunak finkatzea mota orotako ekipamenduetan eta, bereziki, publikoetan, alboko probintzien ekipamenduekiko. Hori hezkuntza, osasun eta gizarteko zerbitzuekin dago lotuta, baina, baita ere, sektoreko merkatuan gero eta garrantzi handiagoa izango duten beste zerbitzu batzuekin, hala nola, kirol, kultura eta arreta pertsonalekoekin.

Finkatze hori da lehen bidea, zerbitzuen sektorearen barruan, Eskualde Egituran enplegua sortzen aurrera egiteko.

Baina, zerbitzuen sektorea finkatzea ez da mugatu behar zerbitzu orokorren esparrura (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, etab.). Ezinbestekoa da ere **kulturarekin, aisiaren** erabilerarekin eta **turismoarekin** lotutako beste sektore batzuen barruan izan daitezkeen ekimenak garatzeko prozesuari ekitea. Epe laburrera, azken sektore horrek jardun erabakia eskatzen du, zonak dituen erakarpen-elementuak bultzatzera eta, horren bitartez, enplegua sortzeko gune berria eraikitzen bideratutakoa. Arlo horretan, azken aldi oso esperientzia eragingarriak izan ditugu.

3. Jakina, adierazitako prozesuarekin batera, zonako **nekazaritza-produkzioa finkatzen** jarraitu beharra dago, jakina denez, aberastasuna sortzeko benetako iturria baita; nahiz eta aberastasun horren zati handi bat Eskualde Egituratik kanpo kontsumitzen eta erabiltzen den. Maila horretan, produkzioa **anizteko** prozesuak beharrezkoak dira.

Nolanahi ere, alderdi garrantzitsu bat aditzera eman beharra dago, hots: zonan enplegua sustatzea alderdi erabakigarria izanik ere, berez ez da nahikoa. Ildo horretatik, enplegua sortzea besterik gabe ez litzateke nahikoa izango zona demografikoki sendotzeko. Izan ere, horrekin batera etxebizitzaren eskaintzari bultzada handia ematen ez bazaio, gerta liteke enplegua Eskualde Egituratik kanpoko biztanleriari ematea, eta egunaren zati batean lana erakartzeko zona bihurtuko litzateke besterik gabe.

Horren ildotik, saihestu beharra dago garapen ekonomikorako ahaleginak, azkenean, batik bat demografikoki (eta ekonomikoki) Eskualde Egituraz kanpoko

esparruen mesedetarako izatea. Hortaz, finkatu beharreko prozesuak, lehendabizi, bizitegi-plangintza egokia egitea eskatzen du; eta, bestetik, enplegua sortzeko estrategia bat eskatzen du, bai industria-sektorean bai beste sektore batzuetan; eta, azkenik, ekipamendu-gaietan Eskualde Egituraren elementu bereizgarriak finkatzea ere eskatzen du.

Prozesu hori finkatuz gero, Eskualde Egituran **hirugarren sektoreko espezializazio-prozesua** bermatu ahal izango da; eta hori benetako oinarria izango da inguruko espazio ekonomikoaren esparru zabalagoan erreferentzia-eremu gisa finkatzeko, esparru horretan barne hartuta baitago, eta sistema ekonomiko orekatuagoa finkatzeko ere. Laburbilduz, zona zentzurik zabalenean hirugarren sektoreko bihurtzea da epe luzerako benetako helburu estrategikoa, eta horrek bultzada demografikoa eta bizitegiarena eskatzen du, bai eta oinarritzko beste sektore ekonomikoak finkatzea, hala nola, industria eta gizarte-zerbitzu orokorren sistema.

Ekonomia eta biztanleria suspertzeko prozesu hori, gainera, Eskualde Egiturako biztanleriaren egungo zahartze-zikloa hausteko oinarria izango da. Itxurazko egonkortasun demografikoaren azpian, egiaz, zahartze-prozesu bat dago, oso epe luzera Eskualde Egitura ekonomikoki, sozialki eta demografikoki ahulduko lukeena, egungo bilakaera zuzentzen ez bada.

Garapen sozio-demografiko eta ekonomikoaren planteatutako prozesu hori, zalantzarik gabe, goitik sortutakoa da, gizarte-eragileengandik baino gehiago; eta, horrenbestez, plangintza publikoaren ideiarri erantzuten dio batik bat. Hala eta guztiz, goitik sortutako prozesua izanik ere, enplegua eta etxebizitza sortzeko planteatutako politikak arrakasta izan dezake biztanleria bereganatzeko behar adina erakargarritasun dituen eta, duen pisu demografikoagatik, eraldaketa sozial eta ekonomiko azkarra ziurtatzeko fluxu demografiko nahiko txikia behar duen eskualde honetan.

1.3 LURRALDE EGITURA: LURRALDE OREKATURANTZ

1.3.1 Lurralde Egitura

Lurralde Egituran, lurralde-elementuak laburbildu egiten dira bost kontzeptu hauetan: ingurune fisikoa, hiri-sistema, erlazio-sistema, lurzoru-politikak eta hiri-jardunerako orientazioak.

Ingurune fisiko eta azpiegitura landatarrak, ekipamendu bigunak (kirola eta kultura) eta ondareari buruzko zehaztapenak Eredu Bigun deitu diogunaren barruan biltzen dira. Bide-azpiegiturak eta hirigintza-jardunak Eredu Gogorraren esparruari dagozkio. Lurralde Egitura, ondorioz, Eredu Bigunaren eta Gogorraren sintesizat har genezake.

1.3.1.1. Ingurune fisikoa

Lurraldearen Zatiko Plan honen ondoriozko ereduak argi eta garbi aditzera ematen du eskualde-egituraren azaleraren zatirik handienak nekazaritza-joera duela, enklabe natural eskasekin alderatuta. Aipatzekoa da ere Kantabria mendigunearen mazelen

joera naturala. Gainera, ibaiertzeko landaredi-enklabe txiki batzuk badira, lurzoru urbanizaezinaren amaierako kalifikazioan kontuan hartu beharko direnak.

Egituraren ikuspegitik, ingurune fisikoak lurraldea ekialdetik mendebaldera eta iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duten zerrenda batzuk ditu ezaugarri, ingurumenaren aldetik antzekoak diren eremuak ezartzen dituztenak, hots:

- Ebro ibaiaren kubetatik gertu dagoen zona (420 m-ainoko altitudea). Ingurumen-balio handia du, zonaren ezaugarri bereziengatik eta zona honetako berezkoak eta eskusiboak diren habitat ugari egoteagatik. Planaren helburua da jatorrizko habitatak elkarrekin iraunaraztea eta pixkanaka leheneratzea, jarduera naturalistikoari lehentasuna emanez.
- Nekazaritza-aprobetxamendu handiko zona (420 m-tik 600 m-ra bitarteko altitudea). Aprobetxamendu hori ardogintzari lotuta dago. Nekazaritza-potentzialak laboreekin du zerikusia. Planaren helburua da produkzioa optimizatzeko prozesuak sustatzea, baina baliozko enklabeak mantentzeko edo arriskuan daudenak leheneratzeko dagokionez kalterik eragin gabe.
- Mendirako trantsizio-zona (600 m-tik 750 m-ra bitarteko altitudea). Nekazaritzarako egokitasuna ezaugarri klimatikoek baldintzatzen dute. Izan ere, ezaugarri horiek labore jakin batzuk (batez ere zerealak) besterik ez dituzte ahalbidetzen. Planaren helburua da lehen mailako ekonomia zonaren baldintzak aprobetxatuko dituzten sektoreetarantz aniztea.
- Mendi-zona (750 m-tik gorako altitudea). Duen ingurumen-balioagatik eta paisaiaren aberastasunagatik, Lurraldearen Zatik Planarentzat hura babesteko oso konpromiso garrantzitsua dakar.

1.3.1.2. Hiri-sistema

Enklabeak eskualde-egituraren barruan esleitutako eginkizunaren arabera hierarkizatzen dira. Aurreikusitako egitura, asentamenduen sistemaren ikuspuntutik, gune anitzeko sistema izango da eta lau maila hauek izango ditu:

- **Burutzak:** Labastida, Laguardia eta Oyón-Oion.
- **Azpiburutzak:** Elciego, Lapuebla de Labarca, Lantziego eta Eskuernaga.
- **Hirigune nagusiak:** Mañueta, Bilar, Kripan, Leza, Moreda de Álava, Navaridas, Samaniego eta Yécora.
- **Gainerako hiriguneak:** Salinillas de Buradón, Paganos, El Campillar, Laserna, Assa, Viñaspre, Barriobusto eta Labraza.

1.3.1.3. Erlazio-sistema

Erlazio-sistema osatzen duten komunikazioen multzoa hiru bide-mota hauetan egituratzen da:

- a) Bide estrategikoak. Honela banatzen dira:
- Burutzak lotzeko oinarritzko bideak. Labastida – Laguardia – Oyón-Oion ardatza (N-124, A-124 eta A-3226).
 - Kanpo-loturako oinarritzko bideak. Lurralde-ateak: Labastida – Haro (A-3202), Laguardia – Elciego – Cenicero (A-3210), Laguardia – Bilar – Kripan – Meano (A-3228), Leza – Peñacerrada-Urizaharra (A-2124) eta Oyón-Oion – Logroño (A-2126).
- b) Bide egituratzaileak:
- Banaketa-bideak: hiriguneak dagozkien burutzekin edo azpiburutzekin lotzea dute helburu.
 - Distribuzio-bideak: gainerako bideek osatzen dituzte.
- c) Landa-bideak:
- Eredu Biguna osatzen duten bide landatarren sare estrategikoa da.

1.3.1.4. Lurzoru-politikak

Lurralde Egituraren barruan, lurzoru politiken zortzi mota hauek bereizten dira:

- a) **Barruko-kanpoko osagarritasun**-eragiketak, Eskualde Egituraz kanpoko gunez eta elementuez baliatzeko. Udalerrri hauetan gauzatuko dira: Labastida, Elciego – Lapuebla de Labarca eta Oyón-Oion.
- b) **Barruko-barruko osagarritasun**-eragiketak, barne-sinergien estrategia. Udalerrri hauetarako proposatzen dira: Eskuernaga – Samaniego – Leza – Navaridas – Mañueta, Elciego – Lapuebla de Labarca, Lantziego – Bilar – Kripan – Yécora eta Laguardia.
- c) **Produkzio-jarduerako enklabeak finkatzea**. Oyón-Oion udalerrirako eta A-124 errepideko industrialderako proposatutako politika.
- d) **Produkzio-ehunerako osagarriak**. Labastida udalerrirako proposamena.
- e) **Jarduera ekonomikorako eremu berriak**. Laguardiarako proposamena.
- f) **Bizitegi-ehunerako osagarriak**. Labastida, Oyón-Oion, Elciego, Lapuebla de Labarca eta Lantziegon gauzatuko dira.
- g) **Lurralde-ekipamendua**. Eskaintza indartzea Labastida, Laguardia eta Oyón-Oionen, hiri-sistemako burutzak izanik.

1.3.1.5. Hiri-jardunerako orientazioak

Eskualde Egitura osatzen duten hiriguneak kualitatiboki hobetzera zuzendutako ekimenak dira.

Orientazio hauek bereizten dira:

- a) **Hirigune historikoak** eta interesekoak **babestea eta zaintzea**, Salinillas, Labastida, Laguardia, Elciego, Lantziego, Bilar, Oyón-Oion eta Labazarako.
- b) **Ibaiertzen tratamendua**, ibaiertzetan edo horietatik gertu espazioak sortu nahi direneko gune ugarian.
- c) **Industria-multzo paisajistikoen** antolamendua, zehazki, Oyón-Oionen, A-124 errepidearen industria-eremuan eta Laguardiako industria-eremuetan.
- d) Hiriguneak **ekipamenduz zuzkitzea**, eskualde-burutzetan: Labastida, Laguardia eta Oyón-Oion.
- e) **Hiri-berdegune** berriak, Labastidan, Elciegon, Lapuebla de Labarcan, Oyón-Oionen, Laguardia aintziren eremuan eta Navaridasko aintziran.

1.3.2 Eredu Biguna

Eredu Bigunean, hurbilekotzat hartzen diren elementuen multzoa biltzen da. Arloka jorratu ohi diren alderdiei buruzko ikuspegi oro-hartzaile horren interesa, kasu honetan, alderdi horiek baliabide potentzialki turistikoen oinarritzat hartzean datza.

Eredu Bigunak osagai hauek ditu: lurzoru urbanizaezina antolatzeko kalifikazioak, ingurune naturalari atxikitako azpiegiturak eta kultur ondarea.

1.3.2.1. Lurzoru urbanizaezina antolatzeko kalifikazioak

Kalifikazio horiek Ingurune fisikoaren antolamendua kapituluan garatzen dira; hona hemen:

- a) Duten interes naturalagatik babes berezia behar duten eremuak
- b) Nekazaritza eta abeltzaintzako eremuak eta nekazaritza-intereseko landazabalekoak
- c) Intereseko baso-eremuak
- d) Interes hidrologikoko eremuak
- e) Interes geologiko-geomorfologikoko eremuak
- f) Hobetu eta/edo leheneratu beharreko eremuak
- g) Baldintzatzaile gainjarriak

1.3.2.2. Azpiegiturak

Euskarri fisikoaren azpiegiturei buruzko atala honako elementu linealen arabera antolatuta dago:

- a) Ibai-korridore berdeak, Ipar-Hego norabidean. Ibilgu garrantzitsuenekin bat datoz eta Eredu Bigunaren erlazio-sistema nagusia osatzen dute.
- b) Landa-bideak, korridore berdeekiko erlazio-sistema osagarritzat.

Era berean, elementu puntual hauek ditu:

- c) Parkeak edo aisia-eremuak, antolatutako espazio naturalaz gozatzeko.
- d) Eredu Bigunari atxikitako ekipamenduak, hau da, kirolekoak eta kulturalak, eskaintza turistikoarekin lotura handienekoak baitira.

1.3.2.3. Kultur ondarea

Balio historikoa, kulturala, artistikoa edo etnografikoa duten elementu puntualez edota multzo zabal eta konplexuagoez osatzen da. Hiru kategoria hauetan sailkatzen dira:

- a) Interes arkeologikoko elementuak.
- b) Interes arkitektonikoa eta hirigintzakoa duten elementuak.
- c) Interes etnografikoko elementuak.

Ondare-multzoari balio handiagoa emateko aurreikusitako jardunaren zati gisa, mota bereko elementu guztiak elkarrekin erlazionatuko dituzten ibilbide batzuk kontuan hartzea proposatzen da. Ibilbide hauek izango lirateke:

- d) Interes arkeologikoko ibilbideak.
- e) Interes arkitektonikoa eta hirigintzakoa duten ibilbideak.
- f) Interes enologikoko ibilbideak.

1.3.3 Eredu Gogorra

Eredu Gogorrari buruzko atalaren barruan aurkeztutako proposamena Lurraldearen Zatiko Planean aurreikusitako jardun estrategikoak elkarrekin erlazionatzean datza. Honela daude sailkatuta:

- a) Azpiegiturak eta zerbitzuak. Bide-sistema orokorra hobetzea proposatzen da, lurraldeko eremu jakin batzuetarako sarbidea hobetuko duten tarte berrien bidez, batez ere eskualdearen iparraldean. Gainera, udalerrri guztietan eskualde-zerbitzuak behin betiko ezartzea eta hedatzea proposatzen da.
- b) Bizitegi-enklabeen gaineko jardunak, Elciego, Labastida, Laguardia, Lantziago, Lapuebla de Labarca eta Oyón-Oionen eragiketak egiteko proposamenarekin.
- c) Jarduera ekonomikorako lurzorua, Oyón-Oiongo eta Casablanca – El Campillarreko industria-enklabeak finkatzeko, Labastidan proposatutako bide berriarekin lotutako zona bat sortzeko eta Laguardian merkataritzako eta aisialdiko eskualde-eskalako enklabe bat sortzeko proposamenekin.

2 INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA (LURZORU URBANIZAEZINA)

2.1 HELBURUAK

Ingurune naturalerako, LZPak egokitzapen- eta bateragarritasun-estrategia bat proposatzen du lurraldearen baldintza natural eta geografikoen eta hiri- edo produkzio-garapenari lotutako eskaera berrien eskakizunen artean. Beraz, Lurraldearen Zatiko Planaren **helburu nagusiak** hauek dira:

- Lurraldean dauden **espazio natural urriak** eta balio paisajistikoak eta zientifiko-kulturalak **zaindu, babestu eta leheneratzea** bermatu eta sustatzea.
- Eremuan eragina duten **narriatze-prozesuak** (higadura, suteak, landaredi naturalaren aldaketa, etab.) **geldiaraztea**.
- Gaur egun bertan behera utzitako jardun antropikoaren ondorioz **narriatutako** enklabeak eta **eremuak leheneratu** eta **berritzea** sustatzea.
- **Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei** buruzko **informazio** egokia lortzea, horiek **leheneratu eta erabat berritzen** hasteko, batez ere babestu beharreko hiri-garapenetan edo espazio naturaletan barne hartuta badaude.
- Landako biztanleriaren **jarduera tradizionalak** baliabideen zaintzarekin **lotzea**, horien ustiapen arrazionala planifikatuz.
- Eremuan garatu beharreko **jarduerak** baliabide naturalen babesarekin bat etorritik **banatzea**, erabilera eta jardueran **mugak** ezarritik, haiek babestearren.
- Landa-espazioa **nekazaritza-produkzioko espaziotzat** hartzea, eta erabilera horretarako ahalmen handieneko lurzoruek gordetzea.
- Aire zabaleko **aisia** eta jolaseko **eremuen** eta **ibilbide naturalistiko**en eskaintza hobetzea, biztanleriaren eskaerari erantzuteko.

2.2 INGURUNE FISIKOA ARAUTZEKO IRIZPIDEAK

Proposatutako lurralde-eredua baliabide naturalen balorazioak baldintzatzen du, ingurune fisikoa eta jarduerak ahalik eta errespetu handienaz bateratuko diren moduan.

Lurzoru urbanizaezina kalifikatzeko proposamena bat dator ingurune naturala babesteko beharrezkoak diren ezarritako helburuekin.

Kategoriak ezartzeko, Lurraldearen Zatiko Planak erreferentzia gisa kontuan hartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako Ingurune fisikoaren antolamenduan (8. kapituluak) zehaztutakoak.

LAAen kategoria-sailkapena hartzeko interesaren funtsezko arrazoia koherentzia kontzeptuala bilatzea da lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioan; une honetan udalerrien artean kontzeptuen sakabanatze handia baitago. Euskal Autonomia Erkidegoan oinarri komuna dagoenez, udalen artean koordinatzeko aukera funtsezkoa da ingurune naturala babesteko.

LZPak ezarritako lurraldearen kategorietan bi esparru hauek bereizten dira:

- a) **Babestu edo leheneratu beharreko espazioak.** Esparru hau ikuspegi naturalistiko, paisajistiko eta/edo zientifiko-kulturaletik garrantzi handiena duten zonek osatzen dute. LZPak zona horietarako, kasu batzuetan, babes-maila handiena ezartzen du eta, beste batzuetan, oinarrizko jarraibide batzuk planteatzen ditu.
- b) **Lurraldearen gainerakoa.** Esparru honen antolamendua udal-plangintzari dagokio. Lurzoru urbanizaezina arautu eta antolatzeko plangintzako hirigintza-dokumentuek kontuan hartu beharko dituzten irizpide eta arau orokor batzuk ezartzen dira.

2.3 KATEGORIAK

Adierazitako irizpideen arabera, Lurraldearen Zatiko Planak lurzoru urbanizaezinaren honako kategoria hauek ezartzen ditu:

2.3.1 Babestu edo leheneratu beharreko espazioak

Balio naturalistiko, ekologiko, paisajistiko eta zientifiko-kultural handiko eremuak dira, garrantzi berezikoak eta Eskualde Egituraren ondare natural bakarra edo nagusia direnak. Naturaltasun-maila garrantzitsua gordetzen duten landaredi autoktonoko enklabeak, sistema geomorfologikoak, unitate paisajistikoak eta intereseko bestelako ekosistemak biltzen dituzte. Kategoria honen barruan eremu hauek biltzen dira:

a) DUTEN INTERES NATURALAGATIK BABES BEREZIA BEHAR DUTEN EREMUAK

LZPak eremu hauei babes-maila handiena ematen die, bai beren ezaugarriengatik eta zaintza-egoeragatik, bai eta duten hedadura murrizaren edota ingurunean garatzen diren nekazaritza-erabileren ondorioz urrakorrak izateagatik ere. Zona horien barruan, babestutako espazio naturalak, interes naturalistikoko eremuak, Natura 2000 Sarea eta LZPak babestu edo leheneratu beharrezkotzat hartzen dituen bestelako enklabeak biltzen dira.

Eremu horiek **1A-1 eta 1A-2 planoetan** (“Ingurune fisikoaren antolamendua”) identifikatu eta mugatzen dira:

* **Babestutako espazio naturalak**

Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen arabera dagokion deklarazioa jaso duten espazioak dira. Horien berriazko antolamendua eta kudeaketa bakoitzari dagokion Baliabide Naturalak Antolatzeko Planaren eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren bidez zehaztu behar dira. Arabako Errioxako Eskualde Egituraren esparruan honako hau dago:

- Laguardiako aintziraguneko biotopo babestua (**Carralogoño, Carravalseca, Prao de La Paul eta Musco aintzirak**), irailaren 29ko 255/1998 Dekretuan mugatutakoa. Dekretu horrek aldatu egiten du irailaren 19ko 417/1995 Dekretua, Carralogoño, Carravalseca eta Prao de La Paul aintzirak babestutako biotopo deklaratzekoa, haren lurralde-esparruan Musco aintzira barne hartzeko.

* **Interes naturalistikoko eremuak**

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan halakotzat katalogatutako eremuak dira, Lurraldearen Zatiko Planak biltzen dituenak. Zehazki, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen 21. kapituluko 3. eranskinean “Interes naturalistikoko eremuen zerrenda irekia” jasotzen da. Zerrenda horrek interes naturalistikokotzat hartutako espazioak biltzen ditu, eranskin horretan adierazten diren balio jakin batzuk zaintzearen. Zehazki, Eskualde Egituraren esparruan, duten balio botanikoagatik, ondoko hauek daude jasota:

- **Kripan eta Navaridasko artadiak**
- **Dueñasko pinudia** (Labrazan)
- **Lasernako abariztia** (Laguardian)

* **Natura 2000 Sarea**

Lurraldea antolatzeko beste tresna batzuetan katalogatutako eremuak dira ere, eta Lurraldearen Zatiko Plan honetan daude jasota. Hala, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren 2003ko ekainaren 10eko erabakiz, IKT (Interes Komunitarioko Tokiak) zonatzat proposatzen dira, Natura 2000 Sarean barne hartzeko, Eskualde Egiturako honako espazio hauek:

- **Kantabria mendigunea** (eremu hau Hegaztientzako Babes Bereziko Zonatzat –HBBZ– ere hartzen da)
- **Ebro ibaia** (Sotos del Recodo de Gimielo izeneko gunea barne)
- **Laguardiako aintzirak**

* **Intereseko bestelako enklabeak**

Aurreko ataletan adierazitako espazioez gain, LZPak beste enklabe batzuk mugatzen ditu, aurrekoen antzeko ezaugarriak izanik, interes naturaleko zonatzat eta, horrenbestez, babestu beharrekotzat hartzen dituenak. Hona hemen aipatutako enklabeak:

- Lezako erkameztia
- Lezako artadiak
- Lapuebla de Labarcako Esperal eremua
- Sotos de Labastida
- Navaridasko aintzira
- Cuatro Encinas eta San Gregorio aintziren eremua
- El Aguarchal aintzira
- Elciegoko aintzira

Eremu horietarako **helburua** da egungo balio naturalak babestea eta/edo leheneratzea, esku-hartze antropikoa mugatuz, eta, aprobetxamenduaren mende egonez gero, erabilitako baliabidearen balio ekologikoak berrituz eta zainduz aprobetxamendu horri eustea. Bidezkotzat jotzen bada, eta administrazio eskudunak proposatuta, zona horiek babes berezipean jarri ahal izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean ezarritako babes-figuraren batean sartuta.

Zona horietakoren batek berorren kudeaketa-plana edo antolamendu-dokumentua (Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana –BNAP–, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana –EKZP–) duen unetik, dokumentu horien edukiak izango du lehentasuna LZP honen xedapenekiko.

Eremu horiek Ingurumenarekiko Eremu Sentikortzat hartu ahal izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 3/98 Legea aplikatzearen ondorioetarako.

LZPak ezartzen duen babes-erregimenaren oinarri nagusia da landaredi naturala mantendu eta leheneratzea eta bai inguruko nekazaritzaren bai hirigintza-proiektuen jardun negatiboak galaraziko dituzten neurriak ezartzea.

Euren lurraldeetan LZP honek mugatutako Babes Bereziko Eremuak biltzen dituzten udalerrien hiri-plangintzak lur horiek babes bereziko lurzoru urbanizaezintzat sailkatuko ditu, eta honako jarraibide hauen arabera erabilerak arautzeko erregimena ezarriko du:

- Erabilera sustatuak ekosistemen ingurumena kontserbatu eta zaintzekoak izango dira, egungo egoera mantentzea eta balio handiagoko oreka-egoeretarako bilakaera bultzatuko den moduan. Enklabe bakoitzaren berezko landaredi naturala leheneratzea sustatuko da. Gainera, haren berezko bilakaera bultzatuko da, heskaiak eta sastrakak garatuko dira eta gainazaleko drainatze-sarea hobetuko da.

- Erabilera baimenduak edo onargarriak honako hauetara mugatuko dira: erabilera publiko estentsiboa, ingurumen-heziketakoa, baso-kudeaketakoa, artzaintzakoa eta espazio hauetatik nahitaez igaro behar duten lurralde-azpiegituretakoa.
- Debekatu egingo dira zona hauen ezaugarri naturalak aldatzea ekarriko duten erabilerak, hala nola, hirigintza-hazkundeak (plangintza orokorraren nahiz garapenekoaren bitartez), bide-azpiegiturek ezartzea, nekazaritza, erauzpen-jarduerak edo hondakinen isurketak.
- Zehazki, Navaridasko aintzirarako, antolamendua EAeko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planean ezarritakora egokituko da.
- Cuatro Encinas, San Gregorio, El Aguarchal eta Elciegoko aintziretarako (EAeko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzekeo LZPko inbentarioan daude, B8 "Ebro sakonuneko sistema endorreikoak" tipologiaren barruan, III. multzoan), horien dinamika funtzionala leheneratzea proposatzen da, interes handiko aintzira endorreikoen barruan baitaude.
- Zona heze horietarako jarduna ekarpen naturalak lehengoratzera bideratuko da. Lehortzea eta isurketa kutsagarriak galaraziko dira, indusketak, luberriketak, harrotzeak edo drainatzeak bezalaxe. Gainera, zona heze horiek desagertzea ekarri zuten drainatze, lurreztatze eta lehortzeko ekintzak zuzentzeko ahaleginak egingo dira.
- Hezeguneen babes horien ingurunera hedatuko da. Hala, kanpoko ertzetik 50 m-ko zabalerako zerrenda ezarriko da, faunarentzat atsedean eta babeserako esparrua sortzearen. Zerrenda horretan hezeguneak babestearen aurkako jarduerak debekatuko dira.
- Udal-plangintzak babes bereziko eremutzat hartu ahal izango ditu Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan bildutako espezieak kudeatzeko etorkizuneko planetan halakotzat mugatutako zona guztiak.

b) INTERESEKO BASO EREMUAK

Eskualde Egituraren lurraldean, babes berezikoaren kategorian barne hartutako landaredi autoktonoko enklabeek gain, badira beste baso-masa eta zuhaitzi batzuk, bai Eskualde Egituraren erdialdean bai Kantabria mendigunean eta Ebroren lautada alubialean banatutakoak. LZPak gune horien kontserbazioa eta mantentzea ziurtatu nahi du, leheneratzea sustatuz. Hala, paisaiaren aberastasun handiagoa lortuko da, nabarmen nekazaritzakoa den ingurunean aniztasun-elementuak ekarriko baitira.

Hortaz, zona horietarako **helburua** iraunkor bihurtzea da, masak mantenduz eta berrituz.

Hirigintzako udal-plangintzak zonak horiek basoa babesteko lurzoru urbanizaezintzat sailkatuko ditu. Baso-masa horiek babesteko erregimena babes bereziko eremuetarako oro har xedatutakora egokituko da eta, funtsean, honako irizpide hauek errespetatuko dira:

- Egungo baso-azalera mantenduko da. Horretarako, baso-masak mantendu, kontserbatu eta aprobeztatzearekin lotutako eraikuntzak baimenduko dira. Baso-soilketa edo arraseko mozketa eta ondorengo baso-berritzea ez da hartuko mantentze-jardueratzat.
- Baso naturalak zabaltea sustatuko da, horien dinamika ekologikoan, inguruan kokatuta dauden utzitako nekazaritza-lurrak edo kalitate eskasekoak barne hartuz.
- Narriatze-egoeran edo gazte-fasean dauden baso naturaletan, horiek leheneratzea eta hobetzea eta baso gazteak leheneratu eta/edo baso heldu bihurtzea sustatuko da.

c) INTERES HIDROLOGIKOKO EREMUAK

LZP honen ondorioetarako, lur gaineko urak zein lurpeko urak hartuko dira interes hidrologikoko eremutzat.

*** Lur gaineko urak**

Ebro ibaiak eta haren ibaiadarrek osatzen dituzte. LZPak EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeako Lurraldearen Arloko Planeko (isurialde mediterraniarra) zehaztapenak jasotzen ditu. Lurraldearen Arloko Plan hori abenduaren 28ko 455/1999 Dekretu bidez onartu zen.

Udal-plangintzak ibai-bideak babesteko zerrenda bat zehaztu beharko du, indarrean dagoen legeriari jarraituz eta Ibaiertzak eta EAEko Errekaertzak Antolatzeako Lurraldearen Arloko Planean jasotako zehaztapenen arabera.

Oro har, eremu horietan uren kalitatea kontserbatzea eta emari ekologikoari eustea bultzatuko da eta ur-bazterrak okupatzea edo aldatzea saihestuko da. Ur-bazterreko landaredia birsortzea sustatuko da.

Udal-plangintzak lurzoru urbanizaezineko kategorien baldintzatzaile gainjarritzat hartu eta gaineratuko ditu LZParen esparruan erakunde eskudunek ezarritako zona urpegarrien mugaketa berriak.

Udal-plangintzak Lur gaineko uren babesekeo kategorian barne hartu beharko ditu zona horiek.

*** Lurpeko urak**

Kantabria mendiguneko unitate hidrogeologikoak Eskualde Egiturako hiriguneeen ur-hornidurarako funtsezkoak diren hainbat hartune ditu. Hori dela-eta, Lurraldearen Zatik Planak beharrezkotzat jotzen du ur-hartune nagusietan babes-perimetroak zehaztea, batez ere Leza, Laguardia, Peñaparda eta Kripango zundaketetan.

Babes-perimetro horiek urei buruzko legeriaren arabera zehaztuko dira, eta hartuneeen erreforma-eremu osoa hartu beharko dute. Hona hemen perimetroak zehazteko jarraibideak:

- Hartuneeen funtzionamendu hidraulikoa aztertzea.
- Funtzionamendu horren araberako zonakatzea ezartzea: berehala babesteko zona (hartunea bera hartuko duena), babes fisikoko zona (hartune bakoitzaren funtzionamendu hidraulikoaren arabera), hurbileko erreforma-zona (hartuneeen gaineko ekintza zuzenekoena) eta urrutiko erreforma-zona (hartune bakoitzaren erreforma-eremu osoa zabalduko da).
- Ezarritako zonetarako erabilereen arautzea finkatzea, hartune bakoitzaren ezaugarri bereziak kontuan izanda. Berehala babesteko zonarako helburua edozein erabilera-mota erabat debekatzea izango da; babes fisikoko zonan, akuiferoa hartzea ekarriko duten jardun guztiak saihestuko dira; eta erreforma-zonetarako, uren kutsadura saihestea izango da helburua.

Oro har, urei buruzko legeriaren arabera, lurpeko uren kantitatean, kalitatean eta funtzionamenduan eragina izan dezaketen jarduerak edo instalazio guztiak arautuko dira: meatzeak; harrobiak; aridoen eruzpena; hodi septikoak; hilerriak; lurpeko aparkalekuak; bideratzeak; hondakin solidoak edo hondakin-urak bildu, garraiatu eta tratatzea; ongarriak eta plagizidak bildu eta banatzea; hondakin-urekin ureztatzea; landetxeak; hidrokarbuo likidoak edo gaseosoak bildu, garraiatu eta tratatzea; produktu kimikoak, farmazeutikoak eta erradioaktiboak; elikagaien industriak; hiltegiak; kanpinak; golf-zelaiak; bainu-zonak; etab.

Babes-perimetroen esparruan garatu nahi diren jarduerak indarrean dagoen legeriaren arabera arautuko dira.

Udal-plangintzak eremu horiek akuiferoen kutsadura-arriskua duten eremuen baldintzatzaile gainjarriztat hartu beharko ditu, berariazko babes-perimetroak onartzen ez diren bitartean, eta aipatutako jarduerak baldintzatu behar ditu.

d) INTERES GEOLOGIKO-GEOMORFOLOGIKOKO EREMUAK

Eskualde Egituran, eta Ebro ibaiaren dinamikarekin lotuta, goi-terraza alubialen sistema garatu da. Terraiza horiek gaur egungo uholde-lautadaren gainean hainbat mailatan esekita daude eta ikuspuntu geologiko eta geomorfologikotik interes handiko gisa zerrendatu dira. Gainera balio zientifikoa eta didaktikoa dute.

Zona horietako ezaugarri geomorfologiko bereizgarriak mantentzea eta nekazaritza-erabileraren aprobetxamendua ez eragozteko izango da eremu horietarako helburua.

Hirigintzako udal-plangintzak lurzoru urbanizaezina kalifikatzen deneko kategoriei gainjarritako baldintzatzailatzat hartuko ditu zonak horiek. Zona horietan, oro har, euren ezaugarri geomorfologikoak aldatzea ekarriko duten jardunak saihestuko dira, hala nola, erauzpen-jarduerak, garraiobideak, lurpeko lineak, hondakindegia eta zabortegiak, hirigintza-hazkundeak, etab.

e) HOBETU ETA/EDO LEHENERATU BEHARREKO EREMUAK

Kategoria honetan barne hartzen dira, alde batetik, gaur egun narriatuta dauden natura-eremuak (baso autoktonoak), gazte-fasean daudenak edo atzeraezinezko aldaketa antropikoak izan dituztenak, baina beren natura-egoerara leheneratzeko eta landaredi-estaldura berreskuratzeko aukera handia dutenak. Bestalde, egokitu behar diren beste zona batzuk ere barne hartzen dira kategorian honetan. Eremu horiek beren ezaugarri topografikoengatik egokitu beharko dira, edota higadura-prozesua garatzeagatik, atsedeen-erabileretarako maiz erabiltzeagatik edo narriadura eta utzikeriako egoeran egoteagatik. Zona horietan, beraz, helburu horiek lortzeko neurri egokiak hartu beharko dira.

Kategoria honetan bildutako zonek banaketa irregularra dute lurraldean eta, funtsean, mendigunetik datozen erreken ibarrak, malda handiko zonak eta sastraka-eremuak barne hartzen dituzte.

Espazio horietarako, LZPak hobetzeko eta leheneratzeko ekintzak proposatzen ditu. Ekintza horien bitartez erabilera bateraezinen ondorioz narriatutako inguruneak birgaitu eta natura-balioak mantendu nahi dira. Enklabe horien artean ondokoak daude:

- Mantibleko milazkadia
- Ebro ibaiaren ibarrean utzi diren harrobiak eta legar-hobiak (Labastidan, El Esperalen eta El Campillarren)

Hortaz, zona hauetarako **helburu** nagusia da intereseko ekosistema funtzionalak leheneratzea, balio handieneko elementuak mantenduz, jatorrizko dinamikara itzuliz eta egungo eraginak ahalik eta gehien murriztuz, babes-basoaren eta ingurumena hobetzeko jardunen bidez.

Hirigintzako udal-plangintzak ingurumena hobetzeko lurzoru urbanizaezintzat sailkatuko ditu zonak horiek, eta ondoko jarraibideak betez ezarriko du erabilerak arautzeko erregimena:

- Gaur egun narriatuta dauden ekosistema funtzionalak leheneratzera bideratutako lanak egingo dira.
- Ebro ibaiaren bide osoan zehar eta Kantabria mendigunetik datozen erreketan ibaiertzeko basoa leheneratzea eta ibaiertzeko landaredia ezartzea sustatuko da.

- Higadura-arazoak dituzten zonetan baso-berritzea bultzatuko da, lurzorua finkatzen lagunduko duten heskaien eta zuhaitzen bidez.
- Gaur egun utzita dauden harrobiak eta legar-hobiak leheneratuko dira.

2.3.2 Lurraldearen gainerakoa

Lurraldearen Zatiko Planak berariaz babesten ez duen esparrua da. Udal-plangintzak kategorizatu edo arautu beharko du esparru hori. Zona horietarako, LZPak zenbait irizpide eta arau orokor ezartzen ditu, udal-erri bakoitzaren lurzoru urbanizaezinean kategoriak finkatzeko hiri-plangintzako dokumentuek bete beharko dituztenak.

Lurzoru horietan hiri-garapena gorde behar da eta horietarako egokientzat hartutakoak ez diren bestelako aprobetxamendurik ez dute izango. Aprobetxamendu egokiak nekazaritza eta abeltzaintzakoak edo horiekin lotutakoak dira. Hala ere, onargarriak dira, murrizturik, lurzoru horietan kokatu behar duten azpiegitura-sistemak edo zuzkidurak.

Nekazaritza, Basozaintza eta Natura Ingurunea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (LAP) izango da erreferentziazko tresna “Lurraldearen gainerakoa” kategoria honetan jasotako lurzoruaren antolamendu eta kudeaketarako.

Udal-plangintzak babes bereziko lurzorutzat hartuko ditu LZP honetako 2.3.1. atalean zehaztutako zona guztiak, eta, hala badagokio, haren arabera babestu edo leheneratu beharrezkotzat hartu ahal izateko baldintzak betetzen dituzten bestelako zonak ere barne hartuko ditu. Kategoria horren barruan kalifikatu eta sartzeko, zonek dituzten balioak kontuan hartu beharko dira. Balio horiek izan daitezke paisajistikoak, geologikoak, paleontologikoak, faunistikoak, botanikoak, etnografikoak, arkeologikoak, didaktikoak, jolasekoak eta beste hainbat motatakoak.

Babes bereziko lurzoruaren kategorian barne hartuta ez dagoen gainerako lurralderako, herriguneak osatzen dituzten multzoak ez badaude, baliabide naturalak kontserbatu, babestu eta ustiatzeko komeni diren antolamendu-kategoriak udal-plangintzak zehaztuko ditu. Horretarako Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan finkatutako kategoriak erabiliko ditu, hots:

- ★ **Ingurumena hobetzeko eremuak:** kategoria honetan bilduko dira LZP honek planoetan mugatzen dituen zona guztiak (baso narriatuak, sastraka-zonak eta lurzoru marjinalak) eta, udal-plangintzaren arabera mesedegarria denean, kalitate handiagoko beste estadio batzuetara eboluzionatu behar duten bestelako zonak.
- ★ **Baso-eremuak:** kategoria honetan bilduko dira udal-plangintzaren arabera Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek ezarritako definizioa betetzen duten zonak. Zona horietarako irizpidea baso-erabilera ordenatua eta masen produkzio iraunkorra ziurtatzea da.
- ★ **Nekazaritza eta abeltzaintzako eremuak eta landazabalekoak:** paisaiaren ikuspegitik, Eskualde Egituraren ezaugarri bereizgarrienetakoa mahastiak dira.

Produktibitate handieneko lurzoruak hartzen dituztenez, LZP honetan horiek mantendu eta babestea lehentasunezkoa da beste erabilera batzuen aurrean.

Adierazitako zonak LZParen planoetan mugatzen dira, baina haien hedadura eta orokortasuna kontuan izanda (balio agrologiko handieneko lurzoruak eta mahastieremu guztiak biltzen dituzte, beraz, balio sozioekonomiko, kultural eta paisajistiko handikoak dira), udal-plangintzak erabakiko du, xehetasun handiagoko azterlan baten bidez, zonen nekazaritza-interes handiagoa edo txikiagoa.

LZPak interes handiko eremutzat hartzen ditu aipatutako zonak, eta zuzeneko lotespena duten zenbait helburu eta arau ezartzen ditu horientzat. Hala ere, arloko eta udaleko plangintzak arautu eta antolatuko ditu zona horiek xehetasun handiagoaz.

Aipatutako zonetarako helburua produkzioaren ikuspegitik nekazaritza-jarduera mantentzea izango da, oraindik dauden elementu naturalei eutsiz (LZP honek babes bereziko eremutzat hartzen ditu) eta eragin kaltegarria (higadura eta akuiferoen kutsadura, batez ere) ahalik eta gehien murriztuz; bai eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan aberastasun eta berezitasun handiko ondare horren balioak sustatuz ere. Kategoria honek ahalik eta eragin txikiena izan behar du eta, hala badagokio, hautabidezko gainazalen, ustiapen-hobekuntzen, etab. bidez konpentsatu beharko da eragin hori, ahal den neurrian; produkzio-ahalmena murriztuko ez den moduan.

Eremu horiek Ingurumenarekiko Eremu Sentikortzat hartu ahal izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 3/98 Legea aplikatzearen ondorioetarako.

Hiri-plangintzak erabilerak arautzeko erregimena ezarriko du, ondoko jarraibideen arabera:

- Lurzoruen ahalmen agrologikoa, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak eta, horiekin bateragarriak izanik, ekosistemak eta nekazaritza-paisaiak babestea ziurtatuko duten bestelakoak mantentzen saiatu beharko da.
- Gutxienez, nekazaritza-azalera erabilgarria mantenduko da, edozein transformazio-motaren prozesuek sorrarazitako galerak konpentsatzen saiatuz.
- Bestelako erabileren aurrean, produktibitate handieneko zonak babestuko dira lehentasunez.
- Nekazaritza-zonak sakabanatu eta bakantzeko prozesuak. Arazo hori dekretu honetan arautzen da: *168/1997 Dekretua, uztailaren 8koa, Euskal Autonomi Elkarteko lehentasunezko nekazaritza-ustiapenak eta EAEko eskualdeetako eta lurralde historikoetako laborantzarako gutxieneko unitateak zehazten dituen* (138 zk. EHAA).

- Zuhaiztiak, heskaiak, landare-pantailak, orla-landaredia, erreka-ertzetakoa eta nekazaritza-finken mugak sortu eta mantentzea sustatuko da.
- ★ **Mendi-larreen eremuak:** kategoria honetan bilduko dira udal-plangintzaren arabera Lurrealdearen Antolamendurako Artezpideek ezarritako definizioa betetzen duten zonak. Zona horietarako antolamendu-irizpide nagusia da artzaintza-jardueraren mantentze iraunkorra ziurtatzea, ingurumenaren, paisaiaren eta kulturaren ikuspegitik balio handikotzat hartzen diren eremu horiek babesteko baliabide eraginkorrena baita.
- ★ **Lur gaineko urak babesteko eremuak:** kategoria honetan bilduko dira LZPak eta EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko LAPak halakotzat zehaztutako eremuak, bai eta udal-plangintzaren arabera dokumentu horietan ezarritako definizioa betetzen duten zonak ere.

2.3.3 Baldintzatzaile gainjarriak

Baldintzatzaile gainjarriak dira lurzoru urbanizaezin osorako aurreikusitako antolamendu-kategoria bakoitzerako araututako erabileraren mugatzaileak, aurreikusitako zenbait arriskuren arabera ezarritakoak. Hala, lau baldintzatzaile gainjarri hauek finkatu dira:

- Akuiferoen kutsadura-arriskua duten eremuak.
- Eremu higagarriak edo higitzeko arriskua dutenak.
- Eremu urpegarriak.
- Babestutako espazio naturalak.

Erabileren baldintzatzaileak arautzeko, LAAetako 6.8.8 atalean eta Ingurune Fisikoa Antolatzeko Matrizean ezarritakoari jarraituko zaio.

Ingurune fisikoa antolatzeko LZParen proposamena garatuko duen udal-plangintzak kategoria horiek jasoko ditu eta udal-erri bakoitzerako lurzoru urbanizaezinen antolamenduan aplikatuko ditu.

2.4 AZPIEGITURAK

Euskarri fisikoaren azpiegituren atalean, tipologia lineala eta zehatza proposatzen da, sare jarraitua eta mailakatua osatuko duena.

- **Korridore berdeak**, zenbait gunetan Toloño-Kantabria mendigunea eta Ebro ibaiaren ibilgua lotuko dituzten ipar-hegoalde norabideko ibilgurik garrantzitsuenekin bat datozenak.

Elementu horiek **ingurumenaren** eta naturaren arloan **leheneratzeko** proposamena eta bertako **landa-bideen sarea hobetzea**, sistema modu eraginkorrean osatu arte.

- **Landa-bideei** dagokienez, beren jarraitasunagatik, interesagatik edota lotura-ahalmenagatik natura-ingurunearen osotasunerako sarbideen sarea osatzen dutenak nabarmenduko dira. Landa-bideen hierarkia beren funtzionaltasunaren arabera ere ezartzen da.

Sare hori ez da aukera guztien “bereizketa” hutsa izango, bide-sarea **osatuko** duen sare funtzionala lortu nahi da. Sarbide-sare “alternatibo” biguna edo abegitsua osatuko da, eta sare horrek hiriguneen arteko loturarako edota lurralde-izaerako elementu garrantzitsuen arteko loturarako aukera emango du.

- **Espazio naturalaz gozatzeko gune** izango diren **atseden-eremuak**, lurraldearen luze-zabalean banatuak. Parke horiek naturaz gozatzeko gutxieneko altzari-elementuak izango dituzte. Batzuk gaur egun dauden parkeetan oinarriturik kokatuko dira eta beste batzuk, berriz, sortu berriak izango dira.
- Aisia-eremuak, Laguardiako aintziren eremua eta Kantabria mendigunea lotuko dituzten **ibilbide naturalistikoak**. *Ekipamendu, ondare eta espazio libreen* mapan ibilbide horien hurbilketa bat grafiatuko da; alabaina, behin betiko diseinurako berariazko azterlana egin beharko da.
- **Ekipamenduak**. Litezkeen ekipamendu guztien artean, Eredu Bigunean, **kirol-ekipamenduak** eta **kultur** ekipamenduak sartuko ditugu; izan ere, eskaintza turistikoarekin lotura handienekoak baitira (kirol ekipamenduak, turismo sedentario edo egonkorrenarekin, eta kulturalak, behin-behineko turismo iragankorrenarekin).

Proposamenaren oinarria da **Labastida, Laguardia eta Oyón-Oion burutzalerruneko kirol-ekipamenduz** hornitzea, Eskualde Egituraren beharrei erantzuteko. Gainerako enklabeetan, ordea, doikuntza txikiak egingo lirateke gabeziak dituzten edo zaharkituta dauden ekipamenduetan. Aipatzekoa da, Harorekin lotuta, **Labastidan kirol- eta jolas-ekipamendua egiteko proposamena**.

Kultur ekipamenduen atalean, proposamena antzekoa izango litzateke, hau da, Labastida, Laguardia eta Oyón-Oion eskualde-lerruneko kultur zuzkidurez hornitzea. Laguardiarako eragiketa berrian aipatzekoa da **Arabako Errioxako Museoa** sortzeko proposamena.

2.5 PROPOSAMENAK

LZP honek finkatu dituen ingurune fisikorako helburuak, esaterako, gomendio hauen bidez lortu ahal izango dira:

- Hoberen zaindutako enklabeetarako antolamendu-planak idaztea edo babes-figurak definitzea, hala nola, parke naturalak, biotopo babestuak, etab.
- Nekazaritza-laboreko zona libreen **landare-berritzea** sustatu eta diruz laguntzea, paisaia anizteko eta lurzorua atxikipena hobetzeko.
- Kantabria mendigunetik datozen erreken ertzen eta, batez ere, egun oso narriatuak dauden Ebro ibaiaren ertzen **landare-berritzea eta leheneratzea**.
- **Jolas-zonak** sortzea, oinarrizko azpiegituz (ura, mahaiak, paperontziak, bilketa-zerbitzua, etab.) hornituta.
- **Higadura-arazoak** dituzten **zonak** heskaiez eta zuhaitzez **baso-berritzea**.
- Suteei aurrea hartzea, uda garaian **suteen aurkako talde** bat ezarrita.
- **Lursail-bideen sare** zabala oinezko edo bizikletazko ibilbideak egiteko aprobetxatzea.
- Eskualdearen narriadura kontuan izanda, **ingurune naturala zaintzeko jarrera irmoa** hartzea da lehen urratsa, gehien narriatutako tokiak leheneratzeko lanekin osatu beharrekoa.
- **Aniztasun ekologikoari** eustea, ia erreparatu ohi ez diren hedadura txikiko espazioak galtzea saihestuz, esaterako, malda handiko mazelatko zuhaitz-errenkadak, ezpondak eta muinoak higaduratik babesten dituzten sasitza sarriak edota zonako ubideen ertzetan hazten diren zuhaitzen eta zuhaixken multzoak. **Enklabe txiki** horiek ezinbestekoak dira naturak bere kasa erregulatzeko duen ahalmena ziurtatzeko.
- Prozesu narriatzaileak azkarragoak dira berritzaileak baino. Horregatik, arreta berezia jarri behar zaio **ingurune naturalaren egitura egonkorak zaintzeari**, hala nola, basoak eta sasitzak; batez ere muinoetan eta aldapa handiko mazelatan kokatutako klima mediterraneoko zonetan.
- **Landako biztanleriari kontzientzia harraraztea** ingurunea zaindu eta leheneratzeko beharraren inguruan eta landutako euren finken ertzean zuhaixka babesleak haz ditzaten diruz laguntzea eta sustatzea, horiek oso garrantzitsuak baitira nekazaritza-paisaiaren aniztasun eta egonkortasun handiagoa lortzeko.
- Mendigunearen mazelatan **arteak eta erkametzak landatzea**.
- **Muino soilduak leheneratzea**, higadurarekiko erresistenteak eta lur-sortzaileak izango diren zuhaixka- eta belar-espezieekin; eta, espezie horiek luraren egoera hobetu ondoren, artea edo erkametzak landatzea.
- **Espazio linealak** (lursail- eta nekazaritza-bideak) **leheneratzea**. Zuhaitz- eta zuhaixka-errenkadak landatzeak eragin positiboa izango luke zereal-zelaietarako eta sektore horren aniztasun biologikorako. Errenkada horiek

finkak haizearengandik babestuko lituzkete eta, hala, horien etekina areagotuko litzateke. Mahastien arteko bide-ezpondak zuhaixkekin eutsi litezke.


- Mendigunearen hegaletako **harrobi** txikiak eta Ebro ibaiaren terrazak **leheneratzea**.

Proposamen horietako asko gauzatzeko, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko sail eskudunen partaidetza beharrezkoa da.

Baliabide naturalak zaintzearekin, espazioen deklarazio eta kudeaketarekin, landa-bideen sarearekin, landa-turismoarekin... zerikusia duen edozein jardun administrazio eskudunekin koordinazioan egin beharko da.

3 HIRI SISTEMA

Lurraldearen Zatiko Planaren helburua da Lurralde Eredu bat sortzea eta Eskualde Egituran eredu hori gauzatzea ziurtatuko duten neurriak hartzea, lurraldea bere osotasunean hartuta. Hori guztia interes berarekin egin behar da udalerrri guztietarako. Horrek ez du esan nahi ekintza guztiek intentsitate bera izan



behar dutenik, baizik eta lurralde-ekintzei eman behar zaiela lehentasuna. Hala, Eskualde Egituraren hiri-sistema indartu nahi da, hiri-hierarkiaren arabera garapen desberdinen bidez. Asmoa ez da udalerrri txikien hazkundera geldiaraztea herri handien mesedetarako, udalerrri handien hazkundera baliatzea baizik, txikien onurarako.

Enklabeak eskualde-egituraren barruan esleitutako eginkizunaren arabera hierarkizatzen dira. Aurreikusitako egitura, asentamenduen sistemaren ikuspuntutik, gune anitzeko sistema da eta lau maila hauek ditu:

3.1 BURUTZAK

Maila honetan honakoak biltzen dira:

- Labastida
- Laguardia
- Oyón-Oion

Lerrun handieneko hiriguneak dira. Duten hierarkia-mailagatik, hedadura handiagoko zerbitzuak, ekipamenduak eta lurralde-ekintzak erakartzeko ahalmena ezagutzen zaie. Lurralde osoan zehar era homogeneoan sakabanatuta daudenez, ahalmen handiagoa dute erakarpen-efektua gauzatzeko, eta ez soilik Eskualde Egituraren barruan.

Labastida eta Oyón-Oion kanpo-osagarritasuneko hirigune gisa ezarri dira, eta Laguardia barne-osagarritasunekotzat. Horren ondorioak *Lurzoru-politikak* izeneko 4. kapituluan garatzen dira.

3.2 AZPIBURUTZAK

Maila honetan honakoak biltzen dira:

- Elciego
- Lapuebla de Labarca

- Lantziego
- Eskuernaga

Hirigune horiek tarteko mailakoak dira burutzen eta gainerako hiriguneen artean. Euren tamainak eta kokapenak nolabaiteko espezializaziorako bidea ematen dute Eskualde Eremuaren barruan. Esaterako, Elciegon eta Lapuebla de Labarcan industria-espezializaziorako asmoa dago, Cenicero eta Fuenmayorrekiko kanpoko eta barruko osagarritasun-prozesutik abiatuta. Lantziegoren kasuan, Kantabria mendigunetik hurbilen dauden enklabeekin lotura sendoa duenez, ingurumen-turismoan espezializatzea da asmoa, inguruan dauden Bilar, Kripan eta Yécorako hiriguneentzako euskarri gisa. Eskuernagak euskarri gisa jardungo luke Samaniego, Leza, Navaridas eta Mañuetarentzat.

3.3 HIRIGUNE NAGUSIAK

Maila honetan honakoak biltzen dira:

- Mañueta
- Bilar
- Kripan
- Leza
- Moreda de Álava
- Navaridas
- Samaniego
- Yécora

Udalerriko gainerako hiriburu-guneak dira. Ondorio guztietarako, udalerrri guztientzat aurreikusitako oinarrizko zerbitzuak izango dituzte. Enklabe horiek burutzetan eta azpiburutzetan izango lituzkete euskarri-guneak, bertan lurralde-mailako zerbitzuak ezarriz gero. Moreda de Álavaren kasuan, Oyón-Oionekiko mendekotzat hartuko litzateke lehen adierazitako bi lerrunetan.

3.4 GAINERAKO HIRIGUNEAK

Maila honetan honakoak biltzen dira:

- Salinillas de Buradón (Labastida)
- Paganos (Laguardia)
- El Campillar (Laguardia)
- Laserna (Laguardia)
- Assa (Lantziego)
- Viñaspre (Lantziego)

- Barriobusto (Oyón-Oion)
- Labraza (Oyón-Oion)

Horietako asko, duten interes kultural edo historikoagatik edota interes handiko elementu naturalekiko hurbiltasunagatik, Lurralde Bigunean sartzeko plataforma egokia izan daitezke.

LAAen arabera, hirigune horiek kate-maila garrantzitsuak dira hiri-sarearen barruan. Horien etorkizunerako erronkak alderdi hauetan oinarritzen dira:

- Eskualdeko zerbitzuak eta ekipamenduak ahal den neurrian deszentralizatzea, telematikak eskaintzen dituen aukerez baliatuz.
- Udalerri horietako biztanleei hiriguneetarako sarbidea erraztea (garraio publikoa, azpiegiturak).
- Hiriguneak eskaintza turistikoa globalean biltzea, EAEko mugetatik kanpoko biztanleria erakartzeko ahalmenez.
- Bizitegi, prestakuntza, lan, etab.en eskaintzaren bitartez, biztanleria-talde gazteak hiriguneetan jarraitzeari lehentasuna ematea.

4 LURZORU POLITIKAK

Lurralde Egituraren barruan, lurzoru-politikei buruzko atalean, bizitegi berrirako lurzoruekin edo jarduera ekonomikorako (produktiboa nahiz zerbitzuena) lurzoruekin zerikusia duten eragiketa guztiak barne hartu dira.

4.1 OSAGARRITASUNA, BARRUKOA – KANPOKOA

Proposatutako eragiketa estrategikoetarako balizko aktibo gisa eskualde-egituraz kanpoko gune eta elementuez baliatzeko jardun-estrategia.

Honako eragiketa hauek proposatzen dira:

- a) **Labastida, inguruan duen lurraldearekin.** Labastidaren eta Haroren arteko osagarritasunak, abiapuntutzat, kalitatezko zuzkidura-eskaintza berria hartuko luke. Horretarako, bi biztanleriak batuta, lerrun jakin bateko biztanleria egonkorra behar da, hiri-birkualifikazioko proiekturako euskarri izango dena. Horren eragina Labastidaren biztanleria mugikorraren gainean, ziur aski, erakarpen handiagoa eta haren egonaldien jarraipena izango litzateke. Hala, biztanleriaren egonkortasuna areagotuko litzateke (bizitegiaren eta enpleguaren neurrizko eskaintzaren bidez), Labastidako herrigunearen birkualifikazio orokorrari begira.
- b) **Elciego–Lapuebla de Labarca, Ebro ibaiaren eskuinaldearekin.** Elciego–Lapuebla de Labarcaren eta Fuenmayor eta Ceniceroko eremuaren arteko osagarritasuna Eskualde Egitura barruko kokapen estrategikoan oinarrituko litzateke, A-68 eta N-232 errepideekiko eta trenbidearekiko hurbiltasunagatik eta, batez ere, dagoeneko industria-erazpen garrantzitsuak dituen eremuarekiko hurbiltasun eta inplikazioagatik. Hortaz, bi udalerrietan industria-jarduera kokatzea izango litzateke aipatutako strategiaren helburua.
- c) **Oyón-Oion, bere ingurunearekin.** Oyón-Oionen eta Logroñoren arteko osagarritasuna lehenak bigarrenarekiko duen mendetasunetik abiatuta ezarriko litzateke. Enplegua eta jendea erakartzeak egungo zerbitzuak hobetzea eta burutza gisa duen zeregina finkatzea ekarriko luke.

4.2 OSAGARRITASUNA, BARRUKOA – BARRUKOA

Barruko sinergien estrategiak. Zenbait kasutan, zerbitzuak eskuratzeko behar besteko biztanleria-atalaseak lortu nahi dira, beste kasu batzuetan aldeko egoerez baliatu nahi da edo, beste batzuetan, garatzeko premiari erantzun nahi zaio, besterik gabe.

Honako eragiketa hauek proposatzen dira:

- a) Eskuernaga, Samaniego, Leza, Navaridas eta Mañueta. Helburua 2.000 biztanleko atalasea iristea izango litzateke (aurreikuspenen arabera).

- b) Elciego–Lapuebla de Labarca. Eragiketa honek hirigune bakoitzaren industria-garapenean oinarrituko luke osagarritasuna. 2.000tik gora biztanle izango lituzke.
- c) Lantziego, Bilar, Kripan eta Yécora. Helburua 2.000 biztanleko atalasea iristea ere izango litzateke.
- d) Laguardia. Laguardiaren osagarritasuna eremu bateratu berri baten proposamenean oinarrituko litzateke. Laguardiaren hazkunde-zailtasuna eragiketa baten bitartez bideratuko litzateke, zuzkidurako eskaintza, merkataritzakoa eta aisiakoa bilduz.

4.3 EKONOMIA JARDUERA, FINKATZEA

Nolabaiteko lerruneko industria-ehunak finkatzea eta zabaltzea, aurreikuspenen arabera. Zabaltze horiek, Oyón-Oionen kasuan bederen, egungo ehunaren itxiera antolatuarekin lotuko dira.

Politika hori bi esparrutan proposatzen da:

- a) Oyón-Oiongo industria-zona (zabaltzea eragingo duen egungo ehunaren itxiera antolatuarekin)
- b) Industria-eremua, eskualde-egituraren hegoaldean, A-124 errepidean zehar.

4.4 EKONOMIA JARDUERA, ZABALTZEA

Politika honen helburua gaur egun aukeratutako kokalekuetan dagoen industria-ehuna zabal dadin erdiestea izango da. Lurraldearen Zatiko Planak politika hori Labastidan proposatzen du, eta A-124 errepidearen bide alternatiboan eta Harorekiko loturarekiko elkargunean oinarrituko da.

Gainerako udalerrien kasuan, ez da mugatuko aurreikusitako eragiketetan okupatuko diren industria-lurzoruak edukitzeko aukera. Horrenbestez, tokian tokiko eskariaren ondorioz sortutako lurzorua izango dira.

4.5 EKONOMIA JARDUERA, ERAGIKETA BERRIAK

Laguardian proposatzen da mota honetako politika. Merkataritza eta aisialdiko, eta zuzkidura eta kulturako eskaintzaren eragiketa integratua edo bateratua da.

4.6 BIZITEGIRAKO LURZORUA, ERAGIKETA OSAGARRIAK

Eragiketa hauek burutzako edo azpiburutzako hiriguneetan garatuko dira, eta bide-sistemaren gaineko jardun estrategiko edo egituratzaileekin lotuko dira. Nolanahi ere, gaur egun dauden ehunei laguntzeko proposamenak izango dira eta, horien bitartez,

gaur egungo eskaintza nabarmen zabaldu nahi da. Ondoko hiriguneetarako proposatu dira:

- Laguardia
- Labastida
- Oyón-Oion
- Elciego
- Lapuebla de Labarca
- Lantziego

4.7 LURRALDE EKIPAMENDUA

Hiri-sistemako burutzetarako aurreikusitako politika:

- a) Labastida. Kirol eta jolaserako ekipamendu garrantzitsu baterako kokalekua planteatuko litzateke. Ekipamendu horrek, aurrerago azaltzen denez, urte osoan zehar erabili ahal izango diren instalazioak izango lituzke, atsedeen-instalazioen eta turismo-azpiegituren laguntzarekin.
- b) Laguardia. Proposatzen den ekipamendua Arabako Errioxako Museoa izen orokorraren barruan sartuko litzateke.
- c) Oyón-Oion. Bertako ekipamendua biztanleria erakartzeko eragiketaren osagarria izango litzateke.

5 ATSEDEN EREMUEN SISTEMA ETA LURRALDERAKO SARGUNEAK

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek azpimarratu egiten dute Euskal Autonomia Erkidegoak jasaten duen biztanleria-dentsitate handiaren ondorioz ingurune naturalaren gainean sortutako arazoa. Presio horrek jarrera berezia eskatzen du ingurune fisikoaren babesari dagokionez, eta ingurumen-balioak mantentzearekin bateragarriak izango diren baldintzetan herritarrek ingurune naturalaz gozatu ahal izateko beharrezko neurriak hartu behar dira.

Arazo horri, gainbehera ekonomikoan eta demografikoan dauden baina, hala ere, balio kultural, ingurumeneko eta hiritar handikoak diren hirigune txikiak bultzatzeko premia gehitzen zaio. Lurralde-kalitateari dagokionez, ezaugarri horietako hiriguneak egotea garrantzitsutzat hartzen da Arabako Errioxarako, aniztasuna, aberastasuna eta erakargarritasuna ematen dizkiotelako Eskualde Egituraren lurralde osoari.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Arabako Errioxa da gutxien urbanizatutako eta gehien libratutako lurraldeetako. Horregatik, taldeko atsedeen-eremu izatera zuzenduta dago, bai Euskal Autonomia Erkidegoko bai mugako lurraldeetako (Nafarroa, Errioxa, Burgos) biztanleriarentzat; eta hori oso garrantzitsua da eskualde-garapenerako.

5.1 ATSEDEN EREMUEN ANTOLAMENDUA

Arabako Errioxako Lurraldearen Zatik Plan honetan, atsedeen-eremutzat honako espazio hauek daude izendatuta:

- San Ginés (Labastida)
- Samaniego
- Berberana (Laguardia)
- Las Lagunas (Laguardia)
- Bercijana (Yécora)
- San Justo (Oyón-Oion)

Atsedeen-eremuetako bakoitzaren mugapen eta antolamendu zehatza eremu bakoitzari dagokion Plan Berezia idaztean finkatuko da. Horretarako, ondoko irizpide orokorre jarraituko zaie:

- a) Zerbitzatzen den biztanleriaren arabera aurreikusten den eskariari egokituko zaio antolamendua, bai kuantitatiboki (zerbitzatuko duen biztanle-kopurua), bai kualitatiboki (biztanleria horren zaletasunak, nahiak eta iguripenak).
- b) Lurraldearen natur balioak eta ahalmenak oso kontuan izango dira.

- c) Lurraldearen askotariko erabilera sustatuko da. Azpiegitura sinpleko erabilera didaktikoak-hezkuntzakoak eta kirol-erabilerak nabarmenduko dira. Denboran eta espazioan bateragarri egin nahi dira biztanleriak eskatzen dituen aire zabaleko jarduerak. Espazioa antolatzean, eskariaren aniztasunari dagokionez, ahalik eta giro-aniztasunik handiena lortu beharko da. Horretarako, gradiente bat finkatuko da, mutur batean iristeko zailenak diren eremu lasaienetako gehieneko natura-osagaiak izango dira eta. Beste muturrean, iristeko errazen diren eremuetan intentsitate handiena izan dezaketen eremuak izango dira.
- d) Erabileraren intentsitatea planifikatzea, beti bi arloetako harrera-ahalmenaren azpitik: arlo ekologikotik (ingurune naturalari dagokiona) eta pertzepzio-psikologiaren arlotik (erabilera-dentsitate horri dagokionez erabiltzaileek duten pertzepzioari dagokiona).
- e) Mantentzearen premiak aintzat hartzea, hala nola garbiketa, landaredia leheneratzea, bideen eta kirol-zirkuituen kontserbazioa, etab.
- f) Aintziren eremua (Laguardia) antolatzeko aurreikusitako plana Biotopoaren berezko araudiko xedapenetara egokituko da.

5.2 LURRALDERAKO SARGUNEEN ANTOLAMENDUA

Arabako Errioxako Eskualde Egituraren zalantza ezinezko ingurumen-balioak eta balio hori areagotzeko LZParen apustuak kalitatezko turismorako eskaintza eta azpiegitura indartzeko proposamen sistematikoa eta orokortua eskatzen dute.

Hirigune askok berezko interes turistikoa dute (alde zaharrak, baliozko arkitektura, lotura historikoak, etab.) eta horietarako egokiak dira sustapen-politikak. Beraz, babeslan handiagoa beharrezkoa da. Beste hirigune batzuek, ordea, interes mugatuagoa dute alde aurretik; baina horien tamainak eta lurralde barruko kokapenak ahalmen bat ematen diete, hau da, aisiarako balio handiko lurraldearekiko berehalako harremana.

Hirigune horietarako, aisiarekin eta ingurune naturalarekin lotutako jarduerarako azpiegituraz eta zerbitzuez hornitzera bideratutako ekintzak sustatu nahi ditu LZPak. Lurralderako sargune izatea, balio eta erakargarritasun hiritarreko eremu naturalekiko hurbiltasunean oinarrituta, ekintza-printzipio bat da ere gainbehera sozio-demografikoari aurre egiteko.

Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planak lurralderako sargunetzat honako hauek hartzen ditu:

- Salinillas de Buradón (Labastida)
- Samaniego
- Leza
- Bilar
- Viñaspre (Lantziego)

- Barriobusto (Oyón-Oion)
- Labraza (Oyón-Oion)

LAAetan jaso bezala, lurralderako sargune horietarako neurri hauek daude ezarrita:

- Guztietarako, hiri-berrikuntzako programak ezarriko dira, eta oinarritzko azpiegiturak hobetzeko eta hiriguneari eta horren inguruneari ingurumen-tratamendua emateko laguntzaz.
- Eraikitako ondarea leheneratzeko neurriak aurreikusiko dira, hirigune osorako birgaikuntza-programen bidez.
- Bigarren bizitegiari buruzko politika dagokion atalean azaldutakoa izango da.
- Ingurune naturalaz gozatzeko laguntza-ekipamenduen gainean jardungo da berariaz. Seinaleztapenaren eta informazioaren eta atsedeneko eta jolas txikiko eremuen gainean jardungo da, eta instalazio didaktikoak, zaldi-instalazioak, etab. onartuko dira. Zuzkidura horiek baliabide guztiak koordinatzeko ikuspegi zabalaren barruan abiarazi beharko dira.
- Udal-plangintza egokitu egin beharko da, erabilera potentzial horiek lurzoruaren kategorietan barne hartzeko, lurzoru hiritarretan eta urbanizagarrietan edo antzekoetan erabilera horiek bateragarri nola egin daitezkeen aztertuz, batik bat, zuzkidurakotzat, espazio libretzat edo berdegunetzat kalifikatutako lurzoruei eta babestu gabeko urbanizaezinei dagokienez, horiek indarrean dagoen legeriari jarraituz arautzearen.

6 ETXEBIZITZA BEHARRAK ETA BIZITEGI LURZORU BERRIAREN ESKAINTZA KUANTIFIKATZEA

LAAetan jasotzen denez, Lurraldearen Zatiko Planaren eginkizuna da etxebizitza babesturako lurzoru-azalerak kuantifikatzea. LAAek, era berean, lurralde-planei eskatzen diete udalerrri bakoitzerako bizitegi-lurzoruaren eskaintza kuantifikatzeko, bai eta bigarren bizitegirako eskaintzaren mugak ezartzeko. Gainera, LAAek tamaina txikiko udalerrientzako (ez du zehazten tamaina hori zein den) aurreikusitako mekanismoaren bitartez, kuantifikazio-arauak gehieneko muga bat ekarriko luke, gehikuntza gisa egungo etxebizitza-kopurua bikoiztea hartuta.

LZParen filosofia ez litzateke izango plangintzei egokitzeko aurreikuspen zurrunk ezartzea. Ildo horretatik, lege-esparruari buruzko atalean jadanik adierazi dugu legezko betebeharra gehieneko eta gutxieneko muga orokortzat ulertzen dela.

Atal honen asmoa da espero daitezkeen denbora-mugetarako biztanleria-aurreikuspenei lotutako kuantifikazioak zehaztasun handiagoaz justifikatzea. Beraz, gutxieneko eskaintzaren balioa izango luke. Lurralde-plangintzak dakarren ikuspegi estrategikoaren barruan, gutxienekoen eskaintza hori Lurralde Eragiketak izenekoetan jasotako eskaintzekin osatzen da.

Udalerrri bakoitzari dagokion bizitegi-lurzorua kuantifikatzeko, LAAen 1.5 eranskinean ezarritako kalkulu-metodoa erabili da, eta Foru Aldundiak 01/12/18ko 1112 Erabakiaren II. eranskinean finkatutako jarraibideak gaineratu dira. Erabaki horren bidez, Arabako Errioxako Eskualde Egiturarako (Laguardia) Lurraldearen Zatiko Planaren behin betiko dokumentua lantzeko irizpideak, helburuak eta konponbideak, Aurrerapenean bildutakoak, onartu ziren. Hona hemen adierazitako jarraibideak:

- a) Udal-plangintzari ematen zaion bizitegi-ahalmenaren balio-tartea ezartzea:
 - Gehieneko balioa, lurzoruaren gainkalifikazioaren ondoriozko hirigintza-garapen neurrigabeak saihesteko.
 - Gutxieneko balioa, lurzoru kalifikatuaren eskasia saihesteko. Plangintzak –gutxiarik– balio hori ziurtatu beharko du.
- b) Lurraldearen Zatiko Planaren indarraldi zabala (16 urte) dela eta, gehieneko eta gutxieneko balioen arteko tartea udalerrriaren datu estatistikoaren arabera aplikatzea, plangintzaren berrikuspena idazteko garaian.
- c) Gehieneko eta gutxieneko balioak lortzea, Artezpideen irizpideei jarraituz. Irizpide horiek Lurraldearen Zatiko Planak honela egokituko ditu:
 - (1) Ereduarekin zerikusia duten arrazoiengatik Lurraldearen Zatiko Planak zehaztu beharreko O1 osagaia. Bereizitako udalerrientzat, ezarritako kopuruan, ondoko hazkundeak kontuan hartzea:
 - Labastida: 250 (gehienez) eta 125 (gutxienez)

- Laguardia: 500 (gehienez) eta 250 (gutxienez)
- Oyón-Oion: 350 (gehienez) eta 175 (gutxienez)
- Gainerako udalerrriak: O1 osagaia = 0

Plangintza berrikusteko prozesuan, eta adierazitako balioak Lurraldearen ZAtiko Planaren indarraldirako (16 urte) planteatzen direnez, kopuruaren %75 besterik ez da erabiliko.

- (2) O2 osagaiak (hazkunde demografikoa), O3 (familia-egituraren aldaketa), O4 (eskaintzaren zurruntasuna zuzentzea) eta O5 (bigarren bizitegia): Arteztarauen kalkularen arabera.
- (3) Zurruntasun-koefizientea (ZK):
 - (a) Arteztarauen gehieneko ZK balioa
 - (b) Gutxieneko balioa: Arteztarauen ZK balioaren erdia
- (4) Bigarren bizitegiaren koefizientea (BBK):

Arteztaruetan proposatutako koefizientea hartuko da.

- d) Planteatutako ahalmena programatutako edo arlokatutako hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren gainean kokatzea. Gehieneko balioaren gainetik, bizitegi-ahalmen gehigarria programatu gabeko edo arlokatu gabeko lurzoru urbanizagarrian kokatzea.
- e) Aurreko kalkularen emaitzazko ahalmena hirigune nagusian eta/edo hirigintza-garapena planteatzen deneko egun dauden hiriguneetan edo sortu berrietan kokatzea.
- f) Lehendik zeuden gainerako hirigune txikiagoetan, LAAen arabeko hazkundera onartzea. Horren muga %100 izango da, plangintza orokorraren berrikuspenera idazteko edo hura Lurraldearen ZAtiko Plan honetara egokitzeke garaian dagoen etxebizitza-kopuruaren gainean kalkulatuta.
- g) Aurretik azaldutako guztiarekiko alde batera geratzen dira plangintza orokorrak landaguneko lurzoru urbanizaezintzat sailkatutako herrixkak. Horiek lurraren araubide eta hiri-antolaketaren arloko presako neurriak zehazteari buruzko maiatzaren 6ko 5/1998 Legean adierazitakoaren arabera arautuko dira.

6.1 HELBURU DEMOGRAFIKOAK

Arabako Errioxako Lurraldearen ZAtiko Planak, helburu gisa, zona demografikoki dinamizatzea planteatu du. Horretarako, 2011. eta 2019. urteetarako, ondoko irizpide hauetan oinarritutako biztanleria-helburuak finkatu ditu.

- Kanpoko pizgarriaren bidez biztanleria haziko deneko udalerrietan (Oyón-Oion, Laguardia eta Labastida, barruko bizitegi-erakarpenaren eraginez), bertako biztanleria gaztea haztea espero da.
- LZPak planteamendu baikorra egin behar du Eskualde Egituraren etorkizunari dagokionez eta, horrenbestez, biztanleria galduko duen udalerririk ez dela egongo hartu du kontuan. Horregatik, urteko hazkunde-tasa negatiboa duten udalerriei dagokienez, datozen urteetan behinik behin biztanleria egonkortuko dutela kontuan hartu da.

Egungo biztanleria eta 2006. eta 2016. urteetarako biztanleria-helburuak

	2001	2011	2019
Mañueta	336	338	340
Elciego	930	948	963
Bilar	367	409	446
Kripan	190	190	190
Labastida	1.269	1.783	2.339
Laguardia	1.401	1.401	1.401
Lantziego	631	631	631
Lapuebla de Labarca	852	852	852
Leza	198	236	271
Moreda de Álava	261	261	261
Navaridas	223	223	223
Oyón-Oion	2.464	2.998	3.507
Samaniego	308	314	319
Eskuernaga	321	321	321
Yécora	260	273	283
ESKUALDE EGITURA	10.011	11.178	12.347

Bilakaera horrek (lortuz gero) Eskualde Egituraren ekipamendu-sistema arian-arian berrikustera behartuko luke, batez ere hezkuntza-gaietan. Erantzun nagusiak hazkunde potentzial handieneko udalerrietan aurreikusi behar dira, hau da, Oyón-Oionen, Laguardian eta Labastidan, bereziki derrigorrezko hezkuntzaren esparruan.

6.2 ESKAINTZA DOITZEA

Etxebizitza-eskaintza bilakaera potentzial horri egokitzea. Aurreko bilakaera demografikoa kontuan izanda, epe ertainera eta luzera familien batez besteko tamaina areagotzea ekarriko duena, etxebizitza nagusietarako ondoko bilakaera-taula ateratzen da:

Egungo eta aurreikusitako etxebizitza nagusiak

	1996	2011		2019	
	Etxebizitzak guztira	Lehen bizitegiko aurreikusitako etxebizitzak		Lehen bizitegiko aurreikusitako etxebizitzak	
		Gutxienez	Gehienez	Gutxienez	Gehienez
Mañueta	127	39	63	52	84
Elciego	548	132	206	176	274
Bilar	197	41	65	55	86
Kripan	93	21	34	28	45
Labastida	1534	285	465	379	618
Laguardia	831	368	659	489	876
Lantziego	419	87	135	116	180
Lapuebla de Labarca	486	112	175	149	233
Leza	217	32	50	43	67
Moreda de Álava	168	39	60	52	80
Navaridas	118	27	43	36	57
Oyón-Oion	1.094	433	732	576	974
Samaniego	146	33	52	44	69
Eskuernaga	205	45	71	60	94
Yécora	172	33	52	44	69
Eskualde Egitura	6.355	1.727	2.862	2.299	3.806

6.3 BIZITEGI ESKAINTZA HOBETZEA

Egungo etxebizitzaren kalitatea hobetzeko programak mugatzea proposatzen da. Etxebizitzak eraikitzeaz gain, egungo etxebizitza-parkearen kalitatea hobetzeko beharra kontuan hartu beharko da, haren batez besteko kalitatea Arabaren gainerakoan baino nabarmen eskasagoa baita oraindik ere.

Etxebizitza babestuaren eskaintzarako, lehen bizitegira zuzendutako etxebizitza berri guztien %10 ezartzen da. Estandar hori da helburua, baina malgua da hala ere. Horrek

175-285 bat etxebizitza babestu eraikitzea eskatzen du 2011rako, eta 230-380 inguru 2019rako.

Horien banaketa hiru burutzetan (Labastida, Laguardia eta Oyón-Oion) kontzentratuko litzateke. Eskaintza horren gutxi gorabeherako banaketa biztanleriaren bilakaerari lotutako etxebizitza berri nagusiari buruzko aurreikuspenarekiko proportzionala izan liteke. Horrek, gutxi gorabehera, ondoko banaketa emango liguke: %30 Labastidan, %30 Laguardian eta %40 Oyón-Oionen. Zehaztapen hori loteslea izango da, Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko LAPean hura berriz ere aztertzearen kaltetan izan gabe.

Beste hirigune batzuetako etxebizitza babestuaren eskaintzari dagokionez, aukera hori udalerrri bakoitzaren esku egongo da, Lurralde Eredutik ezarpen horretarako lotespenik bidezkoa ez dela kontuan izanda.

6.4 BIGARREN BIZITEGIAREN ANTOLAMENDUA

Arabako Errioxako Eskualde Egituran bigarren bizitegiaren fenomeno ez da funtsezko alderdietako bat (nahiz eta toki jakin batzuetan –Labastida– nolabaiteko garrantzia izan dezakeen), hirigune handiekiko hurbiltasunaren ondoriozko ahalmen teorikoa gorabehera.

Kantabriako kostaldearen apustu sendoak eta inguruetan beste hirigune alternatibo batzuk garatu izateak (batez ere Errioxako Autonomia Erkidegoan), bigarren bizitegiaren inguruan piztu zitezkeen tirabirak arindu dituzte, batez ere hirigune nagusietan. Bigarren bizitegiaren politikari ekiteko garaian abiapuntuko egoera onuragarri horrek, lehenik eta behin, bidea eman behar du proposatutako Lurralde Ereduekiko plangintza koherentea egiteko eta, gainera, eskaintza-mota horri lotutako arazoak (batik bat komunikazio-azpiegiturekin, oinarritzko zerbitzuekin eta ingurumenaren gaineko eraginarekin zerikusia dutenak) saihesteko oinarriak ezarri behar ditu.

LZPak oinarritzko jardun-irizpide batzuk ezarri nahi ditu, bigarren bizitegian espezializatutako eskaintzaren eta hiri-errealitatearekin lotutako eskaintzaren artean bereizketa eginez; batez ere birgaitze-programen eta “hiri-multzo” txikietan oinarritutako bizitegi berriaren bitartez. LZP honetan etxebizitza-eskaintza bateratua egiten da. Lehen eta bigarren bizitegiaren eskaintzak, berez desberdinak izan arren, sorta bakarrean bilduta daude.

Oinarri horietatik abiatuta, udal-plangintzak zehaztu beharko du eskaintza hori nola gauzatu. Nolanahi ere, bigarren bizitegiaren eskaintza ez da gutxieneko bati lotutzat hartuko, haren merkaturatzea ekimen pribatuaren esku soilik egon daitekeela ulertzen baita. Izan ere, ekimen pribatuak antzematen du merkatu potentziala, bai eragiketaren tamainari bai eskainitako eraikuntza-tipologiei dagokienez.

Arabako Errioxako Eskualde Egiturarako Lurralde Plana bigarren bizitegiaren eskaintza baldintzatzen duten aurrekari hauetan oinarritzen da:

- Eskualde Egituraren berezitasuna, besteak beste, oro har izan den hiri-ereraldaketa txikian oinarritzen da.
- Lehen sektoreari lotutako ekonomia bultzatu behar da, lurralde baten tradiziozko iraunkortasunaren aurrean berehalako balio espekulatiboei lehenetsia ematen dioten eragiketa oportunistak baztertuta.
- Bigarren bizitegiaren eskaintza ezin da kontuan hartu lurralde egituratuaren ikuspegia finkatzeko borondatea alde batera utzita, eta proposatutako ezarpen-sistema nahitaezko erreferentzia da eskaintza horretan.
- Bigarren bizitegia ez da hartu behar egungo hiri-errealitateetik kanpo. Aurreikusten den edozein eragiketak kontuan hartu behar ditu finkatu nahi deneko ezarpenaren ezaugarriak, eta haren nolakotasunak errespetatu eta, ahal dela, areagotu behar ditu: morfologia, eraikuntza-tipologiak, intentsitateak, espazio libreen sarea eta zuzkidurak.
- Lurraldearen eremu desberdinen ingurumen-balioekiko errespetuak oinarritzeko printzipioa izan behar du bigarren bizitegiaren ezarpenean. Balio horiek ez dira mugatu behar lehenago edo geroago erabat aldatzen edo desagertzen diren “fossilak” izatera; hasiera batetik erreferentzia izan behar dute, eta eragiketek egokitu behar dute aipatutako balioetara, eta ez alderantziz.
- Bigarren bizitegiaren eskaintzaren kontzeptua eta lehen etxebizitzaren eskaintzarena bereizi egin behar dira, lehen etxebizitza gainbalorazio ekonomikoaren eragin kaltegarritik babesteko, bigarren etxebizitzaren izaera “osagarria” kontuan izanda. Helburu hori lortzea zaila bada ere, eman beharreko lehen urratsa produktuaren kontzeptua bereiztea da, ahal den neurrian.

Aipatzekoa da Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek bigarren bizitegiaren eskaintzaren inguruan egiten duten planteamendua. Eskualde Egiturako ia hirigune guztiak (Oyón-Oion eta Kripan salbu) bigarren bizitegirako garapenak barne hartzeko egokitzat hartzen dituzte, bai berronaka-ekintzak sustatzeko moduan bai oinarri endogenoko bigarren bizitegiaren eskaintzan. Bigarren etxebizitza, kontzeptu gisa, gainbeheran dauden hiriguneak suspertzeko tresnatzat hartzen da.

Bigarren bizitegiaren eskaintzak Lurralde Ereduan dituen inplikazioei buruzko iritzia azaldu ondoren, Eskualde Egitura osoan **bigarren bizitegiaren eskaintza arautzeko oinarritzeko irizpide** batzuk ezartzen dira. Eskaintza hori bi multzo hauetan banatu da: bigarren bizitegi intentsiboa eta bigarren bizitegi estentsiboa.

- **Bigarren bizitegi intentsiboaren** multzoari dagokionez, nolabaiteko eskalako eragiketak soilik biltzen dira, eskaintza esanguratsua dutenak, bai kokatzen direnoko tokiko bolumenari dagokionez, bai lurralde-eskalari dagokionez. Eskaintza Labastidan eta Laguardian kokatu beharko da.

Arlo bakoitzean garatzen den gutxieneko etxebizitza-kopuruak bermatu egin behar ditu zenbait lagapen eta erreserba adierazgarri. Hirigintza-prozesuari lotutako azpiegiturak eta kostuak optimizatzeko irizpideak aplika daitezke. Eragiketa horietarako lurzorua urbanizagarritzat sailkatuko da.

- **Bigarren bizitegi estentsiboari** dagokionez, hasiera batean gaur egun dagoen hiri-errealitatearekin oso lotuta dagoen eskaintza murriztuztat hartzen da: merkaturatzeko formula erakargarriak dituzten balioko ondare arkitektonikoak birgaitzeko prozesuak, hutsuneak edo tartekak osatzeko eragiketa, hiri-birsorkuntzako prozesuetarako laguntza, berdeguneak, espazio libreak eta zuzkidurak lortzeko laguntzak. Ikuspegi hori gaur egungo hirigune guztietara zabal daiteke.

Udal-plangintzak helburu horiek eraginkortasunez lortzeko aukera emango duten mekanismoak finkatu beharko ditu. Erabili beharreko formulak tipologikoak zaindu beharko ditu, gaur egungo morfologiaren alderdi esanguratsuak alda ez daitezen. Eragiketa horietarako lurzorua, lehentasunez, hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarritzat gisa sailkatuko da.

Multzo horretan ez zaie gutxienez ezartzen bigarren bizitegiaren garapenarekin lotutako eragiketei. Gehieneko kopurua ordea ezarrita dago, eragiketa bakoitzeko 20 etxebizitza hain zuzen. Horren helburua da eraikuntza errepikatzearen eraginez osagai tradizionalak modu larrian asalda daitezen saihestea. Arrazoituz, Udalek arautze hori aldatu ahal izango dute, baldin eta soluzioa harreragunearen ezaugarrietara egokitzen dela justifikatzen bada.

7 EKONOMIA JARDUERAK: ANIZTASUNA SUSTATZEA

Etxebizitzaren kasuan bezalaxe, lurralde-antolamenduari buruzko legeak (LAL) ezartzen du LZParen eginkizunetako bat industria-lurzoruaen sustapen publikorako azalera kuantifikatzea dela. Baina hori Lurraldearen Zatiko Planaren zereginetako bat baino ez da. Izan ere, ekonomia-jarduerei buruzko atala zabalagoa baita hiri-lurzoruari buruzkoa baino.

7.1 HELBURUA: EKONOMIA ANIZTEA

Arabako Errioxaren etorkizuneko garapenari begira LZPak planteatzen dituen helburuak honela laburbiltzen dira: ardogintza-sektorearen finkapena, Eskualde Egituraren garapen-eragilea denez, bateragarri egitea eskualde-eredu ekonomikoa aberastu eta egonkortuko duten beste sektore batzuetarantz ekonomia gehiago aniztearekin.

Helburu orokor hori puntu nagusi hauetan garatzen da:

1. Eskualde-egituraren ahalmen ekonomikoak garatzea:
 - a) Nekazaritza-produkzioaren aniztasuna sustatzea/ahalbidetzea, bereziki labore ureztatuen bidez.
 - b) Eskualde Egituraren industria-garapena finkatzea, ondoko printzipio hauen arabera:
 - Eskualde Egiturako industria-eremu nagusizat Oyón-Oion sustatzea, bere zuzeneko ingurune ekonomikoan haren lehiakortasuna bultzatuz eta Eskualde Egiturako gainerako industria-eremuetan kokatu ezin diren enpresak erakartzeko gaitasuna areagotuz.
 - Zenbait udalerritan, hala nola Labastidan, industria-garapen handiagoa sustatzeko aukera aztertzea.
 - Enpresa-mota jakin batzuk instalatzeko egokiak izan daitezkeen toki-berezitasunak aztertzea (hala nola, haragi-lehortegiak, etab., Eskualde Egituraren ipar-ekialdean).
 - c) Zerbitzuen sektorearen garapena sustatzea, hura Arabaren edo Autonomia Erkidegoaren antzeko mailetan kokatzeko, alderdi hauek bereziki kontuan izanda:
 - Turismoari lotutako zerbitzuak garatzea, bai zerbitzu tradizionalak bai eskaintza turistiko espezializatuenen esparrukoak.
 - Gizarte-zerbitzuak, kirolekoak, kulturalak eta aisiakoak garatzea.
 - Zonaren merkataritza-egitura orokorra bultzatzea.

Ildo horretatik, aisialdia erabili eta gozatzeko jardueretarako biztanleria erakartzeko ahalmena bultzatzea, batez ere asteburuetan (merkataritzako eta aisiako erreferentzia-puntuak, jarduera turistiko eta kultural erakargarrien eskaintza, etab.).

2. Eredu ekonomikoa mugatzeko garaian, bereziki kontua hartzea emakumezkoen enpleguarekin lotutako arazoa, eta Eskualde Egituran emakumeei lan-aukera handiagoak ematen saiatzea.
3. Biztanleria aktiboaren prestakuntza-egokitzapenari buruzko berariazko plan bat diseinatzea, garapen ekonomikorako ezartzen diren helburuekin koherentea izango dena eta Eskualde Egiturako aktiboaren profesionaltasun handiagoa ziurtatuko duena.

Horretarako, ezinbestekoa da Eskualde Egiturako bai hezkuntza-erakundeak bai erakunde ekonomikoak kontuan hartzea eta horiek prozesuan inplika daitezen saiatzea.

4. Azpiegitura-sistema garapen ekonomikorako helburuei egokitzea.

7.2 LEHEN SEKTOREA

Zalantzarik gabe, nekazaritza-sektoreko aktiboaren zeregina garrantzi handikoa da lurralde-oreka eta ingurune naturalaren garapen iraunkorra gauzatzeko garaian.

Arabako Errioxaren kasuan, mahastizaintza eta ardogintzako azpisektoreak garrantzi berezi du lehen sektorean, ez soilik bertan okupatutako biztanleriaren ehunekoagatik, baizik eta BPGn egiten duen ekarpenagatik ere, mahatsaren merkaturatzeak eta ardogintzak dakarten balio erantsiaren ondorioz. 1993-98 aldian, ardogintzaren balioa %400etik gora igo da.

Eskualde-mailan nekazaritza garrantzitsua izanik ere, are eta garrantzitsuagoa da Eskualde Egiturako udalerrri txikienetan. Gainera, sektore horren dinamismoa eta garrantzia bere mugetatik harantzago doa, berari lotutako manufaktura-industria handia sorrarazten baitu.

Nolanahi ere, egoera hori ez da Arabako Errioxa osora zabaltzen. Eskualdearen ipar-ekialdeak (Kripan, Yécora, Barriobusto, Labraza eta Moreda) askoz ere partaidetza txikiagoa du garapen ekonomikoaren eragile den mahastizaintzan.

Arabako Errioxako eredu ekonomikoaren aniztasun handiagoa bilatzeko proposamena (mahastizaintza eta ardogintzaren azpisektoreak jasan lezakeen egoera oker batek Eskualde Egiturako biztanleriari gizarte-hondamendia ekartzea saihesteko) ez dago kontraesanean LZP honek hain aberastasun handia sorrarazten duen jarduera hori sustatzearekin. Hau da, bigarren eta hirugarren sektorea bultzatzeak ez lioke kalterik ekarri behar lehen sektoreari.

Nekazaritza eta Basogintzako eta Natura Inguruneko Lurraldearen Arloko Plana ari da lehen sektorearen antolamendua garatzen. Plan horren aurrerapen-dokumentua Eusko

Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak aurkeztu zuen 2001eko ekainean. Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planak bete-betean hartzen ditu bere gain aipatutako zehaztapenak, bai eta landa-garapenari buruzko Legearen esparruan Arabako Errioxako eskualderako landutako Eskualdeko Landa Garapenerako Planean bildurakoak ere, eta, horien ildotik, lehen sektoreari buruzko honako proposamen hauek egiten ditu:

- Mahastiek hartutako nekazaritza-azalera erabilgarriari eustea, batez ere nekazaritza-balio handiko lurzoruetan, azalera hori galtzea edo bertan beste erabilera batzuk (batez ere bizitegirako edo industriarako hiri-garapenak) ezartzea saihesteko. Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Komunikatutako landutako mahasti-azalaren gainean ezarritako mugak direla eta, hedadura handia duen arren, mahastia xahutu behar ez den ondasun mugatua eta, ondorioz, urria da.
- Nekazaritza-produkzioaren aniztasuna sustatu edo ahalbidetzea, labore alternatiboak (batez ere sail ureztatuak) bultzatuz, mahastiak hartzen ez dituen lurzoruetan.
- Sektorearen azpiegitura osagarriak (sail ureztatuak, landa-bideen sarea, etab.) hobetzea, eskura dauden baliabideak optimizatuz, etekin handiena ziurtatzeko.
- Produkzio-sistemak hobetzea, ingurumenarekiko errespetu handiena ziurtatzeko.
- Nekazarien errenta-aniztasuna sustatzea, Nekazaritzaren Euskal Plan Estrategikoak onartutako landa-garapenerako eta ingurune naturala zaintzeko jardunbideak abiaraziz.
- Ildo horretatik, osagarritasuna eta lotura bilatu behar da Eskualde Egituran turismoa indartzearen eta nekazaritza-jardueren artean, horrek aipatutako jardueren produktibitateko kalterik ekarri gabe.
- Eskualdearen ipar-ekialdea (Kripan, Yécora, Barriobusto, Labraza eta Moreda) Ebro ibaiaren inbutuarekin –eskualdeko ardatz aktiboena– lotzea, eremu horretako gunetako nekazaritza-jarduerari lotutako zerbitzuak, ekipamenduak eta ekonomia-jarduerak instalatzeko jardunen bidez.
- Eskualde Egituran landa-garapenerako europar programen (5b helburuko zonatarako egitura-fondoak, LEADER programa) aplikazioa finkatzea.

7.3 INDUSTRIA SEKTOREA

Euskal Autonomia Erkidegoan Arabako Errioxa da industria-sektoreak eragin txikiena dueneko eskualde-egitura. Izan ere, sektore horrek enpleguaren herena baino gutxiago biltzen du. Elciegon, Lapuebla de Labarcan eta Oyón-Oionen besterik ez da aipagarria; azken udalerririk horretan batez ere, Logroñotik gertu egoteak mesede egiten baitio.

Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planak bete-betean hartzen ditu bere gain Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren edukiak eta proposamen nagusiak.

Lurraldearen Zatiko Planak onartu egiten ditu kokapen jakin batekin lotura estua duten eta, beren tamainagatik, azpiegiturak arriskuen jartzen ez dituzten edo ezarpen-sistemari eragiten ez dioten eragiketekin lotutako okupazio jakin batzuk (eta horiei dagozkien kalifikazioak). Eskumen-esparruarekiko malgutasun- eta errespetu-irizpidea nagusitu behar da mota horretako jardunetan.

Horren arabera, irizpide orokor gisa, poligono txikiak (industrialdeen tipologiakoak) sustatzea proposatzen da, Eskualde Egituraren barruko eskaerari erantzuteko. Nolanahi ere, Logroñoren hurbiltasunak sorrarazitako kanpoko eskaeraren potentziala eta upeltegi-instalazio handiak sortzeko aukera kontuan izanda, komenigarria da Oyón-Oionen eta Laguardia–Casablanca–Lantziego eremuan lurzoru gehiago aurreikustea. Esparru hori lehenasunezko hartzen denez ekonomia-jarduerak garatzeko, ekonomia-jardueretara zuzendutako lurzoruak antolatu, kudeatu, sustatu eta garatzeko lehenasunezko politika proposatzen da. Era berean, aurriak ezabatzeko eta zaharkitutako industria-ehunak birmoldatzeko prozesuak sustatu nahi dira, lurzoruak ekonomia-jarduerarako eremu berri bihurtu ahal izango diren moduan.

Produkzio-ezarpen berriak ekonomia-jarduerarako korridoreen inguruan estrategikoki kokatutako lurzoruetarantz bideratzea komeni da. Hortaz, inguruetako udalerriki komunikazio-ardatz nagusiekin lotzeko pizgarri handiagoko politikak egitea proposatzen da.

Arlo publikotik industria-lurzorua sortzeko eragiketetarako gorde beharreko lurzoru-azalerak kuantifikatzearen, oinarritzko hiru batugai hauetatik abiatutako kalkulua ezarri da:

- Hiri-plangintzan dagoeneko ekonomia-jardueretarako lurzorutzat kalifikatuta eta okupatu gabe dagoen lurzoruaren guztizko azalera.
- LAPean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berriak barne hartzeko beharrezko azalera.
- Gainerako eragiketak (partikularrak edo tokikoak, eta udal-ekimenekoak edo pribatuak) barne hartzeko beharrezko azalera.

Horren arabera, honako kuantifikazioa proposatzen da (hektareatan):

Lurzoru kalifikatua guztira	299 ha
Lurzoru okupatua	171 ha
Lurzoru okupatu gabea	128 ha
Eskaintza bideragarritzat konputa daitekeen lurzoru librea.....	65 ha

Planearn planteatutako sustapen publikoko eragiketak garatzeko beharrezko kalifikazio berriak.....	25/50 ha
Planaren mugan (16 urte) aurreikusi beharreko lurzoru kalifikatuaren beste erreserbak	65/130 ha
Planaren mugan (16 urte) kalifikatutako lurzorua oro har dimentsionatzeko proposamena.....	350/400 ha

7.3.1 Laguardia eta Oyón-Oion

“Lehentasunezko intereseko” udalerritzat jotzen dira, ekonomia-jarduerara zuzendutako lurzoruak hirigintza-arloan antolatu, kudeatu eta sustatzeko. Horietan, esku-hartze maila hauek aurreikusi dira:

- Okupatutako lurzoru finkatuak hobetzeko oinarritzko politika.
- Industria-eremu zaharkituak berregituratu eta birmoldatzeko politika berezia, enpresak lekualdatzeko eta hutsik geratzen diren espazioak jarduera-esparru berrietarako berreskuratzeko asmoz.
- Industria-kalifikazioa duten okupatu gabeko lurzoruak garatzeko politika berezia, egun dauden poligonoak bultzatuz, desblokeatuz eta sustatuz.
- Interes estrategiko orokorrekotzat hartutako ekonomia-jardueretarako lurzoru berrien eskaintza publikoa egiteko politika berezia.

Proposamen orokor horiez gainera, LZPak ondoko eragiketa zehatz hauek proposatzen ditu:

- Laguardiako hirigunerako, Eskualde Egituraren multzoan duen kokapen estrategikoagatik, eskualde-mailako industrialde bat sustatzea proposatzen da, barruko industria-ezarpenak garatzearen. Funtsean landatarra den eta industriak enpleguen bostenak ere hartzen ez dituen puntu estrategiko horretan industria-jarduera ekonomiko berriak sustatzeko pizgarri-politika da. Industrialde berri horretarako, hautabideen kokapenari eta bideragarritasunari buruzko azterlana egin behar da, gutxi gorabehera 5 eta 10 ha arteko dimentsioa aurreikusita.
- Oyón-Oiongo eremurako, eskualde-eskalako poligono bat planteatzen da, lehen zenbatespen batean 25 ha-ko eskaintza publikoa ekar lezakeena. Gainera, industria-lurzorua zertxobait areagotzea aurreikusi beharko da. Horretarako, egungo sarea berrantolatu beharko da, proposatutako bide-egituratik abiatuta.
- Laguardia-Lantziegorako, eskualde-eskalako poligono bat planteatzen da. Helburu horretarako, Malpica-El Carrascal zona proposatzen da Casablanca poligonoa zabaltzeko litekeen eremutzat; nahiz eta, Zabaltze hori A-124

errepidearen ardatzean zehar ere egin litekeen, enklabe horien ingurunean. 25/50 ha inguruko dimentsionatzea aurreikusi da.

7.3.2 Elciego, Lantziego eta Labastida

Ekonomia-jardueretarako lurzorua "neurritzko hazkundeko" udalerritzat hartzen dira. Horietarako oinarritzko politika proposatzen da, ekonomia-jardueretarako lurzoruen kudeaketari eta egun dauden eremuak eta ezarpenak finkatzeari dagokionez. Egungo urbanizazioak akabatu eta hobetzeko ekintzei lehentasuna emango zaie. Udalerririk horien gainean ez da aurreikusi eragiketa publiko garrantzitsurik, hazkunderari edo ezarpen berriei dagokienez. Zehazki, irizpide orokor gisa, udalerririk horien hiriplangintzan ekonomia-jardueretarako lurzoru urbanizagarriko sektore berririk ez antolatzea proposatzen da, pizgarri moduko ekimen publikoetarako izan ezik. Gainera, hala badagokio, garapen berriak, barruko hazkunderak xurgatzeko aurreikusitako hirilurzoruko eremuetara bideratzea proposatzen da.

7.3.3 Gainerako udalerririk

Horietarako, ekonomia-jardueretarako "garapen txikia" aurreikusi da. Horietan onargarriak izango dira toki-esparruko lantegiak eta enpresa txikiak hartzeko egokiak izango diren hiri-eremu txikiak, gehienez ere 3 ha-ko azalera-hedadurako lurzoru eraiki gabean; baldin eta behar adinako harrera-ahalmena badago, ingurune naturalaren gainean eragin adierazgarriarik sorrarazi gabe. Poligono horiek hiriguneei lotuta kokatu beharko dira, haien hirigintza-egituraren osagarri gisa.

7.4 HIRUGARREN SEKTOREA

Industria-sektorearekin gertatzen den bezala, Arabako Errioxan hirugarren sektorearen pisua txikia da, Euskal Autonomia Erkidegoko beste eskualde-egitura batzuekin alderatuz gero. Lehen sektorearen gehiegizko hedadurak garrantzia kentzen die eskualdearen etorkizunean funtsezkoak izango diren zerbitzuei.

Enpresen hirugarren sektoreak etekina aterako dio industria-jardueren bultzadari. Stockak biltegiatzeagatik edo plantillaren tamainagatik nabe handiak edo bulego zabalak behar dituzten enpresek espazioa partekatu ahal izango dute proposatutako industria-poligonoetan, egiaz ekonomia-jardueretarako poligonoak izango baitira. Bulego edo biltegi txikiak kokatzeko, hiru eskualde-burutzei –Labastida, Laguardia eta Oyón-Oion– emango zaie lehentasuna. Telematikak gaur egun eskaintzen dituen aukerak ere kontuan hartu behar dira, haren bitartez Eskualde Egiturako hirigune txikietan lantokiak antola baitaitezke. Horrek garapen-aukera izugarriak emango dizkie atzeratuen dauden inguruetako udalerririk.

Merkataritzako hirugarren sektorea hiru eskualde-burutzetan ere bultzatu behar da, batez ere Laguardian. LZPak "*Merkataritza-azpiegitura*" izeneko 13.7 atalean antolatzen du azpisektore hori.

Hirugarren sektorean ere bildutako azpisektore turistikoa bereizirik aztertzen da hurrengo puntuan.

7.5 BALIABIDE TURISTIKOEN ANTOLAMENDUA

Sektore turistikoa edo baliabide natural, kultural, etnografiko, etab.en ustiapenari lotutako ekonomia da Eskualde Egituraren abagune handienetakoa.

Balio turistiko handiko lurraldean (balio kultural, historiko, etab. handiko enklabe ugari) kokatutako eremu gutxi-asko txiki honen aktibo turistikoak lurraldeari multzoan balioa emanda hartzen du bere benetako dimentsioa. Zonako aktibo guztiak bateratzea da benetako erronka hari etekin handiena ateratzeko. Hortaz, helburua da Arabako Errioxara egun egiten diren bisitaldi laburretatik (Errioxan dagoen hotelen edo antzekoen azpiegituran oinarri dutenak), kanpaina turistikoaren euskarri Arabako Errioxa hartuko duen turismora aldatzea.

Ahalmen hori bete-betean ustiatu ahal izateko, esparru hauetan jardun behar da:

- Intereseko ahalmena edo baliabidea osatzen duten elementuak (elementu naturalak, balio historikoa eta kulturala duten enklabeak, baliabide etnologikoak, etab.) babestu eta berreskuratzea.
- Baliabideak hedatzeko estrategia zehaztea. Jardun horrek baliabideak bateratu eta hedatzeko kanpaina bat sortzea edota aktiboa kudeatzeaz arduratuko den eskualde-mailako sozietate bat eratzea barne har dezake.
- Helburu horretarako egokia izango den informazio-azpiegitura eta lurralderako sarbidekoa ezartzea. "Lurralderen atea" izenekoetan proposatutako lurralde-proiektuez baliatzea aparteko hedabidea izango litzateke.
- Hiru helburu hauek izango dituen azpiegitura turistikoa sortzea: bertan egon nahi dutenei ostatu ematea, lortu nahi den tipologiari (hotelak, egoitzak, landaturismoko etxeak, upeltegietako instalazioak, etab.) erantzutea eta, azkenik, eskaintza hori zentralizatuko duen erakunde sortzea. Ildo horretatik, Arabako Errioxakoaren antzeko zonak suspertu dituzten beste esperientzia batzuetara jotzea (Kantabriako Saja-Nansa sozietateak bi haranen hotel-eskaintza zentralizatzen du eta, hala, kontsultak eta erreserbak modu zentralizatuan egiten dira).
- Merkataritza eta turismoa suspertzeko plan bereziak idazteko pizgarriak eta laguntzak emango dira, plan horiek berariazko tresna baitira merkataritzaren eta turismoaren arloan jarraitu beharreko estrategia zehazteko. Hala, udalaz gaindiko administrazioei eskumena emango zaie gai horretan.

Arazo horietako asko jadanik jorratzen ari dira landa-garapenerako politiken arloan (LEADER programa). Aipatutako politikak, besteak beste, hauen bitartez egituratu dira: Arabako Errioxako Landa Garapenerako Plana (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren mendekoa den Mendikoi erakundeak landutakoa), Arabako Errioxako Landa Garapenerako Elkarteak eta Landaberri (landa-garapenari buruzko

gaietarako erakunde arteko koordinazio- eta lankidetzak-erakundea). LZPak bultzada horri eusteko adorea eman nahi du, zonako udalerrri geldoenei aukera berriak eskaintzearen.

7.6 UPELTEGIAK: ELEMENTU BEREIZGARRIA

Arabako Errioxako Eskualde Egituraren alderdi bereizgarrietakoa da lehen sektoreko ekonomiarekiko lotura eta, zehazkiago, mahastizaintza eta ardogintzarekikoa. Nortasunari eta produkzioaren kalitateari dagokienez bizitako krisialdi-garaia gainditu ondoren, Arabako Errioxako ardoek proiektio nazionala eta nazioarteko dute, munduko ardo hobereenen parekoa.

Zalantzarik gabe positiboa den abiapuntuko egoera horrek erronkak dakartza lurraldearen antolamenduan, batik bat ardoa transformatu eta biltegitratzeko instalazioetarako ezarpenaren (hau da, upeltegiak oro har) hirigintza-arautzean.

Era berean, instalazio handi batzuk bilakatu egin dira eta, pixkanaka-pixkanaka, jarduera osagarriak gaineratu dituzte. Hala, upeltegi horietako askok, ardogintzaren ezaugarri komunarekin batera, topaketa kulturalak, prestakuntza, gastronomia, ostatua eta aisia bildu dituzte.

Beraz, arautzearen arazoari erantzuteko, bi instalazio-mota hauek planteatu daitezke:

- Transformazio-instalazio txikiak, hau da, “urteko ardoen” upeltegiak, tamaina desberdinetakoak, baina funtsean transformazio- eta biltegitratze-industria direnak.
- Upeltegi handiak, ardogintzaren jardueraren inguruan beste jarduera osagarri batzuk biltzen dituztenak.

Instalazio-mota horietako bakoitzak arautze egokia eta malgua behar du, Eskualde Egitura osorako irizpide orokor homogeenak ezartzeko bidea emango duena baina, era berean, udal-administrazioari berorren irizpideen arabera planifikatzeko aukera emango diona, LZParen proposamenak abiarazteko moduari buruz.

Sortzen den lehen arazoa **hirigintzaren** logikatik upeltegien fenomeno arautzeko beharra da. Hala, upeltegi-instalazioak industria-jardueratzat hartu behar ote diren planteatu behar da. Hortaz, arazo horri erantzuteko, upeltegiak hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian (jarduera hori garatzeko bidea emango duen erabilera-kalifikazioarekin) sailkatutako eremuetan ezartzea aurreikusi behar da. Beste aukera da upeltegiak lurzoru urbanizaezinean edo landatarrean ezartzea da, baldin eta hura bereziki babestuta badago idatzitako plan berezi baten bidez, indarrean dagoen legeriak ezartzen duenez.

Sailkapenaren araberrako arautzeak funtsezko desberdintasun bat dakar, hots: upeltegi-jarduera hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian kokatzeak udal-plangintzaren alde aurreko plangintza eskatzen du, bertan aipatutako eremuak jasota eta mugatuta egon behar baitira (jakina, betiere planen edo arauen aldaketa puntualak egon daitezke); lurzoru urbanizaezinean eskaintza ez dago programatuta eta, betiere, eskaintza pribatuak aukeratzen du kokapena kasuak kasu, eta udal-plangintzak erabilera- eta eraikuntza-baldintzak ezarrita izan ditzake, ala ez. Azken kasuan, behin

betiko onarpena emateko ardura duten udalaz gaindiko erakundeek ere euren irizpideak dituzte, aplikatzekoa den legeriaren arabera, proposamena baldintzapean onartzeko edo baztertzeko.

Lurzoruaren sailkapenari buruzko oharrak planteatu ondoren, ezarpenaren funtsezko beste faktorea **erabilera** (edo, hobe esanda, erabilerak) **arautzea** da: erabilera nagusia (hau da, mahatsa ardo bihurtzea, nahi den kalitatea lortzeko beharrezko prozesu osoa eta ardoa banatzea) eta erabilera osagarriak (batez ere, ardo jakin bati irudi edo marka jakin bat emateko garaian gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren egile-upeltegi deitu daitezkeen horietarako).

Arabako Errioxako **mahastizaintza eta ardogintzaren berezitasuna** ezin konparatuzkoa da nolabaiteko ardogintza-jarduera (batez ere txakolina) izan dezaketen EAEko beste eskualde-egitura batzuenarekin. Beraz, jarduera horren arautzea nolabaiteko berezitasunetik abiatuta hartu behar da, eta oinarrizko printzipio hau kontuan izanda: jarduera, desiragarritzat har daitezkeen egoerara iritsi arte sustatzea.

Eskualde Egituraren barruan, hura osatzen duten udalerrri guztientzako arautze homogeneoa ezarri beharra dago; printzipioz, mahastizaintza eta ardogintzaren jarduerarekiko lotura-maila kontuan hartu gabe. Ez da komeni arautzeak batzuen mesederako eta beste batzuen kalterako izango diren elementu bereizleak ezartzea, saihestu beharreko tirabirak sortuko bailirateke.

Antzemandako egoera ezaugarritu ondoren, arautzeak instalazio horien kokapenaren inguruan sortutako arazoei konponbidea behar die, dauden tipologiak kontuan izanda eta, ahal den neurrian, LZParen indarraldian sor daitezkeen egoera aurreikusita.

Upeltegiak ezartzeko irizpideak edo orientazioak, udal-plangintzak praktikan jarri beharko dituenak, egin nahi den lurzoruaren sailkapenaren araberrako bereizketa kontuan izanda ezarri dira.

A. Hiri-lurzoruak edo lurzoru urbanizagarriak

- Upeltegi berriak ezartzeko lehentasunezko lurzoruak dira.
- Hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian upeltegiak ezartzeko lehen baldintza ekonomia-jarduera orokorretarako lurzoru-kalifikazioa edota upeltegietarako berariazkoa edo xehetasunezkoa izatea da.
- Jakina, lurzoruak (batez ere hiritarrak) hiriguneetatik gertu egoteak ezin du ekarri horien hiri-egitura nahiz irudia aldatzea. Horregatik, upeltegiak hiriguneen inguruetan kokatzeko irizpide murriztaileak ezarri beharko dira; are gehiago, horiek barne hartzen dituzten eraikuntzak egitura hori aldatzeko moduko dimentsioetakoak badira.

B. Lurzoru urbanizaezinak

- Lurzoru horiek upeltegiak ezartzeko erabiliko dira, hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian ezartzea ezinezkoa denean, aurreko A atalean adierazitako baldintzak direla eta.

- Lehenik eta behin, upelak lurzoru-mota horretan **ez dira inoiz ezarriko** LZPak berak edo udal-plangintzak **bereziki babestutako lurzoruetan**, babesaren arrazoia edozein izanik ere.
- Instalazio horiek garatzeko **plan berezi bat idatziko da**, eta, aldez aurretik, lursail hartzaileako esparruaren mugaketa finkatuko da, lursail horren pareko bide-tartea barne dela, beharrezko urbanizazioa ebatziko den moduan.
- Upeltegiak **behar bezala ebatziko ditu oinarrizko zerbitzuen beharrak**. Ur-hornidurarako (modu autonomian zein sare orokorretik hartuta) beharrezko obrak ordaindu beharko dira. Saneamenduak beharrezko baliabide guztiak izango ditu hondakin-urei tratamendu osatua emateko, lur gaineko urak edo lurpeko akuiferoak kutsatzea saihestuko den moduan.
- Energia-kontsumorako eraginkortasun-irizpideei jarraituko zaie. **Energia berriztagarriaren** produkzioa gaineratuko da, batez ere eguzki-energiarena, kalkulaturako kontsumoaren gaineko %20an gutxienez, ingurunearen gaineko eragin kutsatzailea murriztuko den moduan.
- Egungo hiriguneekiko distantzia jakin bat finkatu gabe, ezarpenak **ezin izango du ekarri funtsezko aldaketarik** hiri-egituran edota haren irudi tradizionalan.
- Litezkeen kokapen batzuen erakargarritasun-balioa zalantzan jarri behar ez dela ulertuz, positiboki baloratuko dira **kokapenean integratzeari buruzko alderdiak**. Ezarpenak ez dira muinoen gailurretan kokatuko, edota egungo paisaia naturalaren aldaketa larria ekarriko duten ageriko zonetan.
- Gutxienez 10 ha-ko mahasti-saila izango duen azalera ekarri izana justifikatu beharko da, lursail hartzailearen eta osagarrien emaitza gisa. **Lursail hartzailearen** gutxienerako azalera 20.000 m²e-koa izango da.
- **Gehieneko eraikigarritasuna**, lursail hartzaileari soilik aplikatutakoa, 0,2 m²e/m²-koa izango da, eraikin bakarrerako finkatutako 8.000 m²e-ko aprobetxamendu-mugatzailearekin. Zenbait eraikin independente onartuko dira, baldin eta distantziari, orientazioari, etab. dagokionez udal-plangintzak ezarritako xedapenak betetzen badituzte.
- Instalazio bakoitzak **behar bezala ebatziko du aparkaleku-zuzkidura**, gutxienez plaza bana aurreikusiz 100 m²e-ko, ibilgailu pribatuetarako. Aparkaleku horiei merkantziak garraiatzera zuzendutako ibilgailu astunetarako aparkalekuak gaineratu beharko zaizkie. Horrez gain, autobusetarako aparkaleku 1 aurreikusi beharko da, turismoetarako aparkalekuez bestelako 2.000 m²e-ko.
- Upeltegiaren instalazio osagarriek, batez ere transformazioarekin zerikusia dutenek, tratamendu arkitektoniko egokia izan beharko dute, eraikin nagusiarekin bat etorriko dena, lursailean elementu sakabanatuak saihesteko.
- Mahastirako ez diren zatietan, baleude, lursailaren urbanizazioa bere osotasunera zabalduko da. Urbanizazioak paisaiarekiko integrazioaren printzipioak bete beharko ditu.

8 BIDE AZPIEGITURA: IRISGARRITASUNA HOBETZEA

Bide-sistemari buruzko proposamenak ez dira hartu behar egun dauden arloko planekiko (Euskadiko Errepideen Plan Orokorra eta Arabako Errepideen Plan Integrala –AEPI–) norgehiagoka edo kontraesanezko ikuspegizat, aurreikusitako Lurralde Ereduarekin zuzenean lotuta dagoen LZParen beraren interpretaziotzat baizik.

Bide-sistemari buruzko proposamenen multzoa irisgarritasuna hobetzeko ekimen erabakitza ulertu behar da. Hala ere, proposamen horiek sare orokorraren erabilera-mailaren arabekoak izan behar dute, eta erabilpen-maila hori, sarearen intentsitateak kontuan izanda, eta tarte jakin batzuetan, ertain-txikitza har daiteke.

Lehen puntu hori argituta, proposatutako jardunetako lehenengoa, AEPIk jasotakoekin bat etorritik, egungo bide-sistema osoa hobetzea izango litzateke. Hobekuntza horiek zein diren zehatz-mehatz adierazten hasi gabe, lau multzo hauetan sailka ditzakegu:

- Plataforma-zabalerak hobetzea, tarte askotan ez baitira behar adinakoak. AEPIren proposamenarekin bat etorritik, gutxienezko zabalera 4 eta 5 metro bitartekoa izango litzateke behe-mailako bideetarako, eta 9 metrotik gorakoa erabilpen-intentsitate handieneko ardatzetarako.
- Egungo trazadurak hobetzea. Izan ere, bide askok dagoen orografiari estu lotutako trazadura zaharrak dituzte, oso kurba itxiek eta sestra-aldaketa handiekin.
- Zeharbide gatazkatsuenak ezabatzea, hala nola Labastidakoa.
- EAETik kanpoko zonekin lotzeko bideetan eragina izango duten jardunetan inplikaturako esparruen arteko lankidetzak ezartzea, jadanik badauden lankidetzak edota LZP hau eta beste batzuk garatzeko berariaz sortutako ildotik.

8.1 ERLAZIO SISTEMA: BIDE MOTAK


8.1.1 Bide estrategikoak

Bide estrategikoen barruan, bi mota hauek daude:

- a) Burutzak lotzeko oinarritzko bideak
- b) Kanpo-loturako oinarritzko bideak

Burutzak lotzeko oinarritzko bideen barruan, N-124 errepidea eta Eskualde Egituraren barruko

haren jarraipena (A-124) bildu dira. Bide horien artean ere, Oyón-Oion A-124



errepidearekin lotzen duen A-3226 errepidearen tartea barne hartuko litzateke. Komunikazioen ardatza da, eskualdeko hiru burutzak elkarrekin lotzen dituena. Beraz, haren trazadura hobetzea eta zeharbideei konponbidea ematea lehentasunezko helburutzat hartzen da.

Kanpo-loturako oinarrizko bideak osatzen dituzten ardatzak lurralderako atak dira. Multzorretan honako hauek biltzen dira: Labastida Harorekin lotzen duen A-3202, bi ate (Errioxakoa, Ebroren pasabidean, eta Arabako Mendialdekoa Kripan zehar, Laguardia eta Bilartik pasatuz) lotzen dituen A-3210 zeharkako lurralde-errepidea, A-2124 errepidearen lotunea Peñacerrada-Urizaharratik, Oyón-Oionen lotunea Logroñorantz (A-2126 errepidetik zehar) eta, azkenik, A-3216 errepidea, Lapuebla de Labarca eta Laguardia artekoa.

8.1.2 Bide egituratzaileak

Bide egituratzailearen barruan, bide bide-mota hauek daude:

- a) Banaketa-bideak
- b) Distribuzio-bideak

Banaketa-bideen barruan, hiriguneak dagozkien burutzekin edo azpiburutzekin lotzea helburu duten bideak biltzen dira.

Mendebaldeko sektorean, multzo honetan ondoko bideak sartzen dira:

- A-3214: Samaniego–Eskuernaga–Elciego.
- A-3224: Torremontalvo–Mañuetarako errepidearekiko gurutzagunea, A-3214 errepidearekiko gurutzagunea.
- A-3212: Leza–Elciego.
- Navaridas–Eskuernaga lotune berria.

Erdialdeko sektorean, multzo honetan hauek biltzen dira:

- A-4208: Lapuebla de Labarca–Elciego.
- A-4202: Lapuebla de Labarca–El Campillar.

Ipar-ekialdeko sektorean, honako hauek osatzen dute banaketa-bidea:

- A-3220: Kripan–Lantziego–Assa.
- Bilartik Lantziegorako lotune berria.
- A-4209: Lantziego–Viñaspre.
- Viñaspre–Yécora lotune berria.

Hego-ekialdeko sektorean, bide hauek daude multzo honen barruan:

- A-2126: Oyón-Oion–Yécora.

- A-3226: Oyón-Oion–Moreda de Álava.

Distribuzio-bideak gainerako bideek osatzen dituzte. Lurralde osoari sarbide-zerbitzu egokia ematea edo aurrekoekiko hautabide izatea dute helburu.

Distribuzio-bideen barruan ondoko bide hauek daude:

- A-3202: Labastidatik Peñacerrada-Urizaharraraino, Ribas de Teresotik igaroz, Arabako Mendialdearekin lotzeko hautabidezko errepide gisa.
- A-3218: Bilar – A-124 errepidearekiko gurutzagunea, El Campillarren.
- A-3224: Torremontalvoko errepidearekiko gurutzagunetik Errioxarekiko erkidego-mugaraino (San Vicente de la Sonsierra).
- A-3230: Nafarroarekiko erkidego-mugatik (Viana), Moreda de Álavatik igaroz, Nafarroarekiko erkidego-mugaraino (Lapoblación).
- A-4106: N-124 errepidearekiko gurutzagunetik Salinillas de Buradóneraino, bai eta haren luzapena ere Ocioraino, Arabako Mendialdearekin lotzeko hautabidezko errepide gisa.
- A-4203: Lasernarako sarbidea A-124 errepidetik.
- A-4204: A-3214 errepidearekiko gurutzagunetik Mañuetaraino.
- A-4205: Mañuetatik Elciegoraino, A-3224/A-3214 ibilbiderako hautabide gisa.
- A-4207: Navaridas–Laguardia.
- A-4211: Labrazarako sarbidea A-3230 errepidetik.
- A-4212: A-3226 errepidearekiko gurutzagunetik A-3230 errepideraino, Barriobustotik igaroz.

8.1.3 Landa-bideak

Eredu Biguna osatzen duten bide landatarren sare estrategikoa da. Gaur egun duten interesa lurraldean sartzeko balioko duen sare izatearena da. Ez da baztertzeko landa-bideak etorkizunean bide nagusien barruan sartzeko aukera.

8.2 BIDEEN GAINEKO JARDUNAK

LZPak, irisgarritasuna hobetzeko eta proposatzen duen eredua sendotzeko, besteak beste, Eredu Gogorrean (azpiegiturei buruzko atalean) sartu diren zenbait jardun kontuan hartzea proposatzen du.

Lehenik eta behin, Lurraldearen Zatik Planak bere gain hartzen ditu Arabako Errepideen Plan Integralaren proposamenak, guztiz koherenteak direlako LZP honek proposatzen duen Lurralde Ereduarekin. Oro har, honela lurtu daitezke:

- Lehentasunezko intereseko sarean, eguneko 8.000tik gora ibilgailuko trafikoa duten tartetean galtzada bikoiztea, hori izanik N-124 errepidearen kasua Zambrana eta Briñas artean¹.
- Oinarrizko sarean, 8 m-tik beherako plataforma duten tartetak egokitzea eta zolatu gabe dauden tartetean bazterbideak sendotu eta zolatzea, hori izanik A-124 errepidearen kasua.
- Eskualde-sarean, 8 m-tik beherako plataforma duten tarteen trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, hori izanik A-2126, Oyón-Oion eta Bernedo artean, eta A-2124 errepideen kasua.
- Toki- eta auzo-sarean, beharrezkotzat hartzen da ibilbideak osatzen edo beste sare batzuk elkarrekin lotzen dituzten errepideetan jardutea, plataformak zabalduz eta hobetuz, 6 m-ko galtzada izango duten 8 m-ko sekzioak lortu arte. Zokogune moduan nahiz bi errepidetatik zirkuituak itxiz herriguneetan sartzeko besterik ez diren errepideetarako, 5/6 m-ko zabalerako galtzadak/plataformak mantentzea proposatzen da, herrigune sakabanatuetan sartzeko eginkizun bakarrerako nahikoak baitira.

Arabako Errepideen Plan Integralaren irizpideei jarraituz, Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planak hiru multzo hauetan sailkatutako zenbait proposamen egiten ditu:

- Bideak hobetzea
- Azpiegitura berria
- Hiri-saihesbideak

8.2.1 Bideak hobetzea

- Oro har, burutzak lotzeko oinarrizko bidea (A-124 errepidearen ardatza: Labastida – Laguardia – Oyón-Oion) sendotzea proposatzen da, Eskualde Egiturako barne-komunikazioko bide nagusia baita. Helburua da ibilbide osoan 7/10 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzea.
- Bide estrategikoen barruan ere, kanpo-loturako oinarrizko bideak sendotu beharko dira, Eskualde Egitura alboko lurraldearekin komunikatzeko (bai Arabako mendialdearekin eta ibarrekin, bai Ebroren ardatzarekin) elementu gisa. Ebroren ardatzari dagokionez, kontuan izan behar da EAeko lurraldean jardun ahal izango dela, baina mugaren eta kanpoko herrien arteko loturak beste autonomia-erkidego batzuei dagokiela. Beraz, erakunde eskudunen artean akordioak lortu beharko dituzte. Ardatz osagarri horien hobekuntza honako esku-hartze hauetan zehazten da:

¹ Euskadiko Errepideen 2. Plan Orokorrean (1999-2010) jasotako jarduna.

- a) A-3202 (Labastida – Haro): trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, 7/9 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
 - b) A-2124 (Puerto de Herrera – A-124 errepidearekiko gurutzagunea): trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, 6/7 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
 - c) A-3210 (Laguardia – Elciego – Cenicero): trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, 6/8 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
 - d) A-3220 (Kripan – Nafarroako muga): trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, 6/7 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
- Bide egituratzaileen barruan, banaketa-bideetarako, ia errepide guztien hobekuntza orokorra planteatzen da, Arabako Errepideen Plan Integralean ezarritakoaren arabera. Zehazki, jardunak hauek dira:
 - a) A-2126 (Bernedo – Yécora – Oyón-Oion – Logroño): Arabako Errioxan zehar duen ibilbide osoa egokitzea, 6/8 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko. Helburua da azpiegitura eraginkorra sortzea, Eskualde Egiturako ekialdearen erlazioa indartuko duena Arabako Mendialdearekin, Bernedotik zehar, eta Logroñorekin, Oyón-Oionetik zehar.
 - b) A-3212 (Leza – Elciego): trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, 6/7 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
 - c) A-3214 (Samaniego – Eskuernaga – Elciego): trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, 6/8 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko Samaniego eta A-3224 errepidearekiko gurutzagunea bitartean, eta 6/7 m-ko sekzioa puntu horren eta Elciegoren artean.
 - d) A-3216 (Laguardia – Lapuebla de Labarca – Fuenmayor): trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, 6/7 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
 - e) A-3220 (Kripan – Lantziego – A-124 errepidearekiko gurutzagunea, Assan): trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, 6/7 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
 - f) A-3224 (Torremontalvoko errepidearekiko gurutzagunea – Mañueta – A-3214 errepidearekiko gurutzagunea): trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, 6/7 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
 - g) A-3226 (Oyón-Oion – Moreda de Álava): trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, 6/8 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko
 - h) A-4202 (Lapuebla de Labarca – A-124 errepidearekiko gurutzagunea, El Campillarren): zerbitzu-maila ona duenez, tarte honetan ez da hobekuntza-jardunik aurreikusi.

- i) A-4208 (Lapuebla de Labarca – Elciego): zerbitzu-maila ona duenez, tarte honetan ez da hobekuntza-jardunik aurreikusi.
- j) A-4209 (Lantziego – Viñaspre): auzo-sarea hobetzeko jarduna, 5/5 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
- Distribuzio-bideei dagokienez, horiek hobetzeko LZP honen proposamenak ere bat datoz Arabako Errepideen Plan Integralean xedatutakoarekin:
 - A-3218 (Bilar – El Campillar): trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, 6/7 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
 - A-3224 (Torremontalvoko errepidearekiko gurutzagunea – autonomia-erkidegoaren muga Errioxarekin): bazterbideak eta sendotu eta zolatzea, 6/6 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
 - A-3230: trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea Moreda de Álava eta A-4212 errepidearekiko gurutzagunea bitartean, Barriobusto inguruetan, eta puntu hori zabaldu eta sendotzea Nafarroarekiko autonomia-mugaraino (Lapoblación), 5/6 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
 - A-4204 (A-3214 errepidearekiko gurutzagunea – Mañueta): auzo-sarea hobetzea, 5/6 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.
 - A-4211 (Labrazarako sarbidea A-3230 errepidetik): auzo-sarea hobetzea, 5/6 m-ko sekzioko galtzada/plataforma lortzeko.

8.2.2 Azpiegitura berria

Eskualde Egituraren ekialdeko zonarako zeharkako ardatz berriei dagokienez, azpiegitura berrirako egindako proposamenak LZPren iradokizun gisa hartu behar dira. Iradokizun hori Garraio eta Herri Laneko Foru Sailaren arloko plangintzarekiko osagarria da eta ez dago harekin kontraesanean.

Bilar-Barriobusto zeharkako ardatza

Arabako Errioxaren ekialdean sarea lineala da, sakan eta erreka txikiak hegoaldetik iparraldera gainditzen dituen errepide-trazadurarekin. Bide horiek zeharkako errepideen bitartez lotzen dira elkarrekin, iparraldeko muturretan (Kripan eta Meano, Nafarroan) eta hegoaldekoetan (A-124/A-3226), baina ez tarteko zonetan. Egoera horrek arazoak sorrarazten ditu:

- Tarte handiak eta, ondorioz, joan-etorriak egiteko denbora luzeak elkarrengandik 2-3 km eskasera dauden hiriguneen artean
- Hirigune txiki horien isolamendua Arabako Errioxaren garapen-ardatz nagusi diren oinarritzko bideekiko.

- Lurraldeko sargune izateko joera duten hirigune horien garapena ahalbidetuko duen aisiaren eta turismoaren eskaintza bateratua antolatzeke ezintasuna.

Eskualde Egiturako ekialdeko sektorerako irisgarritasuna hobetzeko, Bilar eta Barriobusto arteko zeharkako ardatza sortzea proposatzen da. Gaur egungo landa-bideen egokitzapena abiapuntu izango da eta horiek behar bezala hobetuko dira, zoruan ez ezik, trazaduran ere. Zehazki, egokitzapenak egin behar dira Barriobusto-Yécora bide-tartean, 4 kilometro inguruko luzeran, Yécora-Viñaspre bide-tartean, ia 2,5 kilometroko luzeran, eta Lantziego-Bilar bide-tartean, 2,5 kilometroko luzeran. Horrenbestez, 9 kilometro inguruko bide-tartea egokitu beharko da.

AEPIren irizpideen arabera, mota horretako bideetarako (auzo-sarea, 500etik beherako eguneko batez besteko intentsitatea –EBBI– aurreikusita duen lur uhindu eta gorabeheratsuan) ezaugarri onargarriak eta aproposak hauek dira:

	<u>Onargarria</u>	<u>Aproposa</u>
Galtzada/plataforma:	4/5 m	6/7 m
Gehieneko aldapa:	%10	
Gutxieneko kurbatura-erradioa:	75 m	
Proiektuko abiadura:	40 km/h	

Arabako Errioxako Lurraldearen Zatik Planak proposatzen du bide berri horretan aipatutako estandarrak malgutasunez hartzea, horietara egokitzeak obra aurre egin ezingo zaion moduan garestitzea dakarren tarteetan estandar horiek murrizteko aukerarekin.

Zona horretako orografia zaila dela eta, obra ez da munta txikikoa. Aldiz, aurrekontu-ahalegin handia eskatzen du eta horren finantzaketa atzerabidean dauden landa-zonak garatzeko Europako Batasunaren fondoetatik etor liteke.

Obraren gizarte-errentagarritasuna ez da mugatu behar hirigune horien biztanleriara (Lantziego 635 bizt.; Viñaspre 111 bizt.; Yécora 189 bizt.; Barriobusto 127 bizt.; Labraza, 94 bizt.). Lehen esan bezala, Arabako Errioxa da Euskal Autonomia Erkidegoko gutxien gizatiartutako eta gehien libratutako lurraldeetako da eta, horregatik, taldeko atsedeen-zona izatera zuzenduta dago, bai Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako lurraldeetako biztanleriarentzat bai mugako lurraldeetakoarentzat (Nafarroa, Errioxa, Burgos); eta hori oso garrantzitsua da eskualde-garapenerako. Beraz, azpiegitura berri horren onura Eskualde Egiturako zona honetako biztanleriaz guztiz harantzago doa.

Eskuernaga-Navaridas zeharkako ardatza

Proposamen honen helburua da Laguardiako Eskualde Egiturako mendebaldeko sektorea hobetzea, Laguardia eta Navaridas arteko errepidea (A-4207) luzatuz Eskuernagaraino. Horretarako, gaur egun Navaridas eta Eskuernaga lotzen dituen landa-bidea ibilgailu-bide gisa egokitzea izango da abiapuntua.

Bide berriak 2 km-tik zertxobait gorako tartea egokitzea ekarriko luke. Tarte hori distribuzio-bidean barne hartuko litzateke, egungo Eskuernaga–Elciego–Laguardia lotunerako bide alternatibo gisa.

AEPIren irizpideen arabera, mota horretako bideetarako (auzo-sarea, 500etik beherako eguneko batez besteko intentsitatea –EBBI– aurreikusita duen lur lauan) ezaugarri onargarriak eta aproposak hauek dira:

	<u>Onargarria</u>	<u>Aproposa</u>
Galtzada/plataforma:	5/5 m	6/8 m
Gehieneko aldapa:		%10
Gutxieneko kurbatura-erradioa:	75 m	
Proiektuko abiadura	60-50 km/h	

Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planak proposatzen du bide berri horretan aipatutako estandarrak malgutasunez hartzea, horietara egokitzeak obra aurre egin ezingo zaion moduan garestitzea dakarren tartetean estandar horiek murrizteko aukerarekin.

8.3 HERRIGUNEKO SAIHESBIDEAK

Hiriguneen eta komunikabideen arteko lotura historikoa, errealitate beraren bi zati bereizteaz gain, aldatu egin da azken boladan. Zenbait kasutan arazo ere bilakatu da, elkarrekin egoteak etengabe eragozpenak sortzen baititu, zeharbideen berezkoak, eta batzuetan segurtasun-arazoak ere, oinezkoentzako eta ibilgailuen erabiltzaileentzako arrisku larriarekin.

Emandako konponbideek oreka bat lortu behar dute etekinen eta kargen artean, are gehiago LZPak Eskualde Egitura osatzen duten udalerrien interesetik duen konpromisoa kontuan izanda.

Ereduan adierazitako lurralde-antolamenduaren printzipioei jarraituz hierarkizatutako bide-sarea baloratzeko estrategiaren arabera, hiri-saihesbideei dagokienez, Labastida, Laguardia eta Oyón-Oiongo hiriguneetan jardun beharko litzateke. Hirigune horiek kontuan hartu beharreko berezitasunak dituzte.

LZParen proposamena da zeharbideen arazorako konponbidea planteatzea, bi fase hauetan: hiri-berrantolamendurekin lotutako jarduna, epe laburrean, eta bideekin soilik lotutako konponbidea, epe luzean.

- Labastidako saihesbidea. Hirigunearen hegoaldean trazadura berriko bide-tartea. A-124 errepidearekiko pasabide alternatiboa eta Harorekin lotzeko A-3202 errepidearekiko lotura.
- Laguardiako saihesbidea. Hirigunearen hego-mendebaldean trazadura berriko bide-tartea. A-124 errepidearekiko pasabide alternatiboa, eta Navaridasekin

lotzeko A-4207 errepidearekiko lotura eta Elciegorekin elkartzeko A-3210 errepidearekiko lotura.

- Oyón-Oion saihesbidea, espazioan kokapen finkorik gabea, A-2126 errepideak sortutako zeharbiderako konponbidea, batez ere. Oyón-Oionek Errioxako Autonomia Erkidegoarekin muga egiten duenez gero, saihesbidearen konponbideak hiri-izaera nabarmena izatea aurreikus daiteke. Iruñea eta Logroñorako proiektatutako azpiegitura berria baloratu beharko da. Izan ere, azpiegitura horrek Arabako Errioxaren eta korridore garrantzitsu horren arteko zuzeneko lotura bat egiteko aukera eman dezake. Lurralde-inplikazioak direla eta, erabaki horrek EAEtik kanpoko erkidegoetako administrazioekin koordinazioa eta adostasuna eskatzen du.

Hiri-zeharbideen eraginpeko gainerako hiriguneetarako, hirigunea zeharkatzen duen bidearen garrantzia alde batera utzita, LZPak, arazoari heltzeko, bi aukera hauek planteatzen ditu: zeharbideari tratamendu egokia ematea nahiz saihesbiderako proposamena egitea, eskumena duen administrazioak bide-sarerako egiten duen proposamenarekin bat egin beharko duena betiere.

Atal honetan adierazitako **lurralde-irizpideak**, batez ere, bideei lotutako edo epe luzerako konponbideari buruzkoa da, hiri-eragiketekin zerikusia duen konponbide partzalean jadanik ezarrita baitaude aipatutako printzipioak:

- Ingurumenaren gaineko gutxieneko eragina, eremuaren egoera topografikora egokitutako trazadurekin, eta hobekuntza-neurriak (baso-berritzeko, etab.erako proiektuen bidez).
- Lotura-ahalmen handiena, lurralderako ahalik eta zerbitzu egokiena ziurtatuko den moduan, saihesbidearen funtzionaltasunaren (ahalik eta lotune gutxienak) eta zeharkako lotura-pasabideen arteko oreka bilatuz.
- Landa-sarearekiko interferentziaren konponbidea, bai lehen sektorerako zerbitzuan, bai eta LZParen bitartez sortu eta babestu beharreko ingurumen-sarean ere.
- Inguruko hiri-errealitatearekin inplikatzeko, etorkizuneko zabalkuntzen aurrean oztopo edo mugako eraginak baloratzeko. Kontu handia izan beharko da saihesbideen ertzak ez okupatzeko, haien funtzionaltasuna ez eragoztearren; eta, horien zati bat garapenetarako euskarritzat onartzeko kasuan, alboko bide espezializatuak izango ditu, bertatik sarbide egoki eta arrazoizkoarekin.

9 ENERGIA ETA ERAUZPEN JARDUERAK

Eskualde Egituraren biztanleria-dentsitate txikiak, lurralde-hedadura nahiko zabalak eta hiriguneen sakabanatze handiak egoera energetiko konplexua eta, aldi berean, interesgarria ematen dute.

9.1 ENERGIA KONBENTZIONALAK

Alde batetik, gehien hedatutako energiak, hau da, elektrikoak, ez du gehiegizko hornidura-arazorik. Gainera, EA Eren gainerako lurraldeetaranzko edo Nafarroaranzko hornidura-linea handiak hurbil egoteak eskaeraren araberako neurrizko inbertsioaz ziurtatzen du hornidura. Eskaera hori etengabe hazten joan da, batez ere industria-jardueraren ondorioz. Berariazko planik edo proiekturik ezean, LZPak ez du ekintza zehatzik planteatzen, eskaerari behar bezala erantzuteko konpainia hornitzailearen konpromisoa ezartzeari dagokionez salbu.

Gero eta ezarpen eta erabilpen handiagoa lortzen ari den aldaera energetikoa gas naturalarena da. EAE barruan nahiko zerbitzu berria denez, Arabako Errioxan nolabaiteko atzerapena dago haren erabateko ezarpenean; hain zuzen ere, biztanleriarekin eta lurraldearekin zerikusia duten arrazoiengatik. Baina aurrerapena ezinbestekoa da eta LZPak energia-iturri berri horren alde egin behar du bete-betean, besteak beste, arrazoi hauengatik:

- Nahiko energia garbia da, Eskualde Egiturarako exijitu beharreko ingurumen-kalitatearekin guztiz bateragarria.
- Oso energia eroso da erabiltzaile potentzialentzat, batez ere landa-eskalan, eta tamaina txikieneko hiriguneetan biztanleria finkatzeko helburua betetzea ahalbidetzen duten zerbitzuak eta bizi-kalitatea areagotzen laguntzen du.
- Oso energia baliagarria da kontsumitzaile handiak diren industria-garapenetarako.

LZPak, Eskualde Egituran gas-sarea pixkanaka eta erabat ezartzearen alde egiteko erabakitasunaz, hiriguneen eta industria-guneen arteko lotunetan kanalizazioen trazadurak arautzeko beharra ere ezartzen du, ingurune naturalari eragingo ez zaion moduan, batez ere babestutako eremuetan. Beraz, horien ezarpena ingurumenaren gaineko eraginari buruzko legeriaren mende egongo da.

9.2 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Energia berriztagarria gizarte aurreratuen bereizgarri ari da bilakatzen, eta ideia horrekin bateragarriak Eskualde Egituraren ingurumen-kalitatea eta bertako ardoen eta balio kulturalen ospe ukaezinak ematen dioten nazioarteko proiektzioa.

Euskal Autonomia Erkidegoa ere iturri berriztagarrien produkzioari eta kontsumoari dagokienez bete beharreko helburu batzuk bilatzen ari da.

Maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren bidez, Haize Energia Antolatzeko LAPa behin betiko onartu zen. Plan horrek gero eta gehiago ezartzen ari den energia-iturri horren aldeko apusturako oinarriak finkatzen ditu. Ildo horretatik, LZPa, iraunkortasun-printzipioak erabakitasunez bere gain hartzen dituen, aerosorgailuak ezartzen alde dago, baldin eta horien ezarpenak espazio babestuei eragiten ez badie, eta ikus-eragina edo paisaiaren gainekoa oso txikia bada. Kantabria mendiguneak ematen dituen presentzia eta nortasuna ezin dira aldatu elementu horiek instalatzearen ondorioz, eta aipatutako elementuek printzipio hori bete behar dute. Zona berezietan potentzia txikiko eta ingurumenaren gaineko eragin eskaseko aerosorgailuak ezartzeko aukera azter liteke.

Eguzki-energiari dagokionez Arabako Errioxa aparteko zona da, eta mahastia horren adibide da. Horrenbestez, energia horren ezarpenaren adibide izan beharko luke, ez hainbeste zentral handien moduan, onartzen zaila izango litzatekeen ingurumen- eta paisaia-eragina izango bailuke horrek, produkzio sakabanatu txikiaren ildotik baizik. Zalantzarik gabe, oso osagarri energetiko interesgarria izango litzateke etorkizunari begira.

Energia berriztagarriari buruzko proposamena indartzeko, LZPak eskualdeko lehen sektoreko jardueraren kondarrak erabiliko dituen biomasa-zentrala sortzeko aukera iradokitzen du. Proposamen hori bideragarritasunari buruzko berariazko azterlan baten ondoren gauzatu beharko litzateke, eta azterlan hori, jakina, ez da LZP honen xede.

9.3 ERAUZPEN JARDUERAK

Harrobi-eremuak Antolatzeko LAParen bitartez erauzpen-jardueraren arloko arautzea garatu eta onartu bitartean, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan emandako ingurune fisikoa antolatzeko matrizearen arabera egin da LZParen proposamena.

Udal-plangintzan, erauzpen-jarduerak eragindako zonen eta erabilera horietara zuzendu litezkeen zonen mugaketa barne hartu beharko da.

10 OBRA HIDRAULIKOA, HONDAKINAK ETA LURZORU KUTSATUAK

10.1 OBRA HIDRAULIKOAK

10.1.1 Obra publikoak

10.1.1.1. Hornidura

Arabako Errioxa plubiometria eskaseko lurraldea da, malda handia eta baliabide hidrauliko eskasak dituena. Biztanleriarentzako hornidura Kantabria mendigunearen lurpeko uretatik edo Inglares ibaiko hartuneetatik datoz. Eskaera urte ertainetan edo euritsuetan bete daiteke, baina eskualdeak defizitak ditu urte lehorretan.

Lurrazaleko baliabideak oso eskasak dira eta hornidurarako zenbatetsitako eskaera $2,54 \text{ hm}^3/\text{urtekoa}$ da.

Hornidurarako Eskualde Plana abiapuntutzat hartuta, Labastida udalerrri autonomoa izango litzateke eskualde-sareari dagokionez, berorren hornidurarekin Inglares ibaiaren bi puntutatik, 54 l/s -ko gehieneko emariaz.

Eskualde Egituraren gainerakoak erkidetutako sare bat du, bere zerbitzua 14 udalerrietan zabaltzen duena. Udalerrri horien hiri- eta industria-hornidurarako, gaur egun Leza, Peñacerrada-Urizaharra, Laguardia eta Kripango zundaketak ustiatzen dira, 150 l/s -ko gehieneko emariaz.

Badira ere sare orokorrari ez dagozkion baina Partzuergoan bilduta dauden iturrietako eta linea-tarteetako hartuneak, bai eta iturrietako hartuneak ere ia udalerrri guztietan.

Beraz, oso sistema anitza da, bai sareei bai hartuneei dagokienez.

Biztanleriari buruzko LZParen aurreikuspenak (bai biztanleria finkoaren bai urtarokoaren gainekoak) erreferentzia gisa hartuta, Eskualde Egitura osorako, $3,36 \text{ hm}^3/\text{urteko}$ (107 l/s) eta abuztuan puntako ia 140 l/s -ko kontsumoak zenbatetsi dira etorkizunerako. Hortaz, eskura dauden baliabideen mugan egongo ginateke.

Barojan zundaketa bat egon liteke. 150 l/s -ko ekarpen-emaria duela kalkulatu da. Kantitateari dagokionez oso garrantzitsua bada ere, gaur egun ez da bideragarria.

Egoera hori kontuan izanda, LZPak bi jardunbide hauek proposatzen ditu:

- Azpiegitura hobetzea, hartune berrien bidez eta sarearen galerak murriztuz, jardunak ahalbidetzen duen neurrian.
- Kontsumoak arrazionalizatzea, bai bizitegi-erabilerarako bai industria-erabilerarako, horiek %30 murrizteko aukerarekin, Ebrorako Plan Hidrologikoak ezarritakoaren arabera.

Lurraldearen Zatiko Planak planteatzen du egungo horniduraren egoera LZParen etorkizuneko mugara proiektatzeak mugatu egin dezakeela Eskualde Egituraren

garapena, baldin eta horren inguruan neurri zehatzak hartzen ez badira. Neurri horiek ez dira LZParen berariazko xede, eta gai horretan eskumena duten administrazioek aztertu eta proposatu beharko dituzte. Baina, nolana ere, Planaren Lurralde Ereduan jasotako proposamenaren ondoriozko inplikazioak kontuan hartu beharko dituzte.

10.1.1.2. Saneamendua eta arazketa

Arabako Errioxako hondakin-urak arazteko sistemak Arabako Errioxarako Saneamendu Planaren zehaztapenei jarraitzen die, Arabako Errioxako Ur Partzuergoak hartutako erabakien bidez.

Hala, Labastida eta Elciegorako, funtzionamenduan dauden araztegien sistema itxuratu da; Lapuebla de Labarcán sistema hori aurreikusita dago, bai eta Bilar-Lantziegon, Yécoran eta Kripanen. Gainera, egungo arazketa-sistema osoa hobetzea aurreikusi da (hobi septikoen bidez edo teknologia berriak erabilia) Salinillas de Buradón, Viñaspre, Barriobusto, Laserna, Assa eta El Campillarren. Jardun horietarako denbora-muga 2008. urtea da.

Oyón-Oiongo hondakin ur guztiak udalerrri horretan kokatutako instalazioan arazten dira eta egungo instalazioak zabalte beharrezkoa da.

Gainera, araztegi propiorik ez duten herrien isuriak bilduko dituzten hodi biltzaileen sistema osoa aurreikusi da. Elciego eta Oyón-Oiongo araztegiak bilduko dituzten bi sare hauek sortuko dira:

- Elciegoko araztegia: Laguardia, Navaridas, Leza, Mañueta, Samaniego eta Eskuernaga.
- Oyón-Oiongo araztegia: Moreda.

10.1.2 Pribatuak: labore ureztatuak, aisia, etab.

Arabako Errioxaren labore ureztatueterako ur-eskaera $5 \text{ hm}^3/\text{urte}$ ingurukoa dela esan daiteke. Lantziegok eta Yécorak Kantabria mendigunetik jaisten diren sakan txikietatik hartzen dute ura. Gainerako udalerriek Inglares ibaiko hartuneetatik jasotzen dute ura. Hala ere, Mañuetan, Ebro ibaitik bertatik hura hartzen duten labore ureztatuak badira.

Eskualde Egituran jadanik badago labore ureztatueterako plan bat, interes publikokotzat deklaraturakoa. Plan hori dagoeneko martxan jarri da mendebaldeko sektorean, gutxi gorabehera Laguardiako ingurueteraino. Beraz, aipaturako plana ekialdeko sektorean abiarazteko dago. Planak tantakako ureztatze-sistema proposatzen du, kontsumoak murriztearren. Hornidura Eskualde Egituratik kanpoko baliabideetatik dator.

Lehen sektorearen produkzioa anizteko LZP honek adierazitako interesaren arabera, ureztatze-sistema garatzeak aukera berriak ekar ditzake mahastiarekiko labore alternatiboeterako, mahastirako hain egokiak ez diren eskualdeko zonetan.

10.2 HONDAKINAK

10.2.1 Hiri-hondakin solidoak

Eskualde Egiturak ez du ahalmenik hiri-hondakin solido organikoetarako zabortegirik barne hartzeko. Izan ere, ibarrak okupatzeak –mendigunetik gertu dagoen goialdean– ingurumenaren gaineko eragin handia ekarriko bailuke, eta arriskua ere uholdeen kasuan. Ebrotik gertu dagoen behealdean, berriz, bertako habitatean asaldura handia sorraraziko luke. Urrutiko zabortegien aukerak aurretratamenduko instalazio bat sortzea eskatuko luke, bertan, behin betiko zabortegira lekualdatu aurretik, zaborrak hautatzeko eta horiek trinkotzeko aldez aurreko prozesua ezarri ahal izateko. Jardun horren bidez, gainera, enplegua sor lezake.

Aurretratamenduko instalazio hori kokatzeko, LZPak irizpide hauek ezartzen ditu:

- Komunikabide nagusietatik sarbide ona izatea.
- Oinarrizko azpiegiturak egotea, batez ere lixibatuak tratatzeko.
- Ingurumenaren gaineko eragin txikia.
- Babestu gabeko lurzorua.

10.2.2 Industria-hondakinak

Industriak sortutako hondakinak dira, horiek arriskugarritasuna izan ala ez. Horien artean arriskutsuak izango dira 952/1997 Errege Dekretuko hondakin arriskutsuen zerrendan jasota daudenak, horiek barne hartu dituzten ontziak, Europar Batasunaren araudiak edo Gobernuarenak halakotzat kalifikatzen dituenak edota Espainiako Estatuak parte hartzen dueneko nazioarteko hitzarmenetan halakotzat bildutakoak.

Industria-hondakinen heterogeneotasuna dela eta, LZPak ezin du konponbide zehatzik eman hondakin-mota bakoitzerako. Beraz, irizpide orokor gisa, proposamena litzateke hondakin horiei jatorrian tratamendu egokia ematea, duten ahalmena deuseztatzeko.

10.2.3 Hondakin geldoak

Hondakin geldoen zabortegiei dagokienez, erkidetutako plantamendua beharrezkoa da. Toki-zabortegien ugaltzeak ingurumen-eragin handia dakar. Gainera, zabortegi horiek, behar bezala tratatuz gero, eta lurzorua hain garesti izanik, azpiegituretarako lurzoru bihur litezke epe luzera. Eskualde-mailako zabortegien kokapena arreta handiz aztertu beharko litzateke, baina beharrezkoak direla frogatuta dago. Arrazoizkoa litzateke Eskualde Egituran zehar homogeneouski banatutako sistema bat planteatzea.

Etorkizunean arazoak saihesteko, zabortegiak kokatzeko irizpide batzuk finkatu beharko lirateke, hots:

- Neurri batean iragazgaitzak izango diren geruzen gainean egotea, akuifero sakonak (hondakin geldoen isurketetan ere, substantzia kutsatzaileak egon ohi dira beti) eta lurrazala kutsatzea saihestuko den moduan.

- Paisaiari nahiz ingurumenari dagokionez ikus-eragin txikiko zonetan egotea, baliozko enklabe naturaletatik urruti, horiei eragingo ez zain moduan.
- Ibar “hilak” erabiltzea, hau da, oso ekarpen hidriko txikikoak, prezipitazio handiko aldietan materialak ez arrastatzeko.
- Legar-hobi zaharretan ere koka litezke, baldin eta horiek hurbileko ubideetarako arriskurik ez badakarte, edota ustiatzen ari ez diren harrobi txikietan ere, leheneratze egokia ziurtatzen bada.
- Zaborteziak ondoren leheneratu eta erabil daitezzen aurreikustea, lurrazalean gara daitezkeen erabileretarako (hala nola, parkeak, kirol-ekipamenduak, etab.). Ildo horretatik, kokapenak aukeratzeko garaian, jadanik badauden edo proposatzen diren oinezkoentzako ibilbideekiko, berdeguneekiko eta eskualde-parkeekiko hurbiltasuna kontuan har liteke, horiek elkarrekin lotu edo osatu ahal izango diren moduan.

10.3 KUTSATUTAKO LURZORUAK

“EAEko Poluitzaileak izan daitezkeen Jarduerak dituzten Kokaguneen Inbentarioan” barne hartutako lurzoruen hiri-transformazioko esku-hartzeetan, beharrezkotzat jotzen da kokagune horiek ikertzea, saneatzea eta erabat lehenera daitezzen bultzatzea.

Udal-plangintzak berariazko atal bat izan beharko du, leheneratzeko edo berritzeko estrategiak zehazteko garaian, kutsatutako lurzoruen arazoari aurre egiteko moduari buruz.

11 HIRI JARDUNERAKO ORIENTAZIOAK

Horren barruan, finkatutako hiri-ehunetara bideratutako ekimenak sartuko lirateke, Eskualde Egitura osatzen duten hiriguneak kualitatiboki hobetzea helburu dutenak.

11.1 HIRIGUNE HISTORIKOAK ETA INTERESEKOAK BABESTEVA ETA LEHENERATZEA

Honako hirigune historiko eta intereseko hauek babestu eta leheneratzea:

- Salinillas
- Labastida
- Laguardia
- Elciego
- Lantziego
- Bilar
- Labraza
- Oyón-Oion

Ekimen horien helburua da interes turistikoa potentziala duten hiriguneak leheneratzeko laguntza ematea, etxebizitzaren eta zerbitzuen kalitatearekin lotutako arazoei konponbidea emateaz gain.

11.2 IBAIERTZEN TRATAMENDUA

Gune ugarian nahiko litzateke ibaiertzeko espazioak edo haietatik gertukoak gaineratu; bi helburu hauekin: elementu horien hirigintza-leheneratzea eta egokitzapena aurreikusitako ibai-bideen egituraren barruan.

11.3 INDUSTRIA EREMUEN ANTOLAMENDU PAISAJISTIKOA

Industria-multzoen antolamendua du aztergai. Horietako batzuk, gainera, eskualde-egiturako lurralde-ateetako batzuk dira.

- Oyón-Oiongo industria-eremuak
- Eskualde-egituraren hegoaldean kokatutako industria-eremuak, A-124 errepidean zehar
- Laguardiako industria-eremuak

11.4 EKIPAMENDUEN ANTOLAMENDUA

- Labastida
- Laguardia

- Oyón-Oion

Toki-mailako berrekipamendu-proposamena, zuzkidura-mota desberdinetarako. 13. kapituluko ekipamenduei buruzko proposamenean zehatzago azaltzen bada ere, hiru hirigune horiek burutza gisa duten zeregina eta, horrenbestez, helburu horri erantzungo dion ekipamenduaren beharra jasoarazi nahi da.

11.5 HIRI EREMU BERDE BERRIAK

- Labastida
- Elciego
- Lapuebla de Labarca
- Oyón-Oion
- Laguardiako aintziren eremua
- Navaridasko aintzira

Hiri-elementu berriak sortzea, gehienak gaur egun hedatzen ari diren atsedeen-eremuen sistemaren osagarri gisa.

12 KULTUR ONDAREAREN ANTOLAMENDUA

Kultur ondarea balio historikoa, kulturala, artistikoa edo etnografikoa duten elementu puntualek edo multzo zabalago eta konplexuagoek osatzen dute. Elementu horiek motaren arabera daude sailkatuta.

Kultur ondarearen antolamendua Euskal Kultura Ondarea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren esku dago. Plan horren aurrerapenak, ekainaren 13ko 3/2001 osoko bilkuran, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen onarpena eta aldeko txostena jaso zuen. Lurraldearen Zatikiko Plan honek bete-betean onartzen ditu plan horren edukiak, goizegi bideratzen ari denaren salbuespenarekin.

Ondarearen gaineko jardunbide gisa, bi ekimen-mota hauek proposatzen dira: zaintza eta balioa areagotzea.

LZParen asmoa ez da babeserako kategoriak edota prozedura berriak ezartzea. Helburua da, ordea, kultur ondarea baliozko baliabidetzat hartzea eta gainerako elementuekin eta baliabideekin lotzea, balio-motaren bat duten elementu guzti-guztiak identifikatu eta babesteari dagokionez udal-plangintzak duen erantzukizuna bere gain hartu gabe.

12.1 ZAINZA

- Kultura Ondarearen Zuzendaritzari (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila), gaur egun sailkatuta ez dauden eta diagnostikoaren inguruko dokumentuan azaltzen den zerrendan nabarmendu diren ondasunen sailkapena eta/edo inbentarioa egiteko eskatzea proposatzen da, legeriaren ikuspegitik Eskualde Egiturako kultur ondarearen elementu nabariak parekatzeko.
- Eskualdeko udalerrri guztiek komunak dituzten tipologiaren arabera zaintzarako oinarritzko jarraibide batzuk lantzea proposatzen da, ondarearen elementu nagusiak eta horien ingurunea iraunarazten eta balioa ematen laguntzeko.
- Gomendatzen da eskumena duten administrazioei eskatzea bai zenbait elementuren (hala nola, trikuharriak edo La Hoya herrixka –azkena gero eta gehiago narriatzen ari da–) mantentzea hobetzeko, bai eta handitasun fisikoa, historikoa eta artistikoa duten eraikinak (esaterako, Oñatiko Kondeen jauregia, Salinillas de Buradónen), eta espazio bereziak (adibidez, Toloñoko Aingeruen santutegia) eta horien ingurunea leheneratzeko.

12.2 BALIOA AREAGOTZEA

Ondarea zaintzea nahikoa ez denez, baizik eta, Eskualde Egituraren aniztasun ekonomikoa bultzatzeko, era berean, ondasun-multzo hori dinamizatu beharra dagoenez, ondareari buruzko atal honetan honako jardun hauek proposatzen dira, multzo horren balioa areagotzarren:

- Azpiegiturak sortu eta hobetzea: lehenik eta behin, leku estrategiko batean, hala nola, Eskualde Egituraren erdigune enblematikoa den Laguardian, Arabako Errioxako kultur ondarearen jarraipen- eta hedapen-lana koordinatuko duen zentroa edo museoa sortzea proposatzen da.
- Ondareari buruzko atalean bildutako elementu guztietarako sarbidea ematen duen bide-sarea hobetzea, batik bat Eskualde Egituraren ekialdeko sektorean, gune jakin batzuetarako sarbidea errazteko.
- Nabarmendutako kultur ondarearen seinaleztapena hobetzen jarraitzea, eta monumentuetan edota lurraldearen beste puntu batzuetan dibulgazio-panelak ezartzea.
- Ondare-ondasunak berriro erabil daitezzen sustatzea. Ildo horretatik, Eskualde Egiturako zuzkidura indartzeko proposamenak ondasun horiek behin betiko berreskuratze bultzada ekar dezake.

12.3 KULTUR INTERESEKO IBILBIDEAK SORTZEA

Ondarearen balioa areagotzeko Lurraldearen Zatiko Planean aurreikusitako jardunaren barruan, mota bereko elementu guztiak elkarrekin lortzeko ibilbideak sortzea proposatzen da. Sailkapen hori elementu jakin batzuen dentsitate edo metatze handiagoaren adierazgarria besterik ez da:

- **Interes arkeologikokoa.** Kantabria mendigunearen mazelen oinarriarekin estu lotutako ibilbidea izango litzateke, bertan baitaude intereseko elementu gehienak; aipagarrien artean hauek: Peña Parda, Los Husos, La Hoya herrixka, La Chabola de la Hechicera, Los Llanos, etab.

Zona honetako ibilbide naturalistikoaren lotura handia izango luke. Beraz, haiekiko elkarrekintza bilatzeko aukera egongo litzateke.

- **Interes arkitektonikokoa.** Ibilbide honek Salinillas de Buradón, Labastida, Samaniego, Elciego, Laguardia, Bilar, Lantziego, Labraza eta Oyón-Oion bilduko lituzke. Hirigune historikoez eta interesekoez osatutako kultur intereseko ibilbidea da, basilizen eta baliozko bestelako elementuen arkitektura barreiatukoa.
- **Interes etnografikokoa.** Arabako Errioxaren tradizioari eta idiosinkrasiari lotutako ibilbidea, lurralde osoan banatutako upel eta dolareen, erroten, ohituren eta folkloreaken erakusgarri bikaina, Eskualde Egituraren erdialdean eta hegoaldean interes berezia duena.

13 EKIPAMENDUAK: HIRI KALITATEAREN ALDEKO APUSTUA

13.1 EKIPAMENDUEN EGITEKOA

Agerian da ekipamendu kolektiboek eskualde baten garapenean duten egitekoa, sozializazio-prozesuetan betetzen duten zeregina eta pertsonen beharrei erantzuteari dagokionez duten eragina. Behar horiek ez dira homogeenak gizarteko kide guztientzat, eta gizarte-egiturak eta “gizarte-behar” kontzeptuak berak baldintza jakin batzuk ezartzen dituzte erabilpen kolektiborako zuzendutako ekipamenduak planifikatzeko garaian. Gizarte-eskaerak dinamikoak direla esan beharra dago. Faktore horrek azterketa estatikoa galarazten du eta, ondorioz, jarrera zuhurra izatera behartzen du hiri-plangintzan ohiko tresna gisa erabiltzen diren estandarren aurrean.

Estandar horietarako hautabideak gizartearen ikusmolde heterogeneotik abiatuta bilatu beharko lirateke. Lehenik eta behin, gizabanakoek gizarte-klaseak egitura ekonomikoarekiko erlazio desberdinaren arabera sortzen dituztenaren ideia jasoko litzateke. Horren ondorioz, haien prestakuntza, kultura eta errenta ere desberdinak dira eta, hortaz, baliteke euren behar kolektiboak berberak ez izatea.

Adinaren eta sexuaren arabera ezarritako bereizketa izango litzateke bilaketa horren bigarren euskarria. Hori kontrajarrita egongo litzateke biztanleriaren tamaina orokorraren arabera kontsumo kolektiboko ondasunen neurri uniformeak aplikatzen duten ikusmoldeekin. Beraz, aipatutako ikusmoldeak ezinduta daude adierazitako kontraesanei konponbidea emateko.

Egoera orokor horren barruan planteatzen dira hiru behar-multzo nagusiak (prestakuntza, osasuna eta sozializazioa), behar horiek pertsonen eguneroko bizimoduan ezartzen duten elkarreragin naturalarekiko ikuspegi malguak. Ohar metodologiko horiekin batera, beharrezkotzat jotzen dugu beste hiru irizpide hauek aditzera ematea:

- Gaur egungo kulturak eta garapenak “bizi-kalitateari” ematen dioten gizarte-garrantzia, ez soilik gizarte-mugimenduen lorpen historikoen ondoriozko emaitza gisa, baizik eta bizitegia aukeratzeko garaian pertsonen erabakietan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den balio gisa ere.

Ingurune “osasungarria”, ingurumen-oreka, zuzkidura kolektibo egokiak, etab. faktore garrantzitsuak dira, halako erabakiak hartzean kontuan izaten direnak.

Hori onartuta, diagnosiaren arabera, Eskualde Egiturak desorekak eta gabeziak dituela ekipamenduen egituraren (adibidez, kirol- eta kultur ekipamenduetan). Horren ildotik, gure asmoa da eskaintza horri eustea eta hobetzea ere, adierazitako gabeziak eta desorekak betetz.

- Aurreko puntuari dagokionez, Arabako Errioxaren ezaugarri demografikoak eta kulturalak direla eta, kokapen estrategikoa du eta erreferentzia-guneetako bat

da eragin-eremuaren aisia- eta atsedeen-erabileretan. Hala, eskualdez kanpo proiektatzeko aukera duen espazioa da, “erabiltzaileen” trafikoari dagokionez.

Horrek guztiak osatzen duen esparru berrian, sor litezkeen desorekak zuzentzera eta aipatutako joerekin bat etorriko den lurraldea zehaztera bideratutako proposamenak ezarri behar dira.

- Erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzan oinarrituta ebatzi beharreko berariazko arazoa sasoiko langileei buruzkoa da, bai ostatuari dagokionez, bai eta ekipamendu-beharrei dagokienez ere (batez ere familiakoekin edo familia osoarekin lekualdatzen diren langileen kasuan). Pertsona horiek, behin-behinekotasun baldintzengatik eta jatorri-aniztasunagatik, berariazko arreta behar dute. Lurzoruaren eta inbertsio publikoei lehentasuna ematearen inguruko gaietan LZPak dituen eskumenetatik, administrazio eskudunei eskatzen diegu harrera-programak egin ditzatela, nekazaritza-erakundeekin, sindikatuekin, etab. adostutakoak; horien bitartez, lurralde-plan baten zuzenean esku hartzeko eta arautzeko aukerak gainditzen dituen egoerari eraginkortasun handiagoaz erantzun ahal izateko.
- Azkenik, Arabako Errioxako eskualdearen barruan lurralde-bereizketak eta -etenak daude.

Gure ustez, plangintzaren jardunean lurraldea egituratzeko irizpide bat gaineratu behar da, lurralde osoari barne-koherentzia emango diona eta, inguruko landa-enklabeen ezaugarri bereziak kontuan izanda, horien beharrekiko sentikor izango dena.

LZPan, ekipamendu-sistema garatzeko eredu ordenatua ezarri nahi da, honako eskemaren arabera:

- a) Zerbitzu espezializatuagoak edo konplexuagoak izango dituzten hiru eskualde-burutza hauek zehaztea: Oyón-Oion, Laguardia eta Labastida.
- b) Tarteko lau udalerrri, horien dinamismo ekonomikoaren eta demografikoaren arabera: Elciego, Lapuebla, Eskuernaga eta Lantziego.
- c) Ekialdeko eta mendebaldeko udalerrri txikiak, ekipamendu oinarritzkoenetan oinarritzeko joerarekin.

Ikusmolde horren helburua ez da zerbitzuak zentralizatzea, horiek herritarrei eskaintzeko garaian eraginkortasun handiena lortzea baizik. Zerbitzuak deszentralizatzea da Lurraldearen Zati Planaren lehentasunetakoa, baldin eta horrek zerbitzuen eraginkortasuna galtzea ez badakar.

13.2 OSASUN ETA ASISTENTZIA EKIPAMENDUA

Osasun-arretaren eta gizarte-zerbitzuen egungo egiturari eustea proposatzen da, funtzionala baita; desgokitasun puntual txiki batzuk zuzenduz nolana ere.

Egungo zerbitzua hobetzeko, Lezako ospitalea sustatzea proposatzen da, 24 orduko larrialdi-zerbitzuak eta anbulantzia ziurtatuz.

Gizarte-zerbitzuen esparruan, hiru eskualde-burutzetan zerbitzu espezializatuenak garatzea, bereziki hirugarren adinekoen premiak (etxez etxeko bazkariak, etab.) betetzeari dagokionez.

Kontuan hartzeko beste proposamen bat litzateke, dituen baldintza klimatiko bereziengatik, Arabako Errioxak hirugarren adinekoak ezartzeko eskualde naturalaren eskalako (Errioxako Erkidegoa barne dela) eskaintza izateko aukera.

Zalantzarik gabe, establezimendu-mota hori gero eta gehiago eskatzen da, biztanleriaren zahartzea dela eta. Klima ona, bizi-kalitatea, osasun-zerbitzu egokia, etab. behar adinako elementuak izan litezke proposamen-helburu hori lortzeko.

13.3 HEZKUNTZA EKIPAMENDUA

Lurraldearen Zatiko Planak egungo hezkuntza-azpiegitura hobetzea proposatzen du. Oro har, egokia eta funtzionala da, baina berriazko zenbait jardun behar ditu, puntualak eta kostu txikikoak, batez ere orokorrean haur-hezkuntzari dagokionez.

Lanbide-heziketaren arloan, prestakuntza garapen ekonomikorako helburuetara egokitzeari buruzko azterlana egin behar da.

Helburu hori Eskualde Egituran gertatzen ari den prestakuntzaren gero eta murrizketa handiagoari gehitzen badiogu, nekazaritza-jarduerarekin lotutako hezkuntza-bideak sustatzeko aukerak bi helburu oinarrizko eta utziezin hauek beteko litzuzke: kultur maila egokia duen biztanleria eta prestakuntzak edozein jardueraren gainean dakarren balio erantsia.

13.4 KIROL EKIPAMENDUA

Kirol-ekipamendua hobetzea proposatzen da, bereziki hiru eskualde-burutzetan. Azpiegitura horrek erreferentzia izan beharko luke gainerako udalerrietako biztanleentzat zerbitzu espezializatuen eskaintzan, bai eta zonaren finkapen demografikorako elementu garrantzitsua ere. Ildo horretatik, beharrezkoa izango da udalerrri hauetako kirol-azpiegiturak finkatzea:

Oyón-Oion: Kirol-eremua zabaltzea eta osatzea (igerileku estalia, herritarrek egunero erabiltzeko zerbitzuak).

Laguardia: Udalaren kirol-eskaintza behar bezala osatuko duten eta burutzen ari diren proiektu egokiak garatzea.

Labastida: Kirol-azpiegitura egokitzea. Gaur egungoan oinarririk, kirol-eremu egokia finkatzea, igerilekua, tenis-zelaiak, aire zabaleko pilotalekuak, etab. Eremu hori diseinatzean kontuan izan behar da asteburuetan eta oporretan kanpoko biztanleek ere erabiliko dutela.

Udalerrri ertainetan, oinarrizko kirol-zerbitzuen eskaintza (igerilekua, pilotalekua eta kiroldegia edo kirol anitzeko pistak) finkatzea litzateke helburua. Gainera, gaur egun egon litezkeen eskasiak (igerilekua Lantziegon, kiroldegia Lapueblan) aztertu beharko lirateke.

Udalerrri txikietan, igerilekua eta pilotalekua egongo direla ziurtatzea. Horrek, Samaniegon igerilekua eraikitzea lekarke (helburu garrantzitsua, udalerrri horren garrantzi turistikoa kontuan izanda).

Ekipamendu-mota hori Eredu Bigunera lotuta egoteak, berez, hura ekipamendubaliabidetzat hartzea dakar, gero eta gehiago hedatzen ari den turismorako zerbitzuen eskaintzan.

Golf-zelai berriak ezartzeak duen lurralde-eragin kontuan handia izanik, Lurraldearen Zatiko Plan honetan kirol-ekipamendu horri buruzko aipamen berezia egin nahi da, azken urteotan gorakada izugarria izan baitu.

Arabako Errioxan, bikaintasunaren alde egin behar duen eskualde-egituraren, kalitatezko turismoa erakarri ahal izateko, antzemandako ahalmena gauzatuko duten hainbat neurri hartu behar dira. Kalitatezko eskaintza orokorrak oso zuzkidura-maila kualifikatua eskatzen du. Eskualde Egiturarako aukera errealista bat olgeta- eta kirol-ekipamendu handi bat (kasu honetan golf-zelaia) ezartzea litzateke.

Kirol hori egiteak ekarri duen elitismoaren zama bazterturik, Arabako Errioxarako planteatutako proposamenak zenbait balio erantsi ere izan behar ditu, hura interesgarri bihurtuko dutena, bai bertako biztanleriarentzat bai bisitariarentzat.

Mota horretako instalaziorako planteatu beharreko gutxieneko helburuak hauek dira:

- Ingurumen-eragin txikia (baliabideen kontsumoari, dauden elementu naturalen transformazioari edo horiekiko eraginari, etab. dagokienez).
- Ingurumena leheneratzeko prozesuei laguntzea.
- LZP honetan proposatutako ekonomia anizteko helburuari erantzutea.

LZPan emandako Lurralde Ereduaren definizioak koherentea izan behar du mota horretako ekipamendu bat ezartzearen ideiarekin. Baina ekipamendu horren kokapen zehatza ez dator besterik gabe Eredu horretatik. Proposatutako hirigune-sareak ez du ezbairik gabe baldintzatzen haren kokapena. Izan ere, lurraldearen osotasunak eman dezake ezarpen horretarako erantzuna, gutxieneko arau batzuk ezarriko dituzten oinarrizko irizpideak finkatu ondoren.

Ekipamenduaren jabariak publikoa ala pribatua izan behar duen erabakitzea ez dirudi LZPari dagokionik, bai ordea haren izaera finkatzea. Izan ere, aipatutako ekipamendua ez da ulertu behar pribilegiatu gutxi batzuentzako instalaziotzat. Interes orokorreko zuzkidura bati buruz ari gara, Eskualde Egituraren garapen sozial eta ekonomikorako funtsezko osagai bati buruz eta, horrenbestez, haren funtzio publikoa ziurtatu egin

behar da. Horrek izan behar du ikusmoldearen printzipioa, proposatutako Lurralde Ereduari jarraituz.

Ezarpenaren helburuak finkatu ondoren, hona hemen **kokapenerako ezarritako irizpideak**:

- Kokapenak, hasteko, ekipamenduaren funtzionaltasuna ahalbidetuko duen oinarritzko gaitasuna izan behar du, instalazioaren kalitatea eta, horrenbestez, kirolaren jarduna ziurtatuko den moduan. Kirol-jardunak lehentasuna izan behar du beste erabilera batzuen mendetasun funtzionalekiko (azken boladan, bizitegi-eragiketei lotutako instalazio-mota hori eskaintzen ari dira, golf-zelaia sustapenaren erakarpentzat erabilia; egiaz, oso kalitate eskaseko azpiproduktua izanik).
- Urbanizaezintzat kalifikatutako lurzoruen gainean, ezarpena ezin izango da kokatu babes bereziko eremuetan, ez eta gordetako eremuetan ere, batez ere baliozko nekazaritza-lurzorua badira.
- Ezarpenak ez du ekarriko mahasti-azalera nabarmen murriztea, hura aurreko kalifikazioen barruan egon gabe ere. Gehieneko galera onargarria 20 ha-koa izango da, instalazio horiek 40 eta 60 ha bitartean hartu ohi dutela kontuan izanda.
- Golf-zelaia urbanizagarri edo antzeko gisa edota urbanizaezintzat sailkatutako lurzoruen gainean ezarri beharko da. Azken kasuan, plan berezi baten bitartez garatu eta bideratu beharko da.
- Bizitegi-eskaintzari lotutako lurzoru urbanizagarrian edo antzekoan, ezarpena LZP honetan etxebizitza-gaietarako ezarritakoaren arabera arautuko da; eta, lehen edo bigarren bizitegiko etxebizitza kokatzeari dagokionez, Lurralde Ereduarekiko koherentziari buruzko irizpideak kokapen-baldintzatzaile izango dira.
- Golf-zelaia ezarri ahal izateko, buruaskitasunaren printzipioari jarraitu beharko zaio, batez ere baliabide hidrikoaren kontsumoan. Kontsumoak ahalik eta gehien murrizteko neurriak (landare-espezieak, zelaiaren orientazioak, etab.) eta dagoen oreka urrakorrari eragin gabe baliabideak lortzekoak (biltegitratze-sistema propioa, kalitate eskaseko urak edo hondakin-urak erabiltzea, etab.) planteatuko dira.

13.5 KULTUR EKIPAMENDUA

Kultur eskaintza garatzea, honako helburu hauekin:

- a) Udalerrri guztietan kultur lokal egokiak bermatzea, gaur egun udalerrri askotan ez baitira behar adinakoak ohiko kultur bizitzarri eta elkarte-mugimenduari erantzuteko, batez ere mendebaldeko udalerrri txikietan.

- b) Eskualde Egituran liburutegien gutxieneko eskaintza bermatzea.
- c) Labastidaren kultur eskaintza finkatzea, bereziki eskasa baita, batik bat udalerraren izaera turistikoa kontuan izanda. Esparru horretako beharrei erantzungo dien kultur etxea sortzea.

Kulturaren arloko eragiketa enblematiko gisa, Lurraldearen Zatiko Planak lurralde-ekipamendu handia sortzea proposatzen du, Arabako Errioxako Museoa izen orokorra izan dezakeena eta Eskualde Egituraren berezitasunen erakusgarri gorena izan daitekeena. Balio erantsi gisa, turismoa erakartzeko baliabide guztien koordinazioa hobetzeko aukera emango dezake.

13.6 TURISMO AZPIEGITURA

Arabako Errioxaren ekonomia anizteko helburuak (lehen sektorearekiko mendetasun handiegia du) turismoarekin lotutako zerbitzuen sektorean du etorkizuneko aukera bat. Izan ere, sektore hori nahiko garatuta dagoen arren, askoz ere gehiago haz daiteke.

Eskualde Egituraren erakargarritasuna ukaezina da, eta Lurraldearen Zatiko Planean alderdi hori ere sustatzen da. Baina eskaera potentzial hori benetako eskaera bihurtzeko, ezinbestekoa da aurreikusitako exijentziak beteko dituen hotel- eta ostatu-eskaintza izatea: kantitatea, bisitari guztiak hartu ahal izateko ahalmenari dagokionez, eta kalitatea, bereizgarri gisa.

Ondare kultural, historiko, artistiko eta etnografiko aberatsaren sakabanatzea Eskualde Egitura osoan zehar, era berean, abantaila bat da azpiegitura turistikoaren eskaintza barreiatzeko:

Azpiegitura turistikoa egituratuta egon daiteke eta hala behar du, eta eskaintzaren antolamendu horrek koherentea izan behar du proposatutako Lurralde Ereduarekin. Tipologiei buruzko eskuliburu bat idaztea asmoa ez bada ere, komeni da aipamen bat egitea produktuaren eta kokapenaren arteko egokitzapenari buruz.

- Oin berriko eta erabilera eskusiboko hotelak edo antzekoak. Eskaintza espezializatutzat hartzen da, lurraldez kanpoko interes potentzialei lotuta (hotel-kateak). Instalazio horiek behar duten tamaina dela eta, beharrezkoa litzateke horiek hirigune handiei lotzea. Hala, burutzaren edo azpiburutzaren eskala egokitzat har daiteke.
- Hotelak eta antzekoak zaharberritu/birgaitu beharreko eraikin katalogatuetan. Kasu horretan, ezarpena aurreizan-mota horiek egoteari lotuta geratuko da, eta egokitzat jotzen da hirigune-mota guztietarako. Erakunde publikoek sustatu beharreko aukera litzateke, udal-altxor publikoarentzat oso garestia den ondarea babestu eta balioa emateko neurri gisa, proiektu alternatibo benetan interesgarririk ezean.
- Landa-ostatuak, hiriguneko nahiz landa-inguruneko eraikinetan kokatutakoak. Badago jadanik mota horretako esperientzia garrantzitsu bat Eskualde

Egituran, tamaina desberdinetako upeltegiei lotuta ere. Aukera hori sustatu beharko litzateke.

- Kanpinak. Instalazio horiekin dagoeneko izan da arrakasta eskaseko esperientziaren bat eta ez da egokitzat hartzen Eskualde Egiturarako, horren ezaugarriak direla eta.

Udal-plangintzak arautu beharko ditu turismo-azpiegituraren modalitateak ezartzeko baldintzak. Hala ere, ezarpenak oinarritzko jarraibide hauek bete beharko ditu:

- Kudeaketa-organo bakarraren bitartez baliabide guztiak koordinatzea. Organo horrek informazioa bereganatzen eta, azken buruan, azpiegiturara bertara jotzen lagundu behar dio erabiltzaileari.
- Oin berriko hotel-instalazioek, ezarpenaren tamaina kontuan izanda, koherenteak izan beharko dute aurreikusitako Lurralde Ereduarekin. Tamainaren arabera, honela arautuko lirateke:
 - 50etik gora gelako hotelak: lurralde-burutzak
 - 25etik gora gelako hotelak: lurralde-azpiburutzak
- Araudia malgutzea, erabilera horiek (batez ere ondare arkitektonikoei lotutakoak) ezartzeko bidea eman ahal izateko.
- Indarrean dagoen legerian jasotako helburuekin bat etorriko diren lurzoru urbanizaezineko ezarpenik aurreikusiz gero, hasteko, instalazioaren funtzionaltasuna ahalbidetuko duen oinarritzko gaitasuna izan behar du. Ezarpena ezin izango da kokatu babes bereziko eremuetan, ez eta gordetako eremuetan ere, batez ere baliozko nekazaritza-lurzoruak badira.

13.7 MERKATARITZA AZPIEGITURA

Arabako Errioxako Eskualde Egiturak, hain biztanleria txikia izanik, urteko sasoi jakin batzuetan besterik ez baitu biztanleria nabarmen areagotzen, zenbait arazo ematen ditu merkataritza-zuzkidurarekin zerikusia duen berariazko gaiari ekiteko garaian.

Ohiko merkataritza, eskala txikikoa, herritarrarengandik gertukoa, dagoeneko egoera batera egokitutakoa, ez da eztabaidan jarri behar, ez baitago benetako hautabiderik eta ez baitirudi horrek interesatzen duenik. Errotiko planteamendu batek merkataritza hori desagertzea ekar dezake.

Saltoki handiak ezartzeko hautabidea ez da bideragarria, eskaera potentzial txikia eta zerbitzu-mota hori eskain dezaketen, eta dagoeneko eskaintzen duten, hirigune garrantzitsuekiko hurbiltasuna kontuan izanda. Orduan, zein da bidea?

Arabako Errioxan sustatu beharreko joera turistikoak produktu komertzialki malgua eskaini behar du, beste erabilera batzuekin konbinatutakoa, merkataritza-jarduera beste jarduera osagarri eta sinergiko batzuekin (ziur aski kulturaren eta aisiaren ingurukoak) lotuko den moduan. Eskaintza hori ikertu beharreko aukeratzat hartu behar da, ekimen publikoak zabalik utzi behar duen atetzat; ekimen publikoa baita jarduera-mota horren benetako eragilea den ekimen pribatuaren erakunde babeslea.

Lurraldearen Zatiko Planak Lurralde Eredu bat zehazteak arloko proposamenen arteko koherentzia eskatzen du, eredu horri egokitu ahal izateko. Hala, lurralde-eskalako ekipamenduak, lehen aipatu ditugun gakoekin, kokapen aproposa izan behar du eta, gainera, proposamen honen sinesgarritasuna indartu dezaketen LZParen beste erabaki batzuetan oinarrituta egon behar du ere.

Berriz ere, lurraldeko hirigune-burutzak, hau da, Labastida, Laguardia eta Oyón-Oion, dira xede horretarako gune aproposenak, abantaila garrantzitsuak biltzen baitituzte, hots: nolabaiteko tamainako hirigunea, biztanleria erakartzen duen zerbitzu-zuzkidura, kokapen egokia (barruko nahiz kanpoko ikuspegitik), etab.

Halako jarduna estrategikoa dela kontuan hartuta, hura zehazteko tresna egokia udal-plangintza da. Merkataritza-zuzkidura eta erabilera sinergikoak bateratzeko formula zehaztugabea denez, plangintzak behar adina malgua izan behar jarduera horiek ezarri ahal izateko.

Hona hemen merkataritza-erabilerak arautzeko oinarritzko irizpideak:

- Plangintzan ekonomia-jarduerakotzat (egin daitezkeen xehetasunetako edozeinetan) kalifikatutako eremuetan kokatuko dira.
- Berez nolabaiteko berezitasuna emango dieten kokapen onuragarriak aprobetxatuko dituzte. Nolanahi ere, ez dute inola ere eragin kaltegarririk ekarriko paisaiaren nahiz ingurumenaren gainean.
- Kalitatezko sarbidea izan beharko dute eta sorrarazten dituzten aparkaleku-beharrak egokiro ebatziko dituzte.
- Eragiketari lotutako lurzoruen urbanizazio-baldintza orokorreari arreta berezia jarriko zaie eta ahalik eta kalitate handiena ziurtatuko da.
- Erabilerari berari balio erantsia emango dioten proiektuak sustatuko dira, marka-irudia bilatuz.

Merkataritza-ekipamendu handien antolamenduari dagokionez, hura dagoeneko ezarrita dago Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean, eta Lurraldearen Zatiko Plan honek bertan finkatutako irizpideak bere gain hartzen ditu.

Lurraldearen Zatiko Planak merkataritza-ekipamendu handien kokapena eta dimentsioak arautzen ditu, hiriguneek komunikabide-sareekiko duten kokapen estrategikoaren, biztanleria-pisuaren, eskuragarri duten espazioaren eta zentro horiek hartzeko hirigintza-egokitasunaren arabera. Horretarako, hiru kategoria hauek ezarri dira:

- a) Oyón-Oion: duen zentraltasunagatik, plataforma zelaiturako gehienez 75.000 m²-ko azalera garbia eta sabai eraikirako gehienez 25.000 m²-ko azalera baimentzen da.

- b) Laguardia: eskualde-zentraltasuneko udalerritzat hartuta, plataforma zelaiturako gehienez 40.000 m²-ko azalera garbia eta sabai eraikirako gehienez 13.000 m²-ko azalera baimentzen da.
- c) Eskualde Egiturako gainerako udalerriak: horietan ez da aurreikusi merkataritza-ekipamendu handirik ezartzea.

13.8 UDALAZ GAINDIKO BESTELAKO EKIPAMENDUAK

Udalaz gaindiko segurtasun-ekipamenduari dagokionez, Lurraldearen Zatiko Planak bere gain hartzen du Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren antolamendua. Ekipamendu hori Laguardian kokatutako Ertzaintzaren komisaria bakar batez osatzen da. Komisaria hori honako unitate, atal eta zerbitzuetan dago egituratuta:

- Zerbitzu nagusiak
- Komisariak
- Trafiko Unitateak.

Laguardiako komisariatik, Eskualde Egitura osoari ez ezik, udalerrri hauei ere egiten zaie zerbitzua: Armiñón, Berantevilla, Bernedo, Lagrán, Peñacerrada-Urizaharra eta Zambrana.

14 UDAL PLANGINTZAREKIKO ERAGINA

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen zehaztapenei jarraituz, udal-plangintzako zehaztapen orokorren berrikuspena Lurraldearen Zatiko Plan honetan xedatutakora egokitu behar da, honen arabera:

UDALERRIA	ERAGINA
Mañueta.....	LZPari egokitzea
Elciego	LZPari egokitzea
Bilar	LZPari egokitzea
Kripan	LZPari egokitzea
Labastida	LZPari egokitzea
Laguardia.....	Plangintzak bateratzea
Lantziego	Plangintzak bateratzea
Lapuebla de Labarca	LZPari egokitzea
